

GIPUZKOA ETA GASKOI HIZKUNTZA: 1310 ETA 1316KO BI DOKUMENTU ETA ZENBAIT OHAR

Iago IRIXOA CORTÉS
Historian doktorea. Ereiten K.Z.

Laburpena:

Gipuzkoako Erdi Aroko dokumentazioa hainbat hizkuntzatan idatzirik dago. Horien artean deigarriena, zalantzarik gabe, gaskoia da. Egoera hau gaskoiek Gipuzkoan izan zuten eraginaren seinale da, bereziki Donostia eta Hondarribiaren arteko lurraldean. Hizkuntza horretan egindako agiri gehienak ikerkuntza ezberdinetan aipatuak izan dira, baina oraindik badira argitaratu gabe dauden zenbait testu. Hori da, hain zuzen ere, datozen lerroon helburua: dokumentu pare baten transkribaketa plazaratzea, baina beraien inguruko hausnarketa batzuk egiteko aukera galdu gabe. Izan ere, bi dokumentuetako batek badu berezitasun bat: Oiartzungo udalbatzak sortua izatea. Ustez, gaskoiekin harreman eza izan duen herria, hain zuzen ere.

Gako-hitzak: Gipuzkoa. Donostia. Oiartzun. Erdi Aroa. Dokumentazioa. Gaskoi hizkuntza.

Resumen:

La documentación medieval guipuzcoana se encuentra escrita en diferentes idiomas. Entre ellos, el más llamativo es, sin duda alguna, el gascón. Este hecho es reflejo de la importancia que tuvo ese contingente poblacional en parte del territorio guipuzcoano, especialmente en la zona comprendida entre San Sebastián y Hondarribia. Ciertamente, la práctica totalidad de esa documentación ha sido mencionada en diversos estudios. Sin embargo, todavía quedan algunos escritos pendientes de publicación. Ese es, precisamente, el objetivo de las presentes líneas: presentar la transcripción de un par de documentos realizando, así mismo, algunas reflexiones. Uno de ellos, además, contiene una peculiaridad: está relacionado con Oiartzun, un pueblo que, teóricamente, ha estado alejado de la presencia gascona.

Palabras clave: Gipuzkoa. San Sebastián. Oiartzun. Edad Media. Documentación. Idioma gascón.

Abstract:

Medieval documents of Gipuzkoa were written in various languages. One of them was the gascon, which could be, undoubtedly, the most remarkable. Initially, this fact reflects the importance that gascon population had in the East zone of the Province, in the land comprised from San Sebastian to Hondarribia. The main documents written in that language have been mentioned and studied different times, but until now, some of them continued unpublished. The aim of this article is transcribe two documents, but making some reflections around them too. Specially, because one of them has an unusual trait, because it was written by the council of Oiartzun, a town which, traditionally, has maintained away from the gascon influence.

Keywords: Gipuzkoa. San Sebastián. Oiartzun. Middle Ages. Documents. Gascon language.

Laburdurak

AGS: *Archivo General de Simancas*

aip. lan.: aipatutako lana.

ald.: alderatu.

ARChV: *Archivo de la Real Chancillería de Valladolid.*

arg.: argitaratzailea(k).

at.: atzealdea.

au.: aurrealdea.

BEHSS: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián.*

EAE: Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Boletina.

EHU-UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea - *Universidad del País Vasco.*

EINA: Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria.

EUA: Errenteriako Udal Artxiboa.

fol. / folk.: folioa / folioak.

GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra-*Archivo General de Gipuzkoa.*

GBBNN: Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GPAH-AHPG: Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-*Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa.*

GPAK: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

HH. EE.: Hainbat egile.

HUA: Hondarribiko Udal Artxiboa.

IER: *Instituto de Estudios Riojanos.*

OUA: Oiartzungo Udal Artxiboa.

RAH: *Real Academia de la Historia.*

RIDEA: *Real Instituto de Estudios Asturianos.*

Sarrera*

Erdi Aroan, bereziki XII-XIV. mendeetan zehar, gaskoiek Gipuzkoako hainbat puntutan izan zuten eragina gauza jakina da. Horren isla argia topnimian mantendu dugu baina bere garaian beste esparru batzuetara ere hedatu zen, onomastikara eta, deigarriagoa izan daitekeena, baita dokumentazioa idazteko garaian erabilitako hizkuntzara ere¹.

* Lerro hauek burutzen hasi ginela, eta Juan Madariagaren bitartez, Ricardo Cierbideren heriotzaren berri jakin genuen. Aste gutxi batzuk lehenago Madariaga berari eta Peio Monteanori Cierbideri buruz galdetu genien, gure paragrafo hauen inguruan bere iritzia ematea nahi baikenuen. Zoritxarrez, ez zen posible izan. Gure doluminik sakonenak familiari eta ikertzailerei. Zalantzarik gabe, Euskal Herriak eta bertako hizkuntzalaritzak galera handia izan dute. Goian bego.

Bestalde, ondorengo orrialdeak burutzerako garaian gure eskaera, ezinegon, galdera eta zalantzei erantzun dieten guztiei eskerrik beroenak eman beharrean gaude. Aipatutako Madariaga eta Monteanoz gain, Borja Aguinagalde, María Álvarez Fernández, Luis Elberdin, Javier Elorza, Klara Gorosabel, Álvaro Solano Fernández-Sordo, Jesús Ángel Solórzano Telechea, Fernando Martín Pérez, Imanol Vitores Casado eta David Zapirain Karkaria oso euskarri garrantzitsuak izan dira. Azkenik, eta aurreko guztien ekarpena gutxietsi gabe, leku berezia egin behar diogu Mikel Zalbideri. Guztiei, beraz, mila esker.

1. Ikuspegi orokor baterako, Auñamendiko “gascón” sarrera har dezakegu eta, bereziki, ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización medieval occidental del reino de Navarra”. In: *Lurralde*, 33 (2010), 177-208 orr. artikuluan jasotako bibliografia. Egindako lanak ugariak dira eta une honetan guztiak aipatuko ez baditugu ere, hona hemen horietako hainbat: ARIZAGA BOLUMBURU, B. eta BARRENA OSORO, E.: “El litoral vasco Peninsular en la época pre-urbana y el nacimiento de San Sebastián”. In: *Lurralde*, 13 (1990), 277-312 orr., bereziki 292 eta 295-297 orr.; ATELA GURRUTXAGA, N.; ISASI SALABERRIA, A.; eta VICENTE BELTRÁN, I.: *Pasaiaiko euskararen historia soziala*. Pasaia: Pasaiaiko Udala, 2000; AZPIAZU ELORZA, J. A.: “Una ciudad volcada al mar: Los siglos XVI y XVII”. In: UNSAIN, J. M.: *San Sebastián, ciudad marítima*. Donostia: Untzi Museoa, 2008, 42-45 orr. (41-85); BANÚS Y AGUIRRE, J. L.: “Gascones en el costalde de Guipúzcoa”. In: *BEHSS*, 25 (1991), 561-584 orr.; BARANDIARAN, J. P.: “Gaskoiak Lezon eta Oiarsoko bailaran”. In: *Lezo*, 6 (1991), 7-14 orr.; BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante la época altomedieval*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1989, bereziki 251-260 eta 280 eta hh. orr.; ECHEGARAY, B.: “La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas (continuación)”. In: *EINA*, 13 (1922), 582-613 orr., bereziki 610-612; GAMON, J. I.: *Noticias históricas de Rentería. Prólogo y notas de Serapio Múgica. Serapio Múgica y Fausto Arocena. Reseña histórica de Rentería*. Donostia: Nueva Editorial, 1930, XXXIII. kapitulua; GAVEL, H.: “Note sur d’anciennes colonies gasconnes en pays basque”. In: *EINA*, IX (1918), 75-79 orr.; GAVEL, H.: “Le nom de Fontarabie est-il d’origine gasconne?”. In: *Melanges de littérature, d’histoire et de philologie offerts à Paul Lacomier, professeur à la Faculté des Lettres de Bordeaux*. Paris: E. Droz, 1935, 628-633 orr.; IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak Erdi Aro amaieran. Pasaiaiko badiako populazioen adibidea (XIV. mende amaiera-XVI. mende hasiera)”. In: *BEHSS*, 45 (2012), 15-125 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.: “Contingentes cantábricos en el poblamiento de Gipuzkoa en

Gaskoien etorrera eta eragina aztertzerako garaian, hainbat ikerkuntza izan dira Gipuzkoako lurraldean gaskoi hizkuntzaz idatzitako dokumentuen berri eman dutenak, dagoeneko agiri guztiak ezagutzera emanda daudela dirudielarik. Lerro nagusienetan hori hala da, eta horren lekuko oraingo paragrafoak ditugu, ezagunak gerta daitezkeen bi agiriren inguruan jardungo

...

la Baja Edad Media: El caso de la bahía de Pasaia” (prentsan); ITURRIOZ, F.: *Pasajes, resumen histórico*. Pasaia: PYSBE, 1952, 9-13 orr.; LACOMBE, G.: “Un document sur les gascons de Pasajes”. In: *EINA*, 10 (1919), 49-52 orr.; LACOMBE, G.: “Encore les gascons de Pasajes”. In: *EINA*, 11 (1920), 10 orr. (non Donostiaren 1328 ahalordeaz diharduen, ez Pasaiaz); LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altza XIV. eta XV. mendeetan”. In: *Altza, hautsa kenduz*, III (1996), 51-72 orr.; LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez izen”. In: *Altza, hautsa kenduz*, II (1994), 69-84 orr.; LOIDI BIZKARRONDO, J. A.: “Gaskoi-toponimia Irunen”. In: *Plazara*, 2 (1985), 13 orr.; MARTÍNEZ DÍEZ, G.: *Guipúzcoa en los albores de su historia (siglos X-XII)*. Donostia: GFA, 1975, 144-148 orr.; MÚGICA, S.: “Los gascones en Guipúzcoa”. In: *Homenaje a D. Carmelo de Echeagaray (miscelánea de estudios referentes al País Vasco)*, Donostia 1928, GFA, 2-29 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.): *Guipúzcoa y el reino de Navarra en los siglos XIII y XIV: Relaciones, intereses y delimitación de la frontera*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 1987, 24-26 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña y Guipúzcoa: la diócesis de Pamplona y de Bayona”. In: *Azkoaga*, 11 (2001), 93-212, bereziki 163 orr. eta hh.; OSÉS, C.: “La vertiente «lingüística románica» del País Vasco”. In: ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.): *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521). Actas del simposio celebrado en la Universidad de Deusto (San Sebastián) con motivo del Vº centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola (1-5 Octubre 1990)*. Bilbo: Mensajero, 1991, 465-472 orr.; TENA GARCÍA, M.ª S.: *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*. Donostia: Dr. Camino, 1997; TENA GARCÍA, M.ª S.: “Orígenes y florecimiento comercial”. In: UNSAIN AZPIROZ, J. M.ª, aip. lan., 13-39; TORRES GAROÑA, M.ª G.: “Interferencias léxicas vasco-románicas en el castellano de San Sebastián”. In: *ASJU*, 27 (1993), 449-538 orr, bereziki 454-455; SORIA SESÉ, L.: “Las relaciones históricas trans-fronterizas en el área vasca Bayona-San Sebastián, Guipúzcoa-Labour”. In: *Azkoaga*, 11 (2001), 69-92 orr.

Dokumentazioaren aldetik, zalantzarik gabe Ricardo CIERBIDE MARTINENA (g. b.) izan da ekarpen gehien egin duena. Ikus, besteak beste, bere “A propósito de un texto gascón de San Sebastián de 1304”. In: *EINA*, 31 (1986), 861-876 orr.; “Scripta medieval occitana en Euskal Herria”. In: *FLV*, 62 (1993), 43-59 orr.; “Euskal Herria: Lugar de encuentros de lenguas y culturas”. In: *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 1 (1991), 104-106 orr. (87-121) edota “Occitano languedociano y gascón en la Navarra Meridional, País Vasco Norte y Guipúzcoa”. In: *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2011, 761-772 orr. Ald. egile beraren “Documentación gascona de San Sebastián y de la Baja Navarra de los siglos XIII-XIV: comentario lingüístico”. In: CIERBIDE MARTINENA, R. (arg.): *Pirenaico navarro-aragonés, gascón y euskera. Donostiako Udako V Ikastaroak*. Donostia: EHU-UPV, 1987, 199-276 orr., non 1301 eta 1304ko dokumentuen azterketa darabilkien, baina beraien transkribaketarik egin gabe. Donostiari lotutako eta gaskoiez dauden dokumentuetarako, 1328ko ahalordea edo 1362ko Martin Gomis testametu, kasu, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*. Donostia: GFA-GBBNN, 1991, 153 eta 293 dok.

baitugu. Gure orrialde hauek, baina, idatzi horien ezagueran nolabaiteko aurrerapauso bat ematen dutela uste dugu. Orain arte argitaratutako lanetan aipamen hutsak izan direnak egia bihurtuko dira, erran nahi baita, aipuetatik transkribaketa egitera pasako gara. Hori egin baino lehen, baina, beraien inguruan hainbat ohar egitea komeni da.

Bi dira gure jomuga diren idatziak. Bata, Donostiako gobernu-taldearen 1310eko erabaki bat; bestea, 1316ko salmenta-gutun bat, protagonista nagusiena Oiartzungo udalbatza duena. Biak XIX. mende hasierako kopia sinpleetan iritsi zaizkigu; ez dira, beraz, dokumentu originalak. Jatorrizko agiriak gaur egun non egon daitezkeen arrastorik ez dugu, baina jakin badakigu duela berrehun urte pasatxo gure artean zeudela: 1310ekoa Donostiako gobernuaren funtsen artean gordetzen zen; Oiartzungo udalbatzak sortutakoa, berriz, Erreterriako udal artxiboan zegoen, Gamonen ardurapean².

Gaur egun, bien kopiak Madrilen dagoen Historiaren Errege Akademian gordetzen dira, Vargas Ponce funtsean³. Hori izan daiteke dokumentu hauek inguratzen dituen ezaugarri adierazgarrienetako bat. Akademiako funtsak behin baino gehiagotan erabili izan dira Gipuzkoaren zein bertako herrien historia aztertzeko eta Vargasek bildutakoek Gipuzkoako historiografian oso leku berezia daukate. Izan ere, cadiztarra gure artean izan zenean, artxiboetako askok gaur egun galduta dauden anitz agiri original gordetzen zituzten, Donostiako eta Getariako kasuak nabarmenenak direlarik. Hau bereziki adierazgarria izan da Behe Erdi Aroari dagokionean, eta horren lekuko dira José Luis Orellaren lanak eta Gonzalo Martínez Díez eta bere taldeak burututako dokumentu-multzoa⁴.

2. Hala adierazten da dokumentuaren kopian. Ikus Eranskin Dokumentala, 2.

3. Gure eskerrik beroenak, beraz, bertako profesional guztiei, dokumentazioaren inguruko galderak erantzuteagatik eta idatzien kopiak helarazteagatik. Vargas Ponce funtserako, ikus ABASCAL, J. M. eta CEBRIÁN, R.: *José Vargas Ponce (1760-1821) en la Real Academia de la Historia*. Madril: RAH, 2010. Aurkezten ditugun dokumentuak, baina, ez daude hor deskribatuta: 1316 urtekoa dagoen espediente honela aipatzen da: “*Apuntes y copias de documentos para la historia de Guipúzcoa, con indicación de las principales obras ya impresas que debe consultar*” (*ibidem*, 329 orr.). 1310eko agiria, berriz, honela: “*Privilegio de los herederos de San Sebastián sobre los vinos y sidras (Lib. becerro, fol. 22)*”, datarik gabekoa (*ibidem*, 243 orr.).

4. Ikus, besteak beste, ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Cartulario Real de Enrique IV a la Provincia de Guipúzcoa (14154-1474)*. Donostia: Eusko-Ikaskuntza, 1983; RECALDE, A.; eta ORELLA, J. L.: *Documentación Real a la Provincia de Guipúzcoa (siglo XV)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1988 (bi liburuki); MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., eta azken egile talde honen beraren *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397)*. Donostia: GFA-GBBNN, 1996.

Plazaratuko ditugun idatziak, aldiz, agirien bildumetatik alboratuta gelditu dira⁵. Horietan sartu ez izanaren arrazoiak ezezagunak zaizkigu. Ziurrenik ez zituzten topatu, nahiz eta gauza bitxia izan, 1316ko dokumentuaren kasuan, behinik behin. Izan ere, Errenteriako udal artxiboan horren kopia bat gordetzen da. 1237ko dokumentu batek osatzen duen espediente berean dago eta kopian adierazitakoaren arabera, Vargas Ponce bildumako 44. liburukian zegoena izan zuen oinarri; ondorioz, Errenterian dagoena XIX. mende amaieran edo XX. gizaldiaren hasieran egindako transkribaketak bat da. Horrek esan nahi du ordurako gaskoiez idatzi zen agiriaren berri bazegoela, orain arte inork plazaratu ez badu ere⁶.

Mintzagai ditugun dokumentuak ez dira, jakina, garai haietan gaskoi hizkuntzan idatzi ziren bakarrak. XIII eta XIV. mendeek hizkuntza horrek Gipuzkoan erabilera dokumentalik handiena ezagutu zuen garaia osatu zuten, erran nahi baita propio bertan eta bertarako sortu ziren hainbat pertsona eta erakundeetan. Baditugu XV. gizaldiko adibideak, baina Baionako eta ekialdeko hiribildu gipuzkoarren arteko itunekin zerikusia dute, edota bi aldeetako merkataritza-harremanekin; ez daude, beraz, herri horien barne dinamikari lotuak⁷.

5. Dena den, ohartu behar dugu Vargas Ponce bilduma ez dela guztiz ustiatu, ezta gutxiago ere; ez Erdi Aroari dagokionez, ezta XVI. mendeari dagokionean ere. Horren lekuko ditugu duela gutxi argitaratu genituen Donostiako XVI. mende hasierako udal-aktei buruzko oharra (IRIXOA CORTÉS, I.: “Iturri dokumental ezezagun bat? XVI. mende hasierako Donostiako udal akten laburpenak”. In: *BEHSS*, 45 (2012), 537-553 orr.) eta oraindik argitaratzeko dauden Getariako XV. mendeko udal-akten eta 1573tik aurreragoko udal-kontuen oharra.

6. Kopia honetarako, ikus EUA, B-1-1-1. Egiari zor, guk geuk ere ez genuen kopia honen berri. Txirripaz (ala patuari esker?) aurkitu dugu, 1237 pergaminoa kontsultatzerako garaian. Kopia honen kronologia ezezaguna zaigu, baina Vargas Ponce funtsean gordetzen den agirian oinarritua dagoela aintzat hartuta, 1821etik aurreragokoa izan behar du. Azken urte horretan iritsi ziren Vargasen idatziak Akademiara, hurrengo hamarkadetan antolatzen hasi zirelarik (ikus ABASCAL PALAZÓN, J. M.; eta CEBRIÁN FERNÁNDEZ, R., aip. lan., 36-37 orr.). Kopiaren egiletzat Serapio Mugica, Carmelo Echegaray edo Fausto Arocena hartu genitzake. Gogoratu behar dugu azken biek, Gamonek Errenteriar buruzko lana 1930ean argitaratzeko ardura izan zutela. Alabaina, hiruetako inork ez du 1316ko agiriaren berri ematen. Beste aukera bat Jose Pavia Bermingham donostiarra litzateke, XIX. mende amaieran Vargas Ponce funtsean gordetzen diren Euskal Herriari buruzko dokumentuen aurkibidea egin baitzuen. Ald. PAVÍA BERMINGHAM, J.: “Colección Vargas Ponce. Apuntes para un índice”. In: *Euskal-Erria*, 41 (1899), 108-110, 134-136, 187-189, 213-216, 291-294 eta 329-331 orr. Bitxia bada ere, artikulua hauetan ez da Gipuzkoaren historiako garrantzitsuak diren funts horretako XLIV eta XLV liburukien berri ematen.

7. Hauen inguruan, eta adibidetzat jarri den 1432 epaiari dagokionez, beherago jardungo dugu. Muga zehazteko 1509an egin ziren autoetan, lekukotzek Hondarribian izandako sute batek kiskalitako dokumentazioa aipatzen dute eta, horien artean, helburu berarekin 50 urte lehenago eman zen epaia, zeina gaskoiez idatzi zen. Eskerrak eman nahi dizkiogu Imanol Vitores Casadori datua helarazteagatik.

Gaskoi hizkuntzan dagoen dokumentu azpimarragarri bat Castelnaudary-ko merkataria Joan Lordekoaren eta Errenteriako auzo Juan Migelez Arranomendikoaren arteko negozioen inguruan sortua dugu⁸. Lehenengoak bigarrenari hainbat urdin-belar pastel saldu omen zion Bridgewater hirian. Adostutakoa errespetatzeko asmoz eta emandako hitza betetzeko, merkataria euskaldunaren aldeko berme-gutuna luzatu zuen, Baionan eta 1482ko azaroan, hilak bat zuelarik. Alabaina, salmentak ez zituen Bridgewaterko neurriak bete, nonbait, eta Arranomendik salaketa jarri zuen Baionako alkateordearen aurrean, 1483ko uztailak 4 zituela. Berme-agirian, eta zer edo zer gaizki joango balitz, Lordek bere burua hainbat lekutako justizia eta epaileen pean uzten zuen, Bordele, Baiona, Tolosa, Aux, Burgos, Donostia eta Hondarribikoen pean, besteak beste. Kontua da gaiari buruzkoak uztailaren 12an Hondarribian jakinarazi zirela, nola eta gaskoiez. Gaztela eta Aragoiko erregearen eskribau zen Pedro Santxez “Allayugue”koa izan zen idazlea, lekuko gisa Esteban Amasakoa (“*Steven de Masa*”) apaiza eta Joan Oiangurengoa zituelarik. Ez dakigu idazlea nongoa zen, nahiz eta abizenari kutsu euskalduna dario (inguruetako Allangue?), baina edozein modutan, agiria halako negozioetan gaskoi mintzairak zuen erabilera administratioboaren erakusgarri delakoan gaude, Hegoaldean gaztelaniak izan zezakeen bezala⁹.

Horrez gain, gorde zaizkigunak baino agiri gehiagoren berri badugu. Zoritzarrez, datu hauek hizkuntza horren idatzizko erabilerari buruzko informazioak dira eta ez dute gaskoiezko ele, esaldi edo paragraforik islatzen¹⁰.

8. *Archives Municipales de Bayonne. Registres gascons. Délibérations du Corps de ville. Tome I^o (1474-1514)*. Baiona: Imprimerie A. Lamaignère, 1896, 119 dok., bereziki 324 orr.

9. Baionako “*Livre des Établissements*” delakoak aipatzen duen 1415eko dokumentua ildo beretik ulertu beharko litzateke. Dirudienez, urte hartan Gipuzkoak eta Donostiako udalbatzak Bordeleko alkate eta hamabiei idatzi zietenekoa, gaskoiaren nazioarteko erabilera administratioboaren beste adibide bat izango genuke. Ikus *Archives Municipales de Bayonne. Livre des Établissements*. Baiona: Imprimerie A. Lamaignère, 1892, XXXVI orr. eta bertako 1 oin-oharra) eta ald. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 181 orr. Dokumentua (edo haren laburpena?) honako lanean argitaratua izan omen zen: BARCKHAUSEN, H. (arg.): *Archives municipales de Bordeaux. Registres de la Jurade, délibérations de 1414 à 1416 eta 1420 à 1422*). Bordele: Gounouilh, 1883, 242 orr., baina ohartu behar dugu ezin izan dugula lan hori kontsultatu.

10. Ezta Pasaiaarako ere, José Manuel Imaz-ek udal artxiboa antolatutako ondoren egin zuen inbentariario adierazi bezala: “*Alguna documentación hay que da idea de que la influencia gascona fue considerable, pero no se conserva ninguna pieza que aporte nuevos conocimientos acerca de este punto al que el llorado don Serapio de Mújica dedicó un importante trabajo...*” (IMAZ, J. M.: *Catálogo de los documentos del Archivo Municipal de la M. N. y L. villa de Pasajes formado por José Manuel Imaz, ayudante de dicha Inspección (1482-1899)*. Pasaia, s. e., 1942, 1 orr.).

Honela, Hondarribiko San Pedro kofradiak gaskoi hizkuntzan sortutako hainbat dokumentu, 1519an gaztelaniara itzuli zirenenen berririk badugu¹¹.

Adibide hori Hondarribiko erakundeek idatzi zuten gaskoiezko dokumentazioari buruzko aipamen bakarra da, nahiz eta, ikusi dugunez, bertako notarioek ere XV. mende amaieran gaskoiez idatzi. Bertako udal artxiboan halako testurik gorde ez dela ematen du. Halaber, bestelako dokumentazioarekin landutako ikerkuntzek, oraindik ez dute hizkuntza horren inguruko datu handirik topatu. Egia da han dauden edo zeuden espediente batzuek hizkuntza horren erabilera islatzen dutela, baina horien testuingurua oso zehatza da. Batetik, merkataritzari lotutakoak ditugu. Bestetik, Frantziako eta Gaztelako koroen ordezkariak bi erreinuen mugak aztertu edo finkatzeko kontuak dira; ez gaude, beraz, Hondarribiko barne-erabileraren aurrean¹².

11. “Yten, a ocho días del mes de maio de mill e quinientos y diez y nueue años, se trasladó esta rrola de la dicha comfradía de lengoa gascona a lengua castellana, seyendo alcaldes de la mar Nicolás de Montaot y Sancho de Oñate, y Seuastián de Xixón, abad mayor, y Lorenço de Aduna y Joanes de Arsu y Ochoa de Vrançu, abades menores”. Cristina Osés-ek, (aip. lan., 469 orr.), dokumentu hau Pasaian gaskoiez idatziriko agiritzat du baina, egileak berak aitortzen duen bezala, nahiz eta Pasaiaiko udal artxiboan gordetzen den dokumentu batean egon, Hondarribiko arrantzaleen kofradiaren funtsari dagokio. Testurako, ikus IMAZ, J. M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa al final del siglo XVI (Documentos de la época)*. Donostia: GFA, 1944, 224 orr., HERRERO LICEAGA, V. J.: “Transcripción de las ordenanzas de la cofradía de mareantes de San Pedro de Fuenterrabía (1361-1551)”. In: *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, 10 (1988), 332 orr. (315-334) eta IRIXOA CORTÉS, I.: *Documentación medieval de los archivos municipales de Lezo (1470) y Pasaia (1361-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2013, 99 dok. (azken honetan argitaratutako transkribaketan akats ortotipografiko bat burutu egin genuen, “castellana”-ren ordez “castellada” jarri).

12. Ald. ÁLVAREZ PÉREZ-SOSTOA, D.; eta GARRIDO YEROBI, I.: *In Dei Nomine. XVI. mendeko Hondarribia bertako dokumentuen bidez*. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2014, 305-315 orr.; OSÉS, C., aip. lan., 469. Ald. MÚGICA, S., aip. lan., 12-13 eta 28-29 orr. Beste egile batzuek, Jose Mugicak eta (ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 181, 183 eta 189 orr.) edo Juan Madariagak (MADARIAGA ORBEA, J.: *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2014, 683-684 orr.) kasu, Hondarribiko udal artxiboan gaskoiez idatzitako dokumentuak daudela diote, baina horrek ez du esan nahi barne-erabilerarako edo bertako hainbat kidek beraien negozioak islatzeko idatziei erreferentzia egiten dietenik; agian Iparraldeko hiribilduekin izandako hartu-emanen ondorioz sortutako agiriak lirateke, edo Bidasoako muga finkatzeko aipatu ditugun negoziazioei buruzkoak. Dena den, horrek guztiak zera adierazten du beste behin: gaskoi mintzairak (beste hainbat hizkuntzarekin batera) Erdi Aro amaieran mantentzen zuen maila edo estatusa.

Bestalde, XVI. mendeak aurrera egin ahala egoera zeharo aldatuko da eta mugaz alde bateko zein bestekoen artean bakoitzak bere hizkuntza administratiboa erabiliko du, erran nahi baita gaztelania eta frantsesa, 1580ko urtarrilaren 8ko eta 1583ko ekainaren 3ko Baionako udal-aktetan ikus dezakegun moduan (ikus, *Archives Municipales de Bayonne. Registres français. Délibérations du Corps de ville. Tome II (1580-1600)*. Baiona: Imprimerie A. Lamaignér, 1906, 2 eta 198-199 orr.): “*Ledict jour (1580-I-8) ledicto sieur clercq remons-*

Hala ere, administrazioaz haratagoko esparruetan begirada joz, halako dokumentuen zantzuak topa daitezkeela ohartu behar dugu, bereziki artxibo pribatueta¹³.

Frantziaren eta Gaztelaren arteko kontuei gagozkiela, bi koroen arteko muga-kontuak argitzeko asmoz 1518an egindako prozesua izan zuen Serapio Mugicak hizpide. Hori aztertzerakoan, ikertzaileak gaskoi mintzairaren erabilera agerian utzi zuen, prozesuari lotutako espedienteetan jasotzen zen testu bat emanez: “*Otrosí asentaron de conformidad que la deposición y dichos de los testigos de esta causa que por ambas partes fuesen presentados, se asentase en lengua gascona porque mejor por los dichos comisarios e nos, los dichos escribanos, se entenderá que en otra lengua ninguna*”¹⁴.

Pentsa daitekeenez, arazo horiek ez ziren testuinguru horren baitan sortutako lehenengoak. XV. mende erdialdean muga finkatzeko izan ziren ekimenez gain, XVI. gizaldiaren hasieran, 1509an, jazotako beste arazo batzuen berri ere badugu. Bertan esandakoek hainbat printza uzten dizkigute hizkuntza desberdinen erabileraren inguruan. Hasteko, Gipuzkoako eskribau eta prokuradoreen artean zegoen frantses eta latin ezagutzaren eskasia, Frantzia aldekoetan ez bezala. 1511ko martxoan, Acuña eta Tellez lizentziatuek errege-kontseiluko idazkari Migel Perez Almazangoari zuzendutako idatzia dugu horren lekuko. Gutunak bi ordezkarien aieneak agerian uzten zituen. Agidanez, Frantziako komisarioek beraiekin batera eskribau eta prokuradore eleanitzak eramaten zituzten bitartean, Hondarribiak eta Gipuzkoak lagun zituztenek ez zituzten baldintza horiek betetzen, ezta gutxiago ere:

“Primeramente, ha de ser Su Alteza informado cómo los *commissarios de Francia* traen consigo escriuano e procurador que sabe su lengua francesa

...

tra que le jour d’hier, comme ledict sieur lieutenant s’en partit à Saint Jehan de Luz, il luy envoya une informacion en espagnol, ensemble une lettre close des alcaldes et régiment de Saint Sébastien sur les pirateries faictes par la barque appellée la Mahonne. (...) Et d’aultant que lesdictes lettres et informacions estions escriptes en languaige espagnol, lesdictz sieurs firent venir par devers eulx le sieur Augier de Barcos, entendant et saichant lier ledit languaige et escripture, lequel fit lecture de ladicte lettre missive (...) Et luy fut ordonné de traduire lesdicts charges et missive (...) Lequel de Barcos se chargea de faire lesdictz translats...”

13. Juan Santxez Benesakoak, adibidez, bere birramonak Santiago ospitalearen alde egindako errotaren dohaintza-idatzia aipatzen zuen 1509 urtean, zeina gaskoiez idatzita zegoen (ikus AGS. Patronato Real, 14-1). Eskerrak eman nahi dizkiogu Imanol Vítóres Casadori, datua helarazteagatik.

14. MÚGICA, S.: *Gascones...*, aip. lan., 13. orr. Ikus, baita ere, Mugicak berak Mandasko Dukeari 1905eko maiatzaren 31n zuzendutako gutunean zioena (GAO-AGG DM 25,9; Hondarribiko udal artxiboan, E-6-VI-5 kutzan dagoen fotokopiatik kontsultatua).

y gascona y bascuence y latín y nuestra lengua castellana, y en Fuenterrauía ni en esta Prouincia no ay procurador ni escriuano que sepa latín ni buen francés, así que en el latín y en entender ellos nuestra lengua y los de acá no entender la suya lleuan mucha ventaxa. Y si ser pudiesse, hera menester remediarlo porque, avnque nosotros hordenemos el processo en latín, no ay escriuano que lo entienda ni lo sepa, y de lo que no entiende mal puede dar fee ni signarlo. E a esta caussa hemos hasta agora hecho el processo, ellos en su lengua francesca y nosotros en la nuestra castellana, con vn intérprete que para ello hemos tomado que sabe algo de francés”¹⁵.

Adibide hauek bi koroen arteko auziak izaki, ohikoa izango da dokumentazioa modu eleanitzean jasotzea, dela gaztelaniaz, frantsesez, latinez edo gaskoiez. 1518ko prozesuan aditzera ematen denaren arabera, alde bateko eta besteko monarkien ordezkarien arteko elkarrizketak latinez egitea zen ohikoa; kirioak dantzan edo giroa bero-bero jartzen zenean, aldiz, bakoitzak bere ama hizkuntzari leku egin zion, bai behintzat frantziarren kasuan. Hala gertatu zen Hendaian, Acuña lizentziatua eta Frantziako erregearen ordezkari zen Frances Velcierkoa ika-mika garratz batean murgildu zirenean¹⁶.

Gorago jaso ditugun Serapio Mugicak transkribatutako hitzak Hondarribiko udal artxiboan dagoen espediente bateko zati dira, zeina Eusko

15. HH. EE.: *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo III (1374-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2014, 115. dok. Egia da transkribatu dugun paragrafoan jo-puntuak dauden mintzairak latina eta frantsesa direla, eta beraz, pentsa daiteke gaskoiez zekiten pertsonak egon, bazeudela; zer esanik ez Baionakoek dokumentuak azken mintzaira horretan idaztera ohituak zeudenean. Ikus *ibidem*, 45. dok.

Ald. Hondarribian 1546an emandako prozesu bat, non frantsesezko salmenta gutun bat itzultzeko, bertako eskribauek ez ezik, Baionako auzo Oier Iriberrikoarengana jotzen duten. Hala, Hondarribiko alkateak, auzi-eskribau zen Pedro Santxez Benesakoari, “*pedía e requería a su merçed lo mandase tresladar e trasduzir en la lengua castellana e para trasladar e trasduzir, Ojer de Yriberri, françes, veçino de la çibdad de Bayona que presente estava, hera persona que entendia la dicha lengoa françesa e castellana e persona abill e sufiçiente para ello (...) el qual estava presto e çierto de le pagar su salario que por ello le conbenía aver (...) E luego el dicho señor alcalde preguntó al dicho Ojer de Yriberri que presente estava sy él sabía tresladar e yntrepetrar [sic] la dicha carta de conpra de la lengoa françesa a la lengoa castellana para que d’ella se pueda dar fee en juizio e fuera d’él, el qual dicho Ojer de Yriberri dixo françes [sic], dixo, vista la dicha carta de conpra, que estava escripta en la lengoa françesa, e leyda, dixo que él sacaría e tresladaría e yntrepetraría [sic] en la lengoa castellana...*” (GPAH-AHPG, 3/3354, 132 at. folioa).

16. “*E el dicho commissario françes tomó la mano de la plática en lengua francesca e no en lengua latina, como solían (...) E que el dicho Licenciado Acunna le rrespondió muy barbuda e varonilmente diziendo que él nunca tal cosa dixo...*”. Edota: “*vio que el dicho comisario françes surtió en razones en lengua francesca contra el dicho Licenciado Acunna, alterado e denodado, que buenamente no podía hablar. E el dicho Licenciado Acunna le rrespondió muy barbudamente*” (HH. EE.: *Colección documental...*, aip. lan., 163 dok. 479 eta 480 orr.). Ald. Acuñaaren beraren kontakizuna, *ibidem*, 164 dok., bereziki 483-484 orr.

Ikaskuntzan agertutako dokumentuetatik kanpo gelditu den¹⁷. Ildo hone-tatik, beste datu batzuek 1518ko prozesua edo bere zati bat gaskoiez idatzi zela berresten digute, eta Fernando erregeari gaztelaniara itzulita bidali zitzaiola¹⁸. Bestalde, ordezkariak beraien iritzia ere latinez eman zituzten eta, halaber, Velcier-ek bazekien gaztelaniaz, Hondarribian zegoela, errekerimendu edo eskaera bat hizkuntza horretan aditzera eman baitzitzaion¹⁹.

Velcier bera da errealtate administratibo eleanitzaren adibideetako bat, gaztelaniaz, frantsesez eta latinez egiten baitzuen gutxienez. Beste adibide bat, bereziki interesgarria dena, Pedro Sagastizarkoa eskribau donostiarra genuke.

Martin Naguilekoa notario frantziarrarekin batera, 1518ko gaian auzi-eskribau moduan aritu zen, eta auzia gaskoi hizkuntzan idatzi zela aintzat har-tzen badugu, Sagastizarrek mintzaira hori ezagutzen zuela ondorioztatzea zentzuzkoa dirudi. Argitaratu den dokumentazioan, berriz, frantsesez zekiela ematen du. Hala, Sagastizar Baionan zegoelarik, Velcier-ek berak hizkuntza horretan idatzi zuen gutun bat eman zion donostiarrari, Acuña lizentziatuari emateko. Azken honek agiria jaso zuenean, Sagastizarri zuzendu zitzaion, prozesuan idatzi hori eta bere gaztelaniazko itzulpena sartu zitzaion:

17. Ald. HH. EE.: *Colección documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo III (1374-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2013, 154 dok. eta hh. Mugicak jasotako daturako, ikus HUA, E-6-VI-5-1, bereziki 25 at. folioa: “*otrosy, asentaron de conformidad que la deposición he dicho de los testigos d’esta cabsa que por anbas partes fuesen presentados, se asentasen en lengua gascona porque mejor por los dichos comisarios e por nos, los dichos escrivanos, sea (entra) entendido que en otra lengoa ninguna*”. Dokuklik-en ere, bere laburpena edo erregea jaso egiten da: “1518. Proceso original, escrito en lengua gascona, por acuerdo de los comisarios de España y Francia instruido a consecuencia de la casa-torre que los de Hendaya edificaron a orillas del Bidasoa y que los de Fuenterrabia querían derri-bar a cañonazos. **Nota:** Se encuentran los escritos en castellano, los escritos presentados por el síndico de Fuenterrabia y en gascón las declaraciones de los testigos señalados por Fuenterrabia y Hendaya”.

18. Latinezko zatirako, ikus HH. EE.: *Colección documental...*, aip. lan., 157 dok. Prozesuari dagokionez, Acuña Fernando Katolikoari honakoa adierazten zion: “*El processo no se pudo luego llevar [erregearengana] porque se sacó en limpio de gascón en castellano. En acauándose, se lo llevarán luego*” (*ibidem*, 164 dok., 485 orr.). Eta hala ematen du, E-6-VI-5-1 espedientearen idatzitako ohar batzuen arabera; besteak beste 6 au. eta 13 au. folioetan, non frantsesezko zein gaskoiezko dokumentuen goialdean “*traduzido en el quaderno pequeño*” eta “*traduzido*” bezalako hitzak agertzen diren.

19. HH. EE.: *Colección documental...*, aip. lan. 158 dok., 466 orrialdean, aldiz, errege-ordez-kari edo komisionadu moduan aritu zen Frances Velcier-koaren gaztelaniazko ezagutza isla-tzen da: “*La qual dicha carta por mandado del dicho Maestre Francés de Velcier, yo el dicho escriuano ley ante los suso dichos porque entiende la lengua castellana. E el dicho maestre Francés dixo que el día siguiente daría su rrespuesta a la dicha carta e esperase a ella*”.

“el dicho maestre Francés de Velcier digo que dio a mí, el dicho Pedro de Sagastiçar, escriuano, vna carta çerrada, el sobre escripto d’ella en lengua francesca, en respuesta de la que le oue dado. La qual me ouo dicho entregasse al dicho commissario Licenciado Acunna e por mí fue rresciuida. E con ella fuy al dicho sennor Licenciado Acunna, commissario, e ge la oue entregado. E por que dicha carta era escripta en letra francesca, su merced mandó fuesse puesta al pie del dicho processo e su treslado, conuertido en lengua castellana, sacasse al pie de la carta por su merced al dicho comissario e a mí, el dicho escriuano, a mí embiad, el tenor de la qual dicha carta escripta por el dicho maestre Frances de Velcier, commissario, al dicho sennor Licenciado Acunna, commissario, es el siguiente, conuertido de lengua francesca a la castellana”²⁰.

Gaian sakontzen badugu, berriz, Sagastizarrek gaskoiari buruz zuen ezagutza agerian geratzen da. Esan bezala, 1518 urteko prozesu originala Eusko Ikaskuntzaren bildumatik kanpo gelditu zen, transkribatutakoa XVII. mendeko gaztelaniatzko kopia izan zelarik. Originalak, aldiz, autoen gehien-go gaskoiez du eta begia zorrotzuz gero, dokumentuaren egileetako bat Sagastizar bera izan zela ondoriozta daiteke. Donostiarraren sinadura eta gaskoiezko testuaren idazkera alderatuz gero, bat datozela ikusiko dugu; beste era batera esanda, Sagastizarrek gaskoiez idazten zekien²¹.

Ondorio horiek prozesuari lotutako beste datu batek berresten dizkigu, Acuña korrejidoreak gaskoi hizkuntzaz zeuden testuak gaztelaniara itzul-tzeko ardua Sagastizarren eskuetan utzi baitzuen. Juan Bono Jaymarkoa eskribau donostiarrari, berriz, frantsesez zeudenak gaztelaniaratzeko agin-du luzatu zion. Azken mandatu honek orain arte esandakoarekin informazio kontrajarria agerian uzten du. Izan ere, Jaymarrari frantsesezkoak gaztelaniaratzeko ardua, Sagastizarren gabezia nabarmen batekin zerikusia zuen: antza, azken horrek ez omen zekien frantsesez²². Funtsean, horrek guztiak Donostiako zenbaki-eskribau eta auzo batzuk hizkuntza erromantzeak ida-tziz zerabilzkitelaren isla da. Errealitate honek ez gintuzke harritu behar,

20. *Ibidem* 162 dok., 472 orr. Ald. baita ere, *ibidem*, 156 eta 160 dok., non Velcier-ek emandako erantzun originala frantsesez idatzita dagoen baina prozesuan gaztelaniara itzultzen den.

21. Agian, abizena ematen zion Itsasoko etxearen ondorengo zelako. Ald. HUA, E-8-III-35-1 (Domingo eta Agustin Sagardizar pasaitarrek 1677an egindako aitonsemetza-froga).

22. Acuñaaren hitzak ezin argiagoak dira: “*han seydo presentadas çiertos escriptos e escripturas en lengua françesa, las quales están en el proçeso de la dicha cabsa en poder de Pedro de Sagastiçar, e porque Sus Altezas me mandan que ynbié el dicho proçeso (...) yo he mandado sacar al dicho Pedro, e a cabsa qu’él no sabe la lengua françesa non puede sacar los dichos escriptos*”. Sagastizarri, berriz, Acuñaek honakoa agintzen zion: “*que saquéys el dicho proçeso en pública forma e ynterpretéys todas las probanças e avtos que en vuestra fieddad han pasado, de la lengua gascona a la castellana*” (AGS. Patronato Real, 14-1bis sorta, 387 au.-at. folioak). Gure eskerrik beroenak eman behar dizkiogu Imanol Vitores doktoreari, datua aditzera emateaz gain, dokumentuaren kopia utzi digulako.

batez ere hiribildu donostiarraren merkatal-dinamika aintzat hartuz gero. Hamaika lekutako jendea zegoen bertan eta, horrez gain, negozioak aurrera ateratzeko bertako hainbat pertsona eleanitzak izango zen, dela eskribau, abokatu edo, bereziki interesgarria gerta litekeena, itzultzaileak²³.

Sagastizarrek idatzitako testu gaskoiak adituentzako aztergai izan beharko luke. Gaia zeharo arrotz bazaigu ere, bitxikeria batzuk agerian uzten dituela iduritzen zaigu. Uneren batean, eskribauaren buruak eta eskuek gaztelaniara jotzen dute, honako esaldian bezala: “*E lu dit Joanes de Bunano, vezino del lugar de Asteasu, testimoni presentad...*”²⁴. Bestalde, idazkeraren aldetik, askotan, <o>-ren ordez <u> letra darabil: “*encurpuraz*”, “*lu juremente*”, “*lu seguiet*”, “*dixu*”, “*preçuiretur / prequiredur*”, “*cumisaris*”, “*cusell de le dite vile*”, “*basallu*”, “*en presença de nus*” eta abar. Behin, ordea, kontrako prozesua dugu eta “*a ventenao dies dou dit mes*” ageri da, logikoa lirudikeen “*ventenau*”-ren aldean. Bokal-aldaketa hori bereziki azpimarragarria da, idazlearen inguruko hezkuntzara bideratu gaitzaketen galderak sortzen baititu. Hegoaldeko dokumentazioan, erran nahi baita gaztelaniaz dagoen horretan, ohikoa da gaskoiezko <u> hori <o> bihurtzea, hala nola, “*Molinau*” hitza “*Molinao*” moduan azaltzea. Gaskoi hizkuntza jatorrean <u>-z bada, Sagastizarrek hizkuntza hori Iparraldean ikasi zuelako hipotesia planteatzera garamatza.

Aipatutako datuen ondotik, 1518ko gaskoiaren erabilera komisario zein eskribau-hartzaileen jarduna hobetzeko haututzat hartu zela ematen du; pentsa daiteke, beraz, bi aldeak hizkuntza horretan hobeto moldatzen zirela gaztelaniaz edo frantsesez baino. Horrek ez gaitu, nahi eta nahi ez, ohiko gizartearen egoera linguistikoko baten aurrean jartzen, XVI. mende hasieran indarrean zegoen ohitura administratibo baten parean baizik. Gaskoiaren erabilpen hau, mugaren bi aldeetara zeuden hitzun-talde desberdinen arteko harremanak bideratzeko tresna izango zen; bai jatorriz baionar zirenei dago-kienez, baita horiekin harremanak zituztenen kasuan ere. Agian, gaskoi mintzaira ezagunagoa zen bi aldeentzat frantsesa edo gaztelania baino, 1518an aitortzen zen moduan.

23. Bristolen bezala. Ikus VANES, J. (arg.): *Documents illustrating the overseas trade of Bristol in the Sixteenth Century*. Bristol: Bristol Record Society, 1979, 116 orr. Egia da, ordea, ikerketarik gabeko esparrua dugula. Lope MARTINEZ ISASTIKOAK errege-itzultzaile moduan aritu ziren hainbat gipuzkoarren aipamena egiten zuen. Ikus bere *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. Donostia: Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1850, 390 orr.

24. HUA, E-6-VI-5-1, 59 au. folioa. Ald., adibidez, Arnaud Guillen de Lafite baionarrak berak 1544an gaztelaniaz idazten duen testu batekin: “*diguo que es verdad que soy obligado pour quoarenta y cinco mylares chardina al presio de seys reales y tres quoartilhos y porque es verdad firmo de my mano*” (GPAH-AHPG, 3/0331, 38 au.).

Ildo horretatik, gaskoi hizkuntzaren ezaguerak badu beste isla bat, orain arte oharkabean igaro dena, gizarte eta kulturari lotuta. Iparraldearekin harreman sakona zuten sendi donostiar zein hondarribiarrekin elkartzen ziren Gipuzkoako edo beste lekuetako leinuek, kostaldeko familia horietan sartutakoan, negozioak aurrera ateratzeko gaskoia ikas zezaketen; hizkuntza horren ezagutza eta erabilera, beraz, behar batzuen arabera sortzen bide zen²⁵. Gaskoiaren ezagutzak, beraz, ez luke zertan adierazi nahi Erdi Aro betean finkatutako gaskoien kontua zenik. Mintzaira horren erabilerari lotutako kontuetan, eskribauen, abokatuen eta gainerako letraz-gizonen hezkuntza ere aintzat hartu beharko litzateke; hau da, ikasketak non egin ohi zituzten²⁶.

Alta, gaskoiaren erabilera horrek oinarri historikorik baduela ere aitortu behar da. Batetik, XII. mende hasieran Gipuzkoako ekialdean finkatutako gizatalde lapurtarren ondotik; bestetik, gaskoiak, beste hainbat hizkuntza erromantzek bezala (eta latinaren ondoan oso bestelakoa zen euskarak ez bezala), izan zuen ohitura administratiboa. Alabaina, idatzizko erabilera hori ezin dugu errealitate linguistikoko sendo bat bezala ikusi. Hala egingo bagenu, 1518ko auzian zehar azaltzen diren lekuko guztiek gaskoiez egiten zutela ondorioztatu beharko genuke; besteak beste, Okendoko auzo zen Martin Mendozakoak, Joanes eta Pedro Bunano asteasuarek, hurrenez hurren Berako, Lesakako edo Igantziko auzo ziren Joanes Ederrak edo Jorge Alkaiagakoak, edota Bilboko auzo San Juan Erkinigo eta Santxo del Barco merkatariek²⁷. Modu honetan, horiek beraien adierazpenak gaskoiez idatzita agertzea, gaztelaniaz izkiriatuak dauden lekukotzetan guztiek gaztelaniaz egiten zutela esatea bezalakoa litzateke; errealitatetik at dagoen baieztapena.

Horren lekuko beste datu esanguratsu bat eman dezakegu. Informazioa 1517 urtekoa da, eta Bartolome Fagoagakoari eta Adame Buniort-ekoari Bidasoako frantses-aldean egiten hasi ziren burdinolaren eraikuntza-lanak etete aldera sortutako autoetan topa daiteke. Bertan, bi aldeetako monarkien ordezkariak parte hartzen dute, tartean Bernart Upingoa errege-abokatuak. Azken horrek Lapurdiko Lamiarriagan eta martxoaren 16an, Frantziak

25. Ziurrenik, hori izan zen Juan Martinez Aierdikoa hernaniarraren kasua. XVI. mendean hasieran korrejidoreak Lapurdira bidali zuen, lapurtarrek nafarrei harrapatutako hainbat zaku artilleren ingurukoak ikertzeko. Lekuko gehienek euskaraz egingo bazuten ere, ezin dugu baztertu eginbide horietan Aierdik ere gaskoia erabiltzea. Hizkuntza honen ezagutza bide berezi batetik etorriko zitzaion hernaniarrari, Hondarribiko Benesa leinuarekin ahaide politikoa baitzen. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Imanol Vitores Casadori, adierazita-koaren inguruan egindako oharrengatik.

26. Garai honi buruz gurean idatzitakoak ez dira asko, baina lortzen bat idazkera edota grafiak aztertuz jarrai genezakeelakoan gaude; ez dugu ahaztu behar erresuma bakoitzak, eta bertako lurraldeek, ohitura ezberdinak zituela.

27. Aurkezten diren lekukoetarako, HUA, E-6-VI-5-1, 27 au. eta hh.

lan horiek eteteko zituen argudioak gaskoiez azaldu zizkien Bartolomeri, Adameri eta beste hainbati, baina Buniort-ek, Fagoagak eta bertaratutako beste batzuek ez zekiten gaskoiez eta mintzaira horren orde euskaraz egitea eskatu zioten abokatuari, guztiek amankomunean zuten hizkuntza baitzen hau. Upinek, nonbait, ez zekien euskaraz eta horren aurrean, bere orde seneskalorde karguan ziharduen Sabat Ibarsorokoa batxilerra izan zen azalpenak euskaraz eman zituena:

“enpeçó a fazer e fizo çierto rrazonamiento, en gascón, el dicho Vernart de Vpin, avogado rreal (...) E porque los dichos Adame de Buniort e Bartolomé de Fagoaga, su yerno, e otros que presentes estábamos non entendíamos nin entendimos el dicho rrazonamiento e plática del dicho Bachiller, abogado rreal que dezía ser, por aver seydo e ser en lengua gascona, dixo el dicho Adame de Buniort que declarase e diese a entender en bascuence, que hera su común lenguaje, la dicha plática e rrazonamiento del dicho abogado. E por qu él non sabía vascuence, el dicho sennor teniente enpeçó a declarar e declaró en lengua bascongada toda la dicha plática e rrazonamiento del dicho bachiller abogado”²⁸.

Bestalde, eta Lorderen eta Arranomendiren adibidean ikusi dugunez, nazioarteko merkataritzaren testuinguruan ez zen ezohikoa hainbat erreinu eta lekutako justizietara jotzea, eta horrek, halabeharrez, hizkuntza desberdinetan sortutako dokumentazioa zekarren. Adibide bat 1501ean Burgosko Rodrigo Valladolidekoaren eta Thomas Baron bristoldarraren arteko auzietan dugu. Urte hartako maiatzean, eta Hondarribian zeudela, beraien tirabirak Thomas Batcock eta John Ward merkatarri ingelesak esku uztea erabaki zuten. Agidanez, ordura arte Gipuzkoako korrejidorearen, Toulouse-ko, Londresko eta Baionako justizien eta Baionako probestuaren aurrean eztabaidak jorratzea ez omen zen nahikoa izan, eta horiekin amaitzeko asmoz, epaile-arbitroak izendatzeko deliberoa hartu zuten. Guregana iritsi den dokumentazio guztia, hau da, Batcock-en eta Warden-en izendapena, hauen epaia eta horren ondotik egindako obligazio eta ordainketa-gutunak, gaztelaniaz dago, baina horrek ez du esan nahi hitzez hala egin zenik eta, bestalde, hainbat herrialdetako justizietara jo zutela aintzat hartuta, gaiaren inguruan sortu ziren bestelako agiriek ere egoera eleanitza islatuko zuten²⁹. Beste adibide bat, berriz, Hondarribiko zenbaki-eskribau Juan Ibañez La Plazakoaren aurrean 1536ko urrian egindako agiria dugu, Pedro Arizmendi erreteriarrek Donibane Lohizuneko Martin eta Juan Agorretakoa aita-seei itsasontzi

28. HH. EE.: *Colección documental...*, aip. lan. 153. dok., 394 orr.

29. Ald. GPAH-AHPG, 3/0283, 15 au.-19 au. folk. Era berean, ikus *ibidem*, 16 at. folioa, non, arbitroek aipatzen dituzten autoak, “*se han pasado en la çiudad de Vayona o en Bordeos o en otra qualquier parte, asý en Françia como en España o en Ynglatierra*”. Ald. lehen ikusi dugun Joan de Lorde merkatarriak Erreteriarriko auzo Juan Migelez Arranomendikoari egin zion urdin-belar pastel-salmentaren inguruko bermea.

bat saldu zieneko idatzia, hain zuzen ere. Agiria Hendaian eman zen, baina idatzia, Aro Berri betekoa izanik eta Gaztelako koroaren ohitura administratiboa duen eskribau bati lotua izaki, gaztelaniaz dago³⁰.

Honekin guztiarekin, hizkuntza jakin baten erabilera idatziak uste baino konplexutasun handiagoa duela adierazi nahi dugu, arrazoiak hainbat izan daitezkeelarik.

Hau esanda, eta gure lerro hauen helburuari helduz, goazen aipatutako bi agirien inguruan hainbat ohar egitera.

1. Donostia eta edarien salneurriak (1310)

Kronologikoki hasita, dokumenturik aspaldikoena Donostiari lotutakoa dugu. 1310ean idatzita dago eta behin baino gehiagotan aipatua izan da. Caminok ireki zion bidea, eta berak esandakoei jarraitu die historiografiak. Donostiako historiari buruzko bere lanean, honako hitzok idatzi zituen egile horrek:

“...en el Libro Becerro de la Ciudad, el cual tiene ya más de trescientos años de antigüedad, se halla en idioma gascón una Ordenanza sobre vinos y sidras dispuesta por la propia Ciudad [sic], en tiempo de este Rey D. Fernando [IV], y año de 1309, y también hay otros instrumentos del siglo XV concebidos en el mismo idioma”³¹.

Dokumentua bertatik bertara ikusi zuen bigarren egilea Vargas Ponce izan zen. Berriki, Rosa Ayerbek Donostiako *Txahal edo Txahal-larru Liburuaren*³² aurkibidea argitaratu du, militar cadiztarrak hartutako

30. GAPH-AHPG, 3/0302, 33 au.-at. folk. Ald. GPAH-AHPG, 3/0298, 101 au.-at. folioetan biltzen den Mingot Belongekoaren adierazpenekin, 1528an egindakoak. Arroxelan zamatu eta Orioko auzo Juan Etxabekoarentzako zen garia Donibane Lohizunen bukatu zuela aitortzen zuen, azken herri horretako auzoek atxiki egin zutelako. Garia zein portutara eta zein pertsonatara bideratua zegoen galdetu zitzaionean, pleitatzegutuna gaztelaniaz zegoela zioen eta hori dela eta, ez zekiela zer jartzen zuen, ez baitzuen ulertzen: “*que la carta de afleytamiento hera escrito en la lengoa castellana e qu’él, como hera francés, no entendia ni sabia lo que se contenía en la dicha carta de afleytamiento*”. Mundu idatziaren eta ahozkoaren arteko desberdintasunak agerian uzten dituen beste adibide bat.

31. CAMINO Y ORELLA, J. I., aip. lan., XI. kapitulua.

32. Aita Larramendik bere Hiztegi Hirueledunean (*Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia 1745, Bartholomé Riego y Montero, 135 orr.) “becerro” liburuari euskal jatorrizko etimologia jartzen zion, “bezero” (edo eliztar) hitzetik zetorrela adieraziz. Guk, berriz, berak erabilitako “larru” edo “txahalaren larru” hitzak erabili ditugu, gaztelaniazko izena hortik baitator. Larramendiren hiztegirako, ikus <http://catalogo.sanchoel-sabio.eus/Record/37495> (azken sarrera: 2018-01-11).

oharretan oinarrituz³³. Azken honek 1483ko abenduan egin zen aurkibidearen jatorrizko dokumentua izan zuen begien bistan. Itxura guztien arabera, urte gutxiren buruan betiko desagertu zen, armada anglohispaniarrak abuztuaren 3In hiriari su eman ondoren.

Agiriari gagozkiola, Caminok eta Vargasek idatzitakoetan informazioak antzekoak dira, baina badago diferentzia adierazgarri bat, datari dagokiona. Egile donostiarrak 1309 urtea eman zuen dokumentuaren data gisa, eta ikertzaile gehienek berak esandakoei jarraitu diete³⁴. Vargasek, ordea, 1310eko urtea jaso zuen; data zuzena, alegia, ziurrenik jatorrizko aurkibide horretan hala azaltzen zelako. Militar cadiztarraren oharrek honakoa diote: “*Privilegio de los herederos de San Sebastián sobre vinos y sidras (está en gascón y más parece decreto o ordenanza). Su fecha, del mes de agosto de 1348*”³⁵. XIV. mendeko agiria izaki, garai hartan ohikoa zen sistema kronologiko batean datatua agertzen zaigu, Aro Hispanikoan, alegia, eta datazio hori gaur egun darabilgunera bihurtuz (ken 38 eginez), 1310 urtea lortzen da. Caminok bestelako data bat emateko arrazoia, aldiz, ezezaguna zaigu.

Aurkibide horren aldakia egiteaz gain, Vargas Poncek beste gauza garrantzitsu bat egin zuen: dokumentua bera kopiatu. Gaskoia ezagutzen ez zuenez, halamoduzko transkribaketa egin zuen³⁶ eta irakurketa kalitate eska-sekoa bada ere, bere kopiari zor diogu idatziaren nondik norakoa guregana iritsi izanaren meritua, transkribaketa hori artikulu honen amaieran sartu dugularik.

Edukiaren inguruan, ardoaren eta sagardoaren salneurria aldatzeari buruzko erabaki bat islatzen da. Agidanez, helburua aurretik egindako ordenantza edo udalbatzaren mandatu batean adostutakoa eguneratzea

33. AYERBE IRIBAR, M.^a R.: “El Doctor Camino en la Real Academia de la Historia: El *Libro Becerro* de San Sebastián (Código del s. XV) y el *Inventario de papeles* del Archivo del Monasterio de San Bartolomé de San Sebastián”. In: *BEHSS*, 49 (2016), 653-680 orr., bereziki 660-662 eta 666-673; eskriturarako, ikus 667 orrialdea.

34. Ikus MÚGICA, S., aip. lan., 4 eta 8 orr. Ikus, baita ere, OSÉS, C., aip. lan., 468 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 183-184 orr.

35. Bestalde, Donostiako 1489ko udal-ordenantzen arabera, “*syenpre ha avido grandes discordias e questionnes entre los herederos e pueblos sobre los vinos e sydras, e asy ay deversas e muchas ordenanças que disponen sobr'ello*”; agian, horren atzetik 1310eko egindakoaren zeharkako aipamena legoke. Ikus AYERBE IRIBAR, M.^a R.: “Las ordenanzas municipales de San Sebastián de 1489. Edición crítica”. In: *BEHSS*, 40 (2006), 11-91 orr., bereziki 134. ordenantza.

36. Dokumenturako, RAH. Vargas Ponce, 9-4195-89. Agiria gure argitaragabeko tesia-
ren eranskin dokumentalen artean jarri genuen. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: *Estudio de la vida urbana guipuzcoana: Los valles del Oria y Urumea en la Baja Edad Media*, 3. liburukia, 1. eranskin dokumentala.

zen, ordura arte ezarritako prezioak aurreko garaietan esterlin-markoak 80 maraiko baliokidetasuna aintzat hartuta egin baitziren, eta balio hori XIV. mende hasierako egoerarekin ez zetorren bat. Nolabaiteko desfase hori konpontzeko, neurri berria hartu zen.

Daturik deigarrienetako bat parte hartzen duten eta hamabi bezala aipatzen diren pertsonen izen-abizenak dira, nahiz eta Vargasen irakurketa nahiko zalantzarria izan: “*En Arnau Johan de Leporte, en Peys d’Espayne, en Semes (Æe) e Ochoa, en Guillen de Mog(...) en Johan Vidau de Perquer, Martín d’Acorda eus autres jurats*”. “Mog” abizen horren atzetik Murgia irakurri beharko genukeela uste dugu; 1332an alkate izan zen pertsonaren izen-abizenak, alegia. Besteen inguruan ezer gutxi esan dezakegu: Perquer ohiko abizena da garai honetako Donostian eta Akorda, aldiz, Erreterian finkatuta ikusiko dugu mende amaieran³⁷.

2. Oiarzungo udalbatza eta bertako basoen ustiaketa (1316)

2.1. Dokumentu ezaguna

Bigarren dokumentua da, zalantzarik gabe, interesik handiena sor dezakeena. Motibo nagusia bere esparru geografikoa da, historiografiak ohiko gaskoi-gunetzat hartu izan dituenetatik at baitago, hein batean behintzat. Baina modu berean, aitortu behar da Baiona inguruko jende horrek Erdi Aro betean Gipuzkoa ekialdean berebiziko eragina izan zuela: Hondarribian, Donostian eta, historiografia gehienaren ustez, Pasaian eta Erreterian. Horrek esan nahi du Oiarzuni lotutako agiri bat gaskoi hizkuntzan egoteak nolabaiteko logika izan dezakeela, eta ideia horri jarraituz, agiriaren sortzaileria Oiarzungo udalbatza izatea ulergarria litzateke.

Donostiako ordenantzaren kasuan Caminok egindako oharra aipatu baditugu, oraingoan Erreteriarako kronista (eta Caminoren etsai historiografiko) zen Gamoni buruz hitz egin behar dugu. Aurkezten dugun idatziaren

37. Ez dakigu, ordea, Erreteriarako abizenak donostiarrekin lotura zuzen bat zuen ala ez. Are gehiago, abizen hori Bizkaia aldeko (Gernika-Mundaka-Bermeo-Ea inguruetako) toponimoa da eta jatorrian bertatik Donostiara edota Erreteriarara iritsi zenaren hipotesian pentsa daiteke.

Donostiako udalbatzen inguruan, ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Gobierno urbano en San Sebastián a fines de la Edad Media: crisis de linaje, conflictos y reestructuración política”. In: *BEHSS*, 49 (2016), 185 orr. (15-205). Akorda abizenari dagokionez, 1384an Martín Martínez Akordakoa Erreteriarako alkate dugu. Ikus CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I (1237-1470)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1991, 19. dok. Abizenak Pasaiarako bidea ere egingo du eta XV. mende erdialdean bertan dakusagu. Ikus IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarak...”, aip. lan., 59 orr. eta bertako III Taula.

inguruan zenbait ohar eman zituen aditzera Errenteriari buruzko historian. Honela, egur- eta baso-aberastasunaz jarduterakoan, honakoa adierazten zuen:

“Otra prueba de la misma abundancia fue haber vendido nuestro concejo en el año de 1316 sus jaros por cinco años a dos vecinos de San Sebastián y Hernani para hacer cuantas lanzas y flejes o arcos pudiesen”³⁸.

Bestalde, eta eskriturako protagonista nagusietako bat udalbatza zenez, udal-gobernuari eta hasierako urteetan zeuden udal-karguei buruzko oharretan ere agiria aipatzen zuen, honako hitzak adieraziz:

“Lo que igualmente parece en la escritura citada en el capítulo precedente de la venta de bosques, otorgada en el año de 1316 a dos vecinos de San Sebastián y Hernani para cortarlos en cinco años para trabajar arcos, lanzas y para otros usos, obligándose el concejo de Oiarson a tener firme su contenido con uno de sus alcaldes y uno de sus jurados actuales, y obligando a lo mismo para los siguientes años a otro de los alcaldes y uno o dos de sus jurados, y en caso necesario a todos los jurados del concejo y sellando la escritura con el sello menor del mismo concejo”³⁹.

Azken paragrafo hau, gainera, guregana iritsi den kopiaren inguruoak osatzera dator, aipatutako baldintza edo obligazio horiek ez baitira Vargas Ponces-ek egindako transkribaketan azaltzen.

Gamonek halako hitzak jaso zituenetik eta berriz ere norbaitek dokumentu horren inguruan aipamenen bat egin arte, denbora igaro zela ematen du. XX. mendearen amaiera arte ez dugu berri gehiagorik topatuko, nahiz eta hainbat hamarkada lehenago norbaitek Historiaren Errege Akademiatik kopia bat atera, gaur egun Errenteriako udal artxiboan dagoena. José Antonio Munita Loinaz izan zen isilune horri amaiera eman ziona, horretarako Errenteriako udal artxiboan dagoen dokumenturik antzinakoaren azterketa egiteko baliatu zuen artikulua aprobetxatuz, eta hainbatek bere aipamenak berriki jaso dituzte⁴⁰. Ikertzaileak, orain aurkezten dugun idatzia esparru etimologikotik erabili zuen; zehazki, Oiartzun izenaren inguruan Erdi Aroan agertzen ziren aldaerak aztertzerako garaian:

38. GAMON, J. I., aip. lan., 87 orr.

39. *Ibidem*, 89 orr.

40. MUNITA LOINAZ, J. A.: “El original más antiguo del Archivo Municipal de Rentería: el privilegio rodado de Fernando III al concejo de Oyarzun (20.marzo.1237)”. In: *Bilduma*, 2 (1988), 92 orr. (67-105). Berriki, J. R. CRUZ MUNDET-ek ere aipatu du, bere “780 años del documento más antiguo de nuestro Archivo Municipal”. In: *Oarso*, 2017, 222-229, bereziki 227. orrialdean. Ikus, baita ere, RUIZ ARZALLUZ, I.: “De *Oiasso* a *Huarcha*: testimonios sobre un puerto medieval en el Bidasoa”. In: *Príncipe de Viana*, 271, (2018), 515-516 orr. (505-526), zeinak Munitaren hitzak hartzen dituen.

“Efectivamente, dentro de la cuantiosa gama de variantes formales que presenta el término en la época medieval, léase por ejemplo: Oiarso, Oiarzo, Oiarçon, Oyarçu, Oyharçun, etc. solamente nos hemos encontrado con un caso que el radical ‘Oi-’ (‘Oy-’) se altere por el sonido ‘ua-’, nos referimos al documento recogido por Vargas Ponce del año 1316, escrito en occitano, en el que se cita al ‘*cosseill d’Uharçon*’, así como a ‘*los boscagdes nostres d’Uharçon*’”.

Munitaren ikuspegi etimologiko horrek eragozpen bat zuen, dokumentua ez baitzen originala eta, teorian, militar cadiztarrak egindako erdi-purdiko transkribaketa batean oinarritzen zen⁴¹; hori dela-eta, Villabonako ikertzailearen ondorioak behin-behinekoak ziren. Edonola ere, horrek ez dio idatzari garrantzia edo baliorik kentzen. Gainera, nahiz eta dokumentu originala ez izan, Munitak jasotako molde hori zuzena izan daitekeelakoan gaude, aurrerago ikusiko dugunez, garai bertsuan sortu zen beste dokumentu batean azalduko baita.

Originalik iritsi ez zaigula ematen duenez eta datuak XIX. mende hasierako kopia batean oinarritzen direnez, 1316ko dokumentuaren inguruak zalantzarriak direla pentsa genezake. Errenteriako artxiboan zegoenaren aipamenak, ordea, agiriari egiazkotasuna ematen diola uste dugu. Zalantza nagusia agiri oiartzuarraren gaur eguneko kokapena da. Vargasek emandako datuen arabera, XIX. mende hasieran Jose Ignazio Gamonek kudeatzen zuen Errenteriako udal agiritegian gordeta zegoen, nahiz eta XVIII. mendeko inbentarioek dokumentuari aipamen zuzenik ez egin⁴². Ordutik zer jazo zen argitzeak, kontu iluna dirudi. Errenteriako eta Oiartzungo artxi-boetan burutu diren transkribaketa-lanek emaitza antzua izan dute eta, orain aipatu dugunez, inbentario zaharretan ere ez dirudi ezer agertzen denik⁴³. Hainbat faktore izan zitezkeen agiriaren galera ekarri zutenak: Espainiako Independentzia Gerra, Karlistadak, XIX. gizaldiaren hasieran artxiboan

41. Ald. CIERBIDE, R.: “Scripta medieval occitana...”, aip. lan., 51 orr., zeinak “*un documento escrito (...) y del que se conserva una transcripción moderna bastante defectuosa en el Archivo Municipal de Rentería*” adierazten duen (azpimarratua gurea da). Dena den, berria Munitari esker jaso zuela aitortzen du.

42. Udal aktetan XVI. mende hasieratik inbentario ezberdinei aipamena egiten bazaie ere, Errenteriako udal artxiboan gordetzen diren zaharrenak 1735, 1767, 1768 eta 1780koak dira, eta EUA, B-1-4-1 espedientean ikus daitezke. Esan bezala, zerrenda horietan ez zaio 1316ko agiriari aipamen zuzenik egiten, ez behintzat modu garbian. Aitortu behar dugu, baina, hainbat dokumenturen nondik-norakoa ez dela beti garbi gelditzen, “*vn priuilejio en pergamino en que se nombró a esta villa por Villanueva de Oiarzun y no se puede leer al presente*” moduan deskribatua den agiria, kasu (1735eko inbentarioaren 2 au. folioan, adibidez). Gerta zitezkeen ere, 1767ko inbentarioan, 22 zenbakiarekin aipatzen den “*vn libro viexo de ventas*” delakoaren barruan egotea.

43. Ildo horretatik azpimarratu behar dugu EUA, B-1-4-1 espediente horretan ere Oiartzungo udal artxiboaren 1630eko bi inbentario gordetzen direla (beranduago egindako ohar batzuekin), baina ez dute gure dokumentuari buruzko aipamenik.

egindako berrantolaketa⁴⁴ edo Vargasek berak galdu izana, antzinako dokumentu asko bere eskuetan hainbat denboraz egon baitziren⁴⁵. Gorosabelek ere ez zion bere Hiztegi entzutetsuan inolako aipamenik egin eta azken lan hau 1862an argitaratu zela aintzat hartuta, dokumentuaren desagertzearen kronologia gehiago zehaztu daiteke; zer esanik ez Vargasen bilketaren eta Gorosabelen lanaren arteko epean bestelako agiri batzuk desagertu zirela ematen duenean⁴⁶.

Bestalde, baten batek pentsa dezake logika handiagoa lukeela 1316ko agiria Oiartzunen gorde izana, Erreterian baino. Azken galdera honek, orde, badu erantzunik eta azalpen historikorik. Oroi dezagun Bailarako udalbatzari zuzendu zitzaizkion 1237 eta 1318ko dokumentuak ere Erreterian daudela, ez Oiartzunen. Antza denez, hiribilduaren sorrerak zentralizazio dokumentala ekarri zuen. Oretari hiribildu titulua eman zitzaionean, bertan ezarritako komunitatea Bailarako buru administratibo bihurtu zen eta, horrenbestez, Oiartzunen zeuden dokumentuak hara eraman ziren. Egoera hori ere, eztabaida eta borrokagai bihurtu zen: oiartzuarrek burututako dokumentuen lapurreta salatu zuen hiribilduak 1340an eta erregearen aurrean. Monarkaren ebazpena ezin argiagoa izan zen, agiriak Erreteriarri itzultzea aginduz⁴⁷.

44. Ez hori bakarrik, 1804ko urrian artxiboa hankaz gora zegoela adierazten zen, inolako antolaketa-rik gabe, azkeneko frantsesadan udaletxeak jasandako suntsiketaren ondoren inolako konponketarik egin ez zelako (ABASCAL PALAZÓN, J. M.; eta CEBRIÁN FERNÁNDEZ, R., aip. lan., 477-478 orr.). XVIII. mende amaierako gorabeheretarako, ikus EUA, E-5-II-1-11.

45. Ald. ABASCAL PALAZÓN, J. M.; eta CEBRIÁN FERNÁNDEZ, R., aip. lan., 475 orr.

46. Hori litzateke 1339ko azaroan Erreteriak eta Donostiak “Oiartzun”-go portuaren inguruan sinatutako itunarekin gertatutakoa Gorosabelek desagertutzat ematen zuen (“no se conserva su texto”), baina Gonzalo Martínez eta bere taldeak argitara eman zuten, Vargas Ponce bilduman gordetako kopiari esker. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 204-206 dok.

47. “*e disen que algunos omes de la dicha tierra d’Oyarçun que tomaron el original del dicho privilejo que le Nos diemos para la dicha población e otras cosas que son pertenescientes al conçejo de la dicha villa de Villa Nueva e que os tienen en sí forçadamente escondidos por non venir a morar nin a poblar nin a faser vesindat al dicho lugar de Villa Nueva d’Oyarçun (...) e que constringan a todos los omes, vesinos e moradores en la dicha tierra d’Oyarçun o a qualquier dellos que den e tomen luego el privilejo que vos mandamos dar por población a la dicha villa de Villa Nueva, en mano e en poder del dicho conçejo de Villa Nueva o de aquel que lo oviere de aver por el dicho conçejo e todos los otros pervilejos e cartas e sellos que la dicha tierra d’Oyarçun an e tienen de los reyes onde nos venimos*”. Ikus CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 5. dok.

2.2. *Zenbait datu*

Agiria bera Historia aldetik interesgarria da. Hasteko, Oiartzungo udalbatza horrek Erretereria (edo “Oiartzungo Uriberria”) sortu aurreko etaparekin lotzen gaitu. Halaber, inguruko hiribildu eta herrietako auzoek Oiartzungo Bailaran (eta zehazki bertako oihan edo basoetan) zituzten interesak agerian uzten ditu. Burdinolak izango ziren bertako baliabideen bezero nagusietako bat, basoak egur-ikatzka ekoizteko erabiliko baitzituzten, ondorengo mendeetako datuek argi islatzen duten bezala. Egur-ikatzarena, ordea, ez zen oihanen ustiapena zekarren motibo bakarra; horren lekuko dugu aztergai dugun 1316ko agiria. Bertan islatutakoaren arabera, egurra ez zen ikatzetarako, lantzen kirtanak eta zumitzak eta uztaiak egiteko baizik; hau da, armagintza eta upelgintza ziren helburu nagusia. Bertzenaz, baliabide horiek Bailarako auzoen jardueraz gain, beste leku batzuetako pertsonen interesa ere piztu zutela aditzera ematen digu agiriari; kasu honetan, Donostiako auzokideena. Ziurrenik interes horiek aspalditik zetozen, eta ondorengo mendeetan ere, mantendu ez ezik, joera hori areagotu egingo zen⁴⁸.

...

Halaber, Oiartzunen gordetzen den dokumentu originalik zaharrena 1499an hasitako estimazio-liburua dela ematen du, 1501eko udal-ordenantzekin batera, aurreko dokumentu guztiak XVI. mendeko kopia arrunt edo eskuetsietan iritsi zaizkigularik. Egia da original asko gerrateen, suteen edo bestelako gertakarien ondorioz galdu izan zitezkeela, baina horrez gain, adierazgarria deritzogu orain esandakoa. Are gehiago, Oiartzungo udal artxiboan ez omen da 1237 eta 1318ko dokumentuen inolako kopiarik gordetzen, nahiz eta “Oiartzungo udalbatzari” zuzenduak izan. Errealitate hau 1630 urtean egin ziren Bailarako udal artxiboko bi inbentarioan argi ikus daiteke (ikus EUA, B-1-4-1). Bertan agertzen den dokumenturik zaharrena olagizonen edo burdinolen forua litzateke, baina garai hartan ustezko 1412 edo 1374ko kopia-eskuetsian kontserbatzen dela ematen du (1412ko “Aroa” aipatzen da, baina askotan kronologia hori eta guk darabilguna nahasten dira). Bitxikeria moduan, Erretereriako udal artxiboan gordetzen diren Oiartzungo bi inbentario horietatik batek dokumentu horri aipamena egiterakoan ertzean ohar bat idatzita du, “*es de Renteria*” dela adieraziz. Hala ere, Burdinolen Foruaren laburpenak hainbat zalantza sortzen dizkigu, aipatzen diren urte horietan ez baitugu egindako kopia eskuetsiei buruzko daturik; baliteke XVII. mendean datak gaizki irakurri izana. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 154 dok; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta SAN MIGUEL OSABA, A.: *Documentación medieval del archivo municipal de Oiartzun. II. Pleito de los ferrones (1320-1514)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012, 1. dok.

48. XV. mende amaierako eta bereziki XVI. mendeko lehen erdialdeko egoerarako, ikus IRIJOA CORTÉS, I.: eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Erretereria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)*. Erretereria: Erretereriako Udala, 2012 (<https://static.erretereria.eus/web/eu/herria/artxiboa/monografiak/09EdadModerna/EdadModerna.pdf> helbidean eskuragarri), bereziki 282-302 orr. eta 3. eranskina, eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*. Donostia: Luis Haranburu, 1983.

Garai hartarako, Urumeako hiribilduaren eta Bailararen arteko harremana beste esparru batzuetara hedatua zegoen, bai, behintzat, XIII. mende hasierako eta XIV. mende amaierako dokumentu batzuetako datuak aintzat hartuz. Lehenengo eta behin, Oiartzungo bailarari Donostiako forua eta zenbait mesede berresten zizkion 1237ko agiria dugu. Bertan, Fernando III.ak alde aurretik Alfontso VIII.ak bailarari emandako pribilegioen berrespen-gutuna luzatu zion Oiartzuni. Jakina denez, Alfontso erregea 1214an hil zen eta ondorioz, 1200 eta azken urte horren artean Bailara hainbat errege-mesederen hartzaile bihurtu zen, Gaztelako monarkak inguruan zituen interesak finkatzeko joeraren erakusle⁴⁹. Baina mesedeak berrestez gain, monarka Santuak Donostiako gizona bailararekiko zituzten babes-betebeharrak gorde eta betetzeko mandatua ere luzatu zien⁵⁰. Pentsa daiteke, beraz, Oiartzuneko forua jaso zuenean, hiribildu donostiarrek bailararekiko nolabaiteko ardura zuela. Horrek, halabeharrez, lotura batzuk sortu edo areagotuko zituen bi guneen artean.

Mende t'erdia luze beranduago, 1396an, Hondarribiak Donostia, Erreterria eta Oiartzun salatu zituen bere lurretan sartu zirelako, Jaizkibel aldean legez kanpoko mozketak, su-emateak, baso-salmentak eta bazkatzak eginez. Aditzera ematen zenaren arabera, inguru horretan Urumeako eta Bidasoako hiribilduek aprobetxamendu amankomuna zuten lurrak zituzten, tartean abeltzaintza jardueretara bideratutakoak⁵¹. Badirudi, beraz, Donostiaren hiribildu hastapenetan (eta ziurrenik maila juridiko hori eskuratu baino lehenago), Oarsoaldean eta Jaizkibel inguruetan zenbait eskumen garatzea lortu zuela; horrek, bi aldeen arteko harremanak uztartuko zituen⁵².

49. Ezin da ahaztu 1200eko gertakarien ondotik eskuratutako gaztelu edo gotorlekue-tako bat, Beloagakoa izan zela. Inguruko biztanleei forua eta bestelako mesede batzuk ematea, beraz, bailarako biztanleek Nafarroako erregeekin izan zezaketen loturen haustura bilatuko luke.

50. Esaldi honen inguruko hausnarketa interesgarriarako, MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan., 95-97. Ikus, beste esparru batetik, CALLEJA PUERTA, M.: "Los privilegios fundacionales de las villas marítimas del Cantábrico: una perspectiva diplomática". In: ARÍZAGA BOLUMBURU, B.; eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A. (arg.): *Ciudades y villas portuarias del Atlántico en la Edad Media. Nájera, Encuentros Internacionales del Medioevo, Nájera 27-30 de julio de 2004*. Logroño: Gobierno de La Rioja-IER, 2005, 155-157 orr. (147-164).

51. Horrez gain, Donostiak Lezo eta inguruak haren zati zirela aldarrikatzen zuen. Ald. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I.: *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993, XXIV eta XXVI dokumentuak, non, besteak beste, "los montes comunes, que heran los montes de Jazquevil" aipatzen diren.

52. Nahiz eta Elena Barrenak Oiartzungo Bailararen lurralde gehiena Donostiari foruan eman zitzaizkion lurraldeetatik at utzi, ikertzaile berak Orereta inguruak eta Pasaiaiko badia osoa aitortzen zizkion Urumeako hiribilduari. Halaber, ezin dira Nafarroako Gartzia Ramirez

Ildo honetatik, Oiartzungo udalbatzarekin batera 1316an ageri diren protagonistei leku egin behar diegu, Per Ibañez Durangokoa donostiarri eta Joan Martinez Hernanikoari, biak “laster” moduan aipatuak⁵³. Lehenengoari dagokionez, bere abizena XIV. mende hasiera aldera dokumentatua dago, 1339an hamabi nagusietako bat Juan Ibañez Durangokoa izan baitzen⁵⁴. 1316koak berarekin harremanik zuen ala ez, ez dakigu, baina abizen berdina izateak, eta kronologia bertsuan agertzen direla ikusita, aita- seme edo, ziurrenik, anaia bezala hartzea ez litzateke baztertu behar.

Interesgarriagoa gerta dakiguke Gamon-ek aditzera ematen duen beste kontu bat, idatzian aipatzen den bigarren eroslearekin zerikusia duena. Egile errenteriarraren ustetan, donostiarren partaidetzaz gain, agiriak Hernaniko auzoena ere erakusten zuen. Baieztapen honen oinarrian Juan Ibañez Hernanikoaren abizena dagoela ondorioztatzea gauza argia ematen du. Zoritxarrez, dokumentuan ez da bertako auzo denik adierazten eta pena da, hala balitz, agiriak aspaldiko beste eztabaida historiografiko bati lekua egingo bailioke: Hernanik hiribildu titulua noiz eskuratu zueneko gaiari, hain zuzen ere. Gamon-en hitzak geure egingo bagenitu, Hernaniren sorrera XIII. mende erdialdean jartzen duten egileekin bat egiteko aukera handiak leudeke; alegia, Seguratik Donostiarako bidean 1256-1268 urte bitartean hiribildu titulua eskuratzen joan ziren Segura, Ordizia eta Tolosarekin

...

erregeak XII. mende erdialdean Iruñeko elizari Donostiako inguruetan egindako dohaintzen eremuak ahaztu, ustez Oiartzungo lurretara iristen baitziren (BARRENA OSORO, E., aip. lan., 315-328 orr., eta 324 eta 333 orrialdeetako planoak). Bestalde, XII. mendean zehar, bereziki azkeneko urteetan, Baiona eta Iruñeko gotzain-barrutien inguruan izandako mugatzeek, agian Donostiari hiri-gutunean egokitutako lurraldeen apezpikutasuna mugatzeko ere balioko zuten (ald., *ibidem*, 341-347).

53. Hitz hau zeharo ezezaguna zaigu. Gaskoiezko dokumentuetan “borzes” hitza azaltzea da ohikoena eta hizkiek nolabaiteko antzekotasuna izan dezaketela aintzat hartuta, litekeena da Vargasek (edo bere informatzailereren batek) egindako irakurketa-akats baten aurrean egotea.

54. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Gobierno urbano...”, aip. lan., 185 orr. Dokumenturako, MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., dok. 208. Beranduago, 1364an, Lope Ibañez Durangokoa Donostiako probestu izango dugu, Oiartzun eta Errenteriarren arteko liskarrak konpontzeko epaile-arbitro izendatua: “*Lope Yvannes de Durango, prevoste por nuestro sennor, el Rey, en la villa de Sant Sabastián*” (CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., 8. dok). Hamarkada batzuk beranduago, abizena Errenterian ikusteko aukera izango dugu: 1409an, Martin Perez Durangokoa bertako auzo eta “gizon zahar” edo “agure” bezala aipamena egingo zaio. Ikus CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 31. dok.

batera, hark ere beste horrenbeste erdietsi zuela⁵⁵. Hala ere, hipotesi bat besterik ez dela azpimarratu nahiko genuke eta, beste gai batzuekin bezala, argitze aldera, ikerkuntza sakonagoak beharko lirateke: abizen toponimiko batek ez gaitu zuzenean pertsona horren jatorrira eraman behar eta, bestalde, Hernani leku-izena, bailara moduan horren aspaldikoa izanik, zentzuzkoa dirudi bertatik Donostiara bidea egin zuen norbaitek edota bere ondorengoek abizen moduan hartzea⁵⁶.

Edonola ere, dokumentuak baditu beste alde interesgarri batzuk, mami-tsuagoak eta, aldi berean, korapilatsuagoak edo hausnarketarako bidea ematen dutenak. Eta horiei helduko diegu oraingoa.

3. 1316ko agiriaren hizkuntzaren inguruan, hausnarketa batzuk

Kronologia eta protagonistez haratago, 1316ko dokumentuaren hirugarren gauzarik azpimarragarriena, eta deigarriena gerta daitekeena, gas-koiez idatzia dagoela ikustea da⁵⁷. Esan bezala, baditugu halako hizkuntzan sortutako idatzi gipuzkoarrak, gehienak Donostiarekin zerikusia dutenak. Oraingoa, ordea, emaila Oiartzungo udalbatza da, garai hartan komunitate euskaldun elebakarra edo ia elebakartzat har dezakeguna. Hasiera batean hizkuntza arrotz horren erabilerak, non eta udalbatzaren jarduna islatzen den une batean, inguru horietan gaskoi komunitate baten garrantziaz pentsatzera eraman gaitzake, zaila baita halako tipologia dokumental arrunta, foruek edo pribilegioek aurkez ditzaketan hizki, zigilu edo kolorezko berezitasun formalik gabekoa, islatzen duen agiri bat beste era batera ulertzea. Ikertzaile batek baino gehiagok halako prozesua izan zenik uste du, gas-

55. Hau guztirako, ikus berriki Mertxe URTEAGAK argitara eman duen honako artikulua: “El origen del villazgo medieval de Hernani (Gipuzkoa)”. In: *EAE*, LXXI (2015), 103-128 orr. Hernaniren hiri-gutunaren inguruan eman diren korrante historiografikoei buruzko hitzak, 106-108 orrialdeetan. Ikus, baita ere, ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Régimen municipal en Guipúzcoa en los siglos XIII y XIV”. In: *Lurralde*, 2 (1979), 103-267 orr. eta TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 255-256 orr.

56. Izan ere, deigarria gerta dakigukeen lehenengo gauza Juan Ibañez Hernanikoaren auzotasunari inolako aipamenik ez egitea litzateke. Bestalde, 1402an, Donostiako udalbatzak emandako ahalorde gutun bat, bertako eskribau publiko moduan aipatua den Anton Martínez Hernanikoak egin zuen (ikus AGS. Patronato Real, 7-66), Anton bera Donostiako ordezkari moduan arituko da, Espainiako kostaldeko populazio-guneek (erran nahi baita, Galiziatik Gipuzkoara artekoek) eta Lapurdikoek 1404 urte amaieran sinatutako bake-itunean. Ikus, SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: *Patrimonio documental de Santander en los archivos de Cantabria (Biblioteca Municipal de Santander, Archivo Histórico Provincial de Cantabria, Archivo de la Familia González-Camino y Archivo de la Familia Sánchez-Tagle)*. Documentación medieval (1253-1515). Santander: Gobierno de Cantabria, 1998, 81 orr.

57. Are bitxiagoa, Gamonek horren inguruan inolako aipamenik egiten ez zuela aintzat hartzen badugu.

koiek Gipuzkoa ekialdean izan zuten finkapena Orereta eta Oiartzun inguruetara ere zabalduz⁵⁸.

Hipotesi interesgarri horrek ia ezinbestean garamatza “gaskonizazio” demografikoaren inguruan hausnarketak egitera, baina badira dokumentua aztertzerako garaian beste esparru batzuetara eramán gaitzaketen argudioak, besteak beste, Behe Erdi Aroan, XIII. mendetik aurrera, kultura idatzian eman zen iraultzara; erromantzeen erabilerara, hain zuzen ere.

3.1. Gipuzkoa, leku desberdinetako erakundearen gurutze bide: Erdi Aroko administrazio eleanitza

Zalantzarik ez dago gaskoiez izkiriaturia egotea kontu azpimarragarria dela. Horregatik, bitxiago egiten da Gamon-ek berak hizkuntzaren inguruan inolako ohar edo azalpenik egin ez izana, agian bere Errenteriarri buruzko lanaren interesei kontra egingo zienaren beldur⁵⁹.

Ustez arrotza den mintzaira baten erabilera idatzia ez da, ordea, ezohikoa. Hizkuntza administratiboen eta kalekoen arteko desberdintasuna kontu ezaguna dugu, bai hamaika garaitan, baita beste zenbait herritan ere⁶⁰. Halaber, jakina da Behe Erdi Aroko dokumentuetan Euskal Herrirako iritsi zaigun errealitate linguistikoa berezia izan zela. Katalunian edo Galizian ez bezala, gurean lurralde ezberdinetako erakunde eta eskribauk ez zuten herriaren mintzairan idatzi; ez, behintzat, modu arruntean. Protokolo, udal-araudi, ordenantza edo errege-esparruari lotutako agirietan euskaraz idatzitako testu, paragrafo edo esaldiak ia hutsaren hurrengo direla esan daiteke; testuak ekoizterako garaian, bestelako hizkuntza batzuk aintzat hartu ziren⁶¹. Egoera horretan deigarriena, eta idatzizko eta hitz egindako hizkuntzen desberdintasunaren itzal luzeaz hitz egitera datorrena, Nafarroa Behereko adibidea dugu, XVII. mendearen lehenengo hamarkadetan oraindik, bertako

58. Ald. adibidez, CIERBIDE, R.: “Scripta medieval occitana...”, aip. lan. 48 orr. edota egile honen beraren “Documentación gascona...”, aip. lan., non 203 orrialdean, Donostia, Pasaia eta Hondarribian ezarritako gaskoi-baionarrek: “*Parece pues obvio que la lengua de que se sirvieron para la ordenación de su actividad comercial y urbana, así como en sus relaciones con sus vecinos de Bayona o los burgos francos de Pamplona, fuera el gascón*”. Errenteriako kasuari geroago helduko diogu.

59. Gogoan hartu behar dugu Donostiaren gaskoi jatorriari kapitulu oso bat eskaintzen diola, tartean hizkuntza horretan hainbat dokumentu idatziak zeudela adieraziz. Ez du, ordea, 1316koaren inguruan hizkuntza-oharrik egiten.

60. European leku askotan gertatu zen bezala, edo Afrikan gaur egun dakusagunez.

61. Ald. MADARIAGA ORBEA, J., aip. lan., 31 eta hh.

Gorte edo notario-protokoloetan erabilitako hizkuntza gaztelania izan baitzen, berriki Peio Monteanok adierazi duen bezala⁶².

Horiek horrela, 1316ko dokumentuan gaskoia erabiltzeko hautua garai hartan indarrean zebilen ohitura administratibo baten ondotik azalduko litzateke. Ildo horri jarraituta burura datozkigun lehenengo hausnarketek, ia ezinbestean, Oiartzundik gertu dauden hiru guneetan begirada jartzera garamate. Batetik, garai horretan gaskoiak sozialki eta dokumentalki indarra izan zuen hiru lekuetara, hau da, Donostiara, Hondarribira eta Baionara. Bestetik, gertuko errealitate administratibo eleanitz batera: Nafarroara.

a) Donostia eta Hondarribia

Agiria Oiartzungo udalbatzak egiten badu ere, Donostiarekin duen lotura agerikoa da: batetik, egur erosleetako bat bertakoa delako baina, bereziki, idatzia burutu zuen eskribauak jatorri hori zuelako. Berau Juan Basesarriko edo Basusarrikoa dugu. XIII. mende amaieran hasi zuen bere jarduera, berari buruzko lehen datua 1297koa delarik. Orduko apirilean, Donostiako udalbatzak emandako ahalorde-gutun bat berak idatzi zuen, gaztelaniaz⁶³, eta beste horrenbeste egin zuen bi urte beranduago Hondarribiko udalbatzak eta Lastaolako jaunak Donostian sinatutako hitzarmenean⁶⁴. Hizkuntza hori ez zen, ordea, Basesarrik idazten zekien bakarra⁶⁵. Bere jarduna latinez ere burutu zuen; besteak beste, Bonifazio VIII.a Aita Santuak San Bartolome komentua bere babespean hartu zueneko dokumentuaren kopia eskuetsia egitea egokitu zitzaion, 1307ko uztailaren 29an⁶⁶.

62. MONTEANO SORBET, P. J.: *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Pamiela, 2017, 142-145 orr. Edota Corella bezalako herria, non Erdi Aroan zehar bearnesa erabili zen (ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 182 orr.).

63. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 75. dok.

64. *Ibidem*, 77. dok.: “*vinieron a San Sebastián y en presencia de los buenos hombres del mesmo lugar (...) ambas partes de la paz e de la concordia...*” (*Vasusenri bezala*) eta LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., VII. dok. (*Basasarri bezala*). Ald. ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.), aip. lan., eranskin dokumentala, I, non erabilitako kopiak 1347ko Aroa (hau da, 1309 urtea) darabilen.

65. Edo behintzat, berak sinatutako agirietan ez da ageri den hizkuntza bakarra. Hori berresteko, bere sinadura eta dokumentu originalen mamia alderatu beharko genuke (1299korako, adibidez, kopiak bakarrik gorde zaizkigula ematen du). Horrek —jakitun gara—, gure interpretazioa baldintzatu dezake.

66. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995, 6. dok. Latinezko dokumentu baten kopia eskuetsia bada ere, Basesarrik berak egindako

Baina horrez gain, eta zalantzarik gabe guretzako garrantzitsuena dena, Basesarri gaskoiezko testuei atxikita agertzen zaigu⁶⁷. Berak izan zuen 1301 eta 1304 urteetan hizkuntza horretan bi agiri burutzeko ardura⁶⁸. Horren

...

dokumentuaren barnean sartzen da, eta hau latinez idatzi zuen eskribau donostiarrak: “*Noverin[t] universe, presentes litteras inspecturi quod ego, Iohannes de Bassessarri, notarius publicus et iuratus communitatis et concilii ville Sancti Sebastiani, vidi, tenui atque legi privilegium quondam excellentissimi domini et felicitis recordationi[s] Boniffaci pape .VIII. bullatum et signatum ssigno Romani Pontificis (...) Ego, Iohannes de Bassessarri, notarius publicus communitatis et concilii Sancti Sebastiani supradictus, uerbo ad uerbum, nichill addendo nichillque diminuendo, presens transcriptum a predicto extraxi priuilegio et in testimonium veritatis et quod ita est meum sig- [zeinua] –num in ipso apposui assuetum (azpimarratuak gureak dira)”.*

67. Hari buruzko hainbat oharretarako, AGUINAGALDE, F. B. de: “Los archivos familiares en el panorama de las fuentes documentales. Materiales para una historia de los archivos de familia del Bajo Medioevo a la Revolución Industrial”. In: *BEHSS*, 20 (1986), 21 orr. eta bertako 19 oin-oharra (11-63).

Gaskoiez idatzi zuen beste eskribau ezaguna Joan Perquerkoa izango dugu. Bera izan zen Martin Gomisek 1362an egindako testamentua burutu zuena. Perquerren jarduna 1362-1379 artean dokumentatua dugu, eta berak idatzitako agirien inguruan badugu beste berririk: 1379 uztaillean San Bartolome komentuari Gaztelako Endrike II.ak hamarren zaharrari lotutako berrespen baten kopia eskuetsia egin zuen, gaztelaniaz (LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A., aip. lan., 34. dok., non Perquier edo Parquier bezala agertzen den). Halaber, Hernanik eta Donostiak Urumearen inguruan 1379an sinatu zuten hitzarmenean ageri zaigu. Agiria Pedro Ibañez Zuaztikoak, Lope Lopez Herausokoak eta Perquerrek berak sinatu zuten. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 384 dok., eta HERRERO LICEAGA, V. J.; eta FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M.: *Fuentes medievales del Archivo Municipal de Hernani (1379.1527)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011, 1 dok.

Perquertarrak goiz samar ditugu Donostian: 1293-94ko hamarren zaharraren erregistroan Migel Perez eta Domingo Perquerkoak ageri dira; artikulua honen hasieran bildu dugun 1310eko agirian, berriz, “Vidao” Perquerkoa; 1328an, prokuradore moduan jardundako Paskoal Perquerkoa elizgizona dugu; Martin Gillen Perquerkoa (Perkye), 1352an hamabi izan zen eta 1353an, Baionak Paduretako Anaiartarekin sinatutako hitzarmenean, hiribilduko prokuradore moduan jardun zuen. Halaber, Nafarroako bidesarrietan dugu, 1351n Arnat Perquerkoa merkataria bezala. Bestalde, 1344an andre Auria Perquerkoa alargunak, Martin Gomez eta andre Remonda Otsoa Getariakoarekin dolarea erdibana zuen (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 229 dok.) eta, amaitzeko, bi Remon Perquirko ditugu 1393an; bata, notarioa eta bestea, ikasle eta eliza-benefizioduna (LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A., 39. dok.). Ald., baita ere, TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 585-586 orr.

68. Bi dokumentuetarako, ikus GARCÍA LARRAGUETA, S.: *Documentos navarros en lengua occitana*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 121. eta 139. dok. 1304ko dokumenturako ikus, baita ere, CIERBIDE, R.: “A propósito...”, aip. lan., non begirada testu horretan jartzen badu ere, azterketa linguistikoa egiterako garaian 1301koa ere aintzat hartzen duen. Ald. baita ere, CIERBIDE MARTINENA, R.: “Occitano languedociano...”, aip. lan.,

...

ildotik, eta lerro hauen hasieran iruzkindu dugun 1310ekoa burutu zuen ala ez ez badakigu ere, testuinguru kronologiko zein geografikoa aintzat hartuta, balizko hipotesizat har genezake⁶⁹.

Donostiako notario baten eleaniztasun honek ez gintuzke harritu behar, batez ere gaskoi hiztunez osatutako komunitate sendo bat bertan ezarria zegoela aintzat hartzen badugu. Dena den, eta gauzak argitze aldera, Basesarriren dokumentuak zer testuingurutan eman ziren aztertzea komenigarria da; alegia, zer nolako agiriak diren, eskatzaile edo sustatzailea nor(tzuk) z(ir)en eta agirien helburua zein zen. Alde horretatik, latinez dagoena ingurumari eliztar argi batean txertatzen da: Aita Santua eta Donostiako San Bartolome komentua dira bere protagonistak eta ondorioz, hagitx logikoa da hizkuntza horretan izkiriatu izana, gaztelaniak geroz eta indar handiagoa izango badu ere, mundu horrek latina denbora luzez erabiliko duelako. Bertzenaz, Donostiako udalbatzaren ahalordea edo 1299 urteko Hondarribia eta Lastaolako jaunaren arteko hitzarmena Gaztelako erresuman gaztelania hartzen ari geroz eta indar handiagoaren seinale lirateke, besteak beste⁷⁰. Gainera, 1297ko ahalordea testuinguru gaztelar batean txertatzen zen, izan ere, San Vicente de la Barqueratik Hondarribirako tarteko portuek (Gaztelako Itsasbatterreko Ermandade edo Anaiarteak?) ospatu beharreko bilerarekin zerikusia zuen. Herri horiek Nafarroako gorte-alkatearen eta Migel Gascon delakoaren eskariz Castro Urdialesen batzartzekoak ziren, Ingalaterrak eta Baionak Flandriako kondearen eta Frantziako erregearen aurka zuten gerraren ingurukoak jorratzeko⁷¹.

Beste bi agiriak, 1301 eta 1304koak, dira bidezidor berria egiten dutenak. Biek Nafarroara garamate, eskatzaileek bertako pertsona zein erakundeekin zerikusia baitute eta, ondorioz, erresuma horretan okzitanierak hizkuntza administratibo bezala zuen ohikotasuna islatuko luke. Basesarrik, ordea, hizkuntza hori erabili ordez, antzekoa zen eta berezkotzat izango zuen gaskoia erabiliko luke.

...

761-772 orr. eta GARCÍA LARRAGUETA, S.: "La Orden de San Juan de Jerusalén en Navarra. Siglo XIV". In: *Las Órdenes Militares en el Mediterráneo Occidental. Siglos XIII-XVIII. Coloquio celebrado los días 4, 5 y 6 de mayo de 1983*. Madril: Casa de Velázquez-Instituto de Estudios Manchegos, 1989, 112 orr. (103-138).

69. Horretan 1301, 1304 eta 1310eko agirietan erabilitako idazkeraren alderaketa batek lagunduko liguke, bereziki originalak izango bagenu.

70. Izan ere, 1299ko dokumentuari buruz kopiak bakarrik baditugu ere, kontserbatzen diren guztiak gaztelaniaz daude. Eskerrak eman nahi dizkiogu Imanol Vítóres Casadori datua helarazteagatik. Dena den, airean legoke hautuaren benetako zergatia edo, bestela esanda, zer dela eta bi horietan gaztelania erabili zuen eta Oiartzungo 1316ko dokumentuan, berriz, gaskoia

71. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 75 dok. Hondarribiko udalbatzaren ahalorderako, *ibidem*, 74 dok.

Bestalde, Basesarriren dokumentuak Donostian emanda daude eta 1304 eta 1316ko agirietan data topikorik azaltzen ez bazaigu ere, Urumeako hiribilduan eman zirela pentsatzea zilegi da, zer esanik ez Hondarribia eta Lastaolako jaunaren arteko hitzarmena han burutu zuela aintzat hartuta. Azken datu hau Oiartzungo dokumentuarekin lotuz gero, badirudi ohitura notarialen ikuspegitik Donostiako eskribau hori inguruko hiribilduentzako erreferentzia bat zela eta, ondorioz, nahiz eta negozio juridikoaren protagonistak Urumeako hiribilduz kanpokoak izan, testuek notario donostiar horrek idazterako garaian zituen ohiturak islatuko lituzkete⁷²; baina agian, ez bakarrik donostiarren usadioak. Notario donostiarrez aparte, badakigu Bailarak beste leku batzuetakoak ere deitzen zituela, tartean Hondarribikoak zeudelarik. Bidasoa ondoko hiribilduetako notarioek ere Bailararen eskaerak eta ekimenak idazteko joera izan zuten, baita 1320 urtea baino lehenago ere. Besteen artean Per Arnalt Gardagakoa notario publikoa dugu, zeinak data horretarako Fernando III.ak eta bere ondorengoek bailarari eman zizkioten pribilegioen eta berrespenen kopia-eskuetsiak egin zituen⁷³. Eta Hondarribian sortutako gaskoiezko testurik ez dugula aipatu badugu ere, horrek ez du esan nahi bertakoek ohitura administratibo hori jarraitu ez zezaketenik.

b) Baiona

Oiartzungo udalbatzari lotutako agiri bat gaskoiez idaztearen gakoa ohitura administratibo batean oinarritzen badugu, esparru erlijiosoak euskarri garrantzitsua osatzen du, begirada Baionan jartzera baikarama. Alde batetik, Lapurdiko hiriarekin Bailarak eta Gipuzkoa ekialdeak izan zezakeen zeharkako hartu emana genuke, Donostiako hainbat leinuk Baionarekin zuten loturan oinarrituz. Honela, Oiartzungo dokumentua baino pixka bat lehenago, 1279 eta 1303 artean Dominique Mans-ekoa donostiarra izan zen Baionako gotzain edo apezpikua, zeina, gainera, Basesarriren garaikidea zen⁷⁴.

72. Ahaztu gabe Oiartzungo dokumentuan bertan gutxienez Donostiako auzo batek parte hartzen zuela. Eskribau jakin batek idazketa prozesuan duen garrantzirako, DEL CAMINO MARTÍNEZ, C.: “Escritura y elaboración formal de los Fueros de Avilés”. In: RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I.; SANZ FUENTES, M.^a J.; eta CALLEJA PUERTA, M. (koord.): *Los fueros de Avilés y su época*. Oviedo: RIDEA, 2012, 425-428 orr. (405-430); eta SANTIAGO LACUESTA, R.: “Notas sobre lengua y escribanos en documentos medievales alaveses”. In: *Sancho El Sabio*, 21 (1977), 245-249 orr. (233-257).

73. “*E otrosí nos enviaron mostrar traslados de previlegios e de cartas del rey don Ferrando, nuestro trasavuelo, e del rey don Sancho, nuestro avuelo, e del rey don Ferrando, nuestro padre, e nuestros, assí de confirmaciones commo otros que les diemos de graçias que les fisieron, que eran firmadas de mano de Per Arnalt de Gardaga, notario público de Fontarrabia, en que se contiene que eran aforados al fuero de Sant Savastián*” (CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 3. dok.).

74. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 191 orr.; TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 393-394 orr. eta, bereziki, BALASQUE, J., aip. lan., 2. liburukia, 166-167, 436 eta 567-572 orr.

Bestetik datu esanguratsuago bat dugu, Oiartzun eta Baionaren arteko lotura zuzenaz diharduena. Ez da ahaztu behar Goi Erdi Aro amaieratik, XI. mende amaieratik gutxienez, eta XVI. mende erdialdera arte, Baionan egotza zuen apezpikutzak Nafarroako eta Gipuzkoa ekialdeko hainbat eremu bere baitan hartu zituela, gure bailara tartean⁷⁵. Ez hori bakarrik, XII. men-

75. Urbano II.ak 1096 urtean emandako buldak, Iruñeko gotzain-barrutiko eremuetako bat Belatetik Donostiara zihoana zela azpimarratzen zuen. Urte gutxiren buruan, 1105ean, Aita Santuaren beste bulda batek Baiona eta Iruñeko gotzain-barrutien finkapena ezarri zuen, lehenengoaren eskumenak Gipuzkoa iparralde ia osoan ezarri, Donostia inguruan izan ezik. Halaber, 1194 urtean luzatutako buldak Oiartzungo bailara Baionaren pean uzten zuen. Gogora dezagun garai honetan, X-XII. mendeetan, gaur egun “gipuzkoartzat” ditugun zenbait lurralde kontzeptu horretatik at zeudela, Oiartzun eta Hondarribiaren arteko zatia tartean. Bestalde, 1083tik 1115 urtera Iruñeko gotzain moduan jatorriz Piriniotatik haratagokoa zen Pedro Andouque edo Rodezkoa aritu zen, zeinak Nafarroaren aurkako eta Frantziaren aldeko politika ezarri zuen, eliza eta monastegi nafarrak Frantziakoei dohaintzan emanaz. Modu honetan, 1096ko buldak Baionari Gipuzkoa iparraldean egindakoen berrespena islatuko luke (BARRENA OSORO, E., aip. lan., 283-284; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan. 204-205 orr). Testuinguru nagusirako, ikus BARRENA OSORO, E., aip. lan., bereziki 213 orrialdetik aurrera; eta XII. mendeko gorabeheretarako, *ibidem*, 196 orr. eta bertako 21 oin-oharra, 273-274, 280-288 eta 341-350 orr.; OSTOLAZA, M.^a I.: “La organización eclesiástica guipuzcoana durante la Edad Media”. In: *Congreso el Fuero de San Sebastián y su época*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 163 eta hh. (149-192); ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña...”, aip. lan, bereziki 119-125 eta 134-140; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., bereziki 202 orr. eta hh.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La vida eclesiástica de Hondarribia en el marco geográfico del arciprestazgo de la Diócesis de Bayona”. In: *Lurralde* 37, 2014, 39-96 orr.; SORIA SESÉ, M.^a L., aip. lan., 72-74 eta, berriki, LEKUONA ILUNDAIN, A.: “Irun en la geografía política y diocesana de los siglos X a XII según las fuentes diplomáticas”. In: *Arkeoikuska*, 18 (2016), 159-171. Ald. baita ere, MARTÍNEZ DÍEZ, G., aip. lan., 81-85 eta 141-148 orr.; MÚGICA, S.: “El obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipúzcoa adscritos a dicha diócesis”. In: *EINA*, VIII (1914-1917), 185-229 orr., bereziki 193-195 orr. (non Gipuzkoako hainbat herrik, Gaztela eta Nafarroaren arteko ezinikusien ondorioz, eliza-kontuetara Baionara jotzeko joeraren hipotesia planteatzen duen). Ald. TENA GARCÍA, M.^a S.: *La sociedad urbana...*, aip. lan., 71, 72 eta 80 orr. eta lehenengoaren 48 oin-oharra, non “1027”ko dokumentua benetakotzat jotzen duen, Baionak Gipuzkoaren gainean zituen eskumenak, bereziki Oiartzuni dagokionean, XII. mende amaieran kokatuz. Duela urte gutxi batzuk, José Luis Orellak Iparraldeak (alegia, Gaskoiniak eta Okzitaniak) Gipuzkoako lurraldean Behe Aintzinarotik Behe Erdi Aroaren hasiera arte izan zuen eragina azpimarratu du, hainbat lekutan Hegoalde edo Mendebaldetik zetozenak baino garrantzitsuagoak izan zirenen hipotesia garatuz. Ildo horretatik, Baionak Gipuzkoan izandako eragina, erlijio esparrua tartean, gaskoien ezarpenaren ondorio zuzenean oinarritzen du: “*Se establecieron unos vínculos familiares y mercantiles entre ambas orillas del Bidasoa que no sólo se ciñeron a estos aspectos sino que forzaron la vinculación religiosa de estas tierras del Pirineo occidental con respecto a la sede de Bayona. Vinculación que estaba justificada por la emigración gascona*” (ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Las relaciones entre Gascuña...”, aip. lan. 165). Labayruk ere eskaini zion tarte bat gaiari. Ikus LABAYRU, E. J. de: *Historia General del Señorío de Bizcaya. Tomo I*. Bilbo-Madril: Casa Editorial “La Propaganda”-Librería de Victoriano Suráez, 1895, XXXVI kap.

dearen azken laurdenean “Oartzungo” portua zen, agidanez, Baiona eta Nafarroaren arteko muga banatzen zituena, Roger Hoveden edo Howeden kronikalari ingelesak 1169-1192 artean idatzitakoetan oinarritzen bagara, behintzat⁷⁶. Egile honek honakoa zioen:

“Sciendum est, quod tota terra quae est ab Anglia vsque in Hispaniam secus mare, videlicet Normandia, Britannia, Pictaui, est de dominio regis Angliae, & protenditur vsque ad portum qui dicitur Huarz, qui diuidit terram Comitum de Baionia a terra regis Nauarrae. Et terra regis Nauarrae incipit a

...

Horretaz guztiaz gain, ezin ahaztu Nafarroako erresumaren eta Gaskoiniako dukerriaren arteko harremanak estutu egin zirela X. mende amaieratik aurrera. Ald. ARIZAGA BOLUMBURU, B.; eta BARRENA OSORO, E., aip. lan., 251 eta 284 orr.; eta, bereziki, ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan.; 203-204 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña...”, aip. lan., 161-163 orr. eta SORIA SESÉ, L., aip. lan.

76. Hoveden-en datuak Oiartzunekin lotzearen kontua aspalditik dator, Oihenartek leku egin baitzien bere *Notitia utrisque Vasconiae* famatuan, XVII. mende erdialdean. Azkeneko urteetara arte, ordea, oso egile gutxik hartu dute egile ingelesa aintzat; salbuespena José María LACARRA izan zen, Done Jakue bidearen inguruko azterketan; ez zuen, baina, Oiartzuni buruzko aipamenik egiten (ald. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La vida eclesiástica...”, aip. lan. 47 orr.). Orokorrean, Hoveden-en esanak Oihenart-ek bildutakoaren bidez hartu dira (ald. NOAIN MAURA, M.^a J.: *Hondarribiko hiriaren sorrera Erromatarren garaitik 1400.era*. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2005, 56 eta 63 orr. eta ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña...”, aip. lan., 165 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización medieval...”, aip. lan. 195 orr.). Berriki, ordea, kronikalari ingelesak Gipuzkoarako duen garrantzia mahaigaineratzea Aitziber Lekuonari eta, batez ere, Iñigo Ruiz Arzalluzi zor diegu. Ikus LEKUONA ILUNDAIN, A., aip. lan., 166-167 orr.; RUIZ ARZALLUZ, I.: “Vasconia en el siglo XII: Roger de Howden, el ‘De Viis Maris’ y la extensión del vizcondado de Bayona”. In: *ASJU*, 52 (2018), 706 eta 709 orr. (697-712), eta, oso bereziki, RUIZ ARZALLUZ, I.: “De Oiasso a Huarcha...”, aip. lan., 505-526 orr.

Hoveden-en lanak aipatzen ez badira ere, ald. URZAINQUI, T., eta OLAIZOLA, J. M.^a de: *La Navarra marítima*. Iruñea: Pamiela, 106-153 orr., bereziki 108-109. Azken bi orrialde hauetan British Museum-en dagoen 1190eko dokumentu bat aipatzen dute, “Division of kingdoms [sic] of Navarre and Spain” izenekoa. Ikertzaileek ez dute agiri horren egile edo testuinguruari lotutako daturik ematen. Erreferentzia ezak hainbat egilek izenburu hori 1177an, Nafarroa eta Gaztelaren arteko eztabaidei amaiera emateko asmoz Ingalaterrako erregeak eman zuen arbitro-epai edo laudoari lotu diote, baina bi egilek jasotako hitzek Hoveden-era garamatzatela dirudi (ald. URZAINQUI, T., eta OLAIZOLA, J. M.^a de, aip. lan., bereziki 116-153 orr.; NOAIN MAURA, M.^a J., 56 eta 63 orr. edota RYMER, T.; eta SANDERSON, R.: *Foedera, conventiones, literae et cujuscunq[ue] generis acta publica inter reges angliae*. 1745³. Haga: Joannem Neaulme, I. liburukia, 13-16 orr., 43-49 dok.

Hoveden-en lanentzako, ikus HOVEDENI, R.: “Annalium parts prior & posterior”. In: *Rervm Anglicarvm scriptores post Bedam parecipvi ex vetustissis codicibvs manuscriptis nunc primvm in lucem editi*. Londini: G. Bishop, R. Nvberie & R. Barker Typographi Reggi Deputati, 1596 (https://books.google.co.uk/books?id=QUlhAAAAcAAJ&printsec=frontcover&source=gbs_ge_summary_r&cad=0#v=twopage&q&f=false).

portu de Huuartz & protenditur vsque ad aquam quae dicitur Castre, quae diuidit terram regis Nauarrae a terra regis Castellae...⁷⁷.

Lehen begiratuan testua nahiko argia dirudi baina egiari zor, “Huarz” horren atzetik Erdi Aroko “Oiartzungo portua” eta gaur egungo “Pasaia” irakurri behar diren ala ez, zalantzak daude. Toponimoaren inguruan hainbat hipotesi plazaratu dira⁷⁸. Batzuek “Huartz/ Hubiartz”-en atzetik Ustaritze zegoelakoan zeuden⁷⁹; beste hainbatek, berriz, Hondarribia ikusi dute. “Huarz” horri ematen zaion portu adiera, ordea, ez dator bat Lapurdi barnealdeko erdigunean dagoen herriarekin eta Hondarribiarekin lotzea nolabaiteko logika luke, historiografia klasikoak “Oiasso”-ren inguruan egin dituen hamaika hausnarketak aintzat hartzen baditugu, tartean Hondarribiarekin identifikatuz⁸⁰. Hirugarren ildo nagusiak begietara gehien ematen duen “Oiartzun” defendatzen du. Egiari zor, Hoveden-ek bildutako aldaerak eta XIV. mende hasieratik aurrerako material kartografikoetan Pasaiaiko badia adierazteko agertzen denak bat egiten dute, edo antz handia dute; gainera, Oihenartek berak hipotesi hori zerabilen⁸¹.

Aitortu behar dugu guk geuk ere ideia horren aldekoak ginela, baina berriki Iñigo Ruizen eskutik plazaratu den laugarren hipotesi batek beste bide bat ireki du⁸². Ikertzaile horrek, Hoveden-ek 1191-1193 urte bitartean burutu zuen lan batean oinarrituz, bi artikulutan hausnarketa oso interesgarriak eman ditu argitara, portua Bidasoa-Irunen kokatuz eta ez Oiartzunen.

77. HOVEDENI, R., aip. lan. 383 au. Hitzok Tomás URZAINQUI eta Juan María de OLAIZOLAK (aip. lan., 108-109 orr.) bildutakoen oso antzekoak dira. Oihenart-ek 156 orrialdean Hoveden-en hitzak biltzen zituen, esanaz: “...*quod etiam* [Andres Pozaren hitzak] *de vterioribus seculis autoritate Rogerij Houeden confirmari posse videtur, sic enim ille posteriori parte Annal. Terra Regis Nauarrae incipit à portu de Huartz, et protenditur vsque ad aquam que dicitur Castre, que diuidit terram Regis Nauarrae à terrâ Regis Castellae:...*”.

78. Honen inguruan, ikus RUIZ ARZALLUZ, I.: “Vasconia en el siglo XII”, aip. lan.

79. Ald. *The Annals of Roger de Hoveden, comprising the History of England and of other countries of Europe, from AD 732 to AD 1201 (translated by Henry T. Riley)*. London: H. G. Bohn, 1853, 2. liburukia, 154 orr. Horiek, beraz, Munitak aipatutakoei batu beharko litzaizkieke. Ustaritzen aipamenaren inguruan, LEKUONA ILUNDAIN, A., aip. lan., 166 orr.

80. Ald. URZAINQUI, T., eta OLAIZOLA, J. M.^a de, aip. lan., 108-109 eta NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 11-24.

81. Ikus supra, 76 oin-oharra. Bestalde, Vatikanoarekin zerikusia duen dokumentazioan, XIV-XV. mende hasierako *d’Uhartim* (1403), *Oyarçum* (1414), eta, bereziki, *Ucharçum* eta *Uharçum* ditugu, zeinak 1414 urtean ageri badira ere, 1334ko dokumentu baten kopia-etsian jasotzen dira. Ikus RUIZ DE LOIZAGA, S.: *Documentación medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV)*. Erroma, s. e., 2000, 8-b, 20 eta XX dok.

82. Ikus, RUIZ ARZALLUZ, I.: “Vasconia en el siglo XII...”, aip. lan., 706 eta 709 orr. eta IDEM: “De Oiasso a Huarcha...”, aip. lan.

Iñigo Ruizek oinarritzat hartu duen Howeden lanak honako toponimo-hurrenkera ematen zuen, ekialdetik mendebaldera: lehenengo, “Mundacie” mendia, Baionako kontearen lurretan; bigarrenik “Huarche”-ko portua genuke, zeina Baiona eta Nafarroaren arteko mugan zegoen; hirugarren lekuan “Funtrabi” mendia legoke, “Huarcha”-tik hiru miliatara; ondoren Donostia, “bonus portus” moduan aipatua; eta, azkenik, portu on eta sakontzat zuen “Catharie” izeneko irla:

“Deinde est Baonia que est civitas episcopalis de dominio comitis Pictavie, et ibi est portus cum mare fuerit bene ascensum. Deinde est mons magnus qui dicitur Mundacie in terra comitis de Baonia. Deinde est bonus portus qui dicitur Huarche, qui dividit terram predicti comitis a terra regis Navarie.

Deinde in terra regis Navarie est mons magnus qui dicitur Funtrabi, et distat ab Huarcha per tria miliaria. Deinde est bonus portus qui dicitur Sanctus Sebastianus de Navarre, et ad introitum illius portus est magna turris lapidea. Deinde est insula que dicitur insula de Catharie, et est ibi bonus portus et profundus, et predicta insula debet dimitti a dextris intrantium. Deinde est aqua de Castre que dividit terram regis Navarre a terra regis Castelle, sed non est ibi portus nec anchoratio”⁸³.

Gehienak toponimo aski ezagunak gerta dakizkigukete⁸⁴, eta horien artean, XIII. mendea baino lehenagoko testigantza izaki, Hondarribia eta Getariaren aipamenak oso azpimarratzekoak dira, hiribildu titulua eskuratu aurretiko bizitza islatzen baitute⁸⁵. Alabaina, zerrenda horretan ikusten ditugun leku-izenak elementu geografiko batzuei lotuak agertzen dira, ez maila juridiko bati; portuak eta mendiak azaltzen zaizkigu lurraldetasunaren erreferentzia gisa, ez “hiribilduak”⁸⁶. Ondorioz, eta ordurako Donostiak maila

83. RUIZ ARZALLUZ, I.: “De Oiasso a Huarcha...”, aip. lan., 508 orr.

84. Korapilotsuena Mundaka bizkaitarrera horrenbeste hurbiltzen den “Mundacie” mendia genuke. Inolako aurreiritzirik sortu gabe, “Mundanatz” abizena Iparraldeko onomastikan aurki dezakegu, 1297 urtean, baina lotura ahula delakoan gaude. Ald. GOYHENECHÉ, E.: *Onomastique du Nord du Pays Basque (XI^e-XV^e siècles)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2011, 76 eta 568 orr.

85. Halaber, XIII. mendea baino lehenagoko dokumentazioan ageri ez diren toponimoak dira, Donostiako forua kenduta. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G., aip. lan. eta BARRENA OSORO, E., aip. lan. Horrek, hein batean, Soledad Tenak defendatzen zuen tesiari leku egin liezaioke: Hondarribiari errege nafarrek forua eman ziotela, alegia. Iñigo Ruizek Getariaren aipamenak dakarren berrikuntza azpimarratzen badu ere, akats bat izan zitekeenaren hipotesizat darabil, agian Deba irakurri beharko litzatekeelarik (ikus RUIZ ARZALLUZ, I.: “Vasconia en el siglo XII...”, aip. lan., 708 orr.). Alabaina, Getaria errege nafarrek fundatu zutela aintzat hartuta, eta XIII. mendetik XV. mende hasiera arte kostalde gipuzkoarrean izango duen garrantzia ikusita, guretzako, Hoveden-en aipamena, gaskoiek hasiera batean eman zioten bulzadaren adierazle litzateke.

86. Ezta ibaiak ere. Gogora dezagun Antso Handiari 1027 urtean egotzen zitzaion dokumentuaren faltsutzeak, 1186-1193 urte inguruan egindakoak, Iruñeako gotzain-barrutiaren mugak San Adriandik “*usque ad flumen quod dicitur Bidasso*” aipatzen zuela (BARRENA OSORO, E., aip. lan., 435 orr.).

hori zuela aintzat hartuta baina modu horretan aipamenik egiten ez zionez, ezin dugu modu irmoan baieztatu Getariak eta Hondarribiak hiri-gutuna eskuratua izango zutenik. Bestetik, Bidasoa ibaia ez du aipatzen, ezta kartografia historikoan horren ohikoa izango den Higer ere.

Leku-izenek oso hausnarketa interesgarria ekarri dute adituen aldetik, toponimoek Hoveden-en lanean hartzen duten aldaera ez baita euskalduna. Hori dela eta, ikertzaileek, egile ingelesak euskal kostaldeaz mintzatzerako garaian izan zuen iturria kanpotarra zela uste dute; Baiona inguruko gaskoiek emandako informazioetan oinarritu zelakoan daude, ez euskaldunek beraiek emandakoetan⁸⁷. Horren lekuko ustezko “Oartzun” bera genuke, “Huartz” forma gaskoia omen baita. Howeden-en informatzaileak gaskoiak balira, bere lanak XII. mende amaieran Gipuzkoako kostaldearekiko zuten ikuspegia emango liguke. Honela, gaskoiek erreferentziatzen zituzten puntuak “Huarche” portua, “Funtrabi” mendia eta bi portu —“Nafarroako Donostia” eta Getaria izeneko “irla”— lirateke; aldaketak aldaketa, XV. mende hasiera arteko kartografia historikoan gehien errepikatzen diren puntuak, hain zuzen ere⁸⁸. Getariaren aipamen horrek, gainera, bere sorreran gaskoiek izan zuten eraginaren hipotesia berriz irekiko luke.

Hoveden-en toponimoaren atzetik zer zegoen alde batera utzita, Oartzun eta Baionaren arteko harremanak XIV. mende hasierako dokumentu batean islatzen dira. 1318an, Bailarari hiri-gutuna eta hainbat mesede berresten zitzaizkion agirian, ordura arte hiribildua populatzeko arazoak

87. Hipotesi hau defendatzen lehena José Antonio MUNITA LOINAZ dugu (aip. lan., 91-94). Berriki, Iñigo RUIZ ARZALLUZ-ek, aipatu ditugun bere bi artikuluetan, ideia berdina babestu du (ikus, adibidez, “De *Oiasso* a *Huarca*...”, aip. lan., 516-517 orr.). Aldiz, Aitziber LEKUONA-k (aip. lan., 166-167), baieztapenak egin baino, galderak planteatzen ditu.

88. Bestalde, Iñigo Ruizek “Huarche” toponimoa Irunekin mailakatzeak, Oartzun Bailararen egungo azalera handituko luke, Oartzun ibaitik Bidasoara arteko esparrua hartuz. Horri Baionak inguruetan izan zuen eragina gehituz gero, pentsa daiteke zenbait denboran Bailarak eremu zabalagoa hartuko lukeela, egungo muga administratiboak gaudituz, Pasaia tik abiatuta agian Urruñaraino iritsiz. Gerora, inguru horretako komunitateen bilakaerarekin, eliza-sarearen garapenarekin eta, bereziki, hiribilduen sorrerarekin, zatiketa hori areagotuko zen. Oartzungo bailarak XI-XII. mendeetan izandako garapenerako, ikus BARRENA OSORO, E., aip. lan., 157-162 eta 196 eta hh. orr. Egile batzuek, aldiz, Hondarribiko hiri-gutunak Oartzunen mugak errespetatu zituela uste dute. Ikus MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan., 94-95 orr.

Gizaldi askotan atzera egitea bada ere, ez da ahaztu behar “ager” eta “saltus” kontzeptuen inguruan historiografiaren alde batek mantentzen duen hipotesia. Horren arabera, bi eremuen azalpenerako eman diren ohiko oinarri geokononikoak zalantzan jartzen dira, eta berriki Mertxe Urteagak hipotesi hori erabili du *Oiasso* eta *Vasconum Saltus*-aren arteko lotura adierazteko (URTEAGA, M.: “El *Vasconum saltus* y *Oiasso*”. In: *Boletín Arkeolan*, 15 (2008), 171-184 orr.). Hainbat ideia badarabilzki ere, haren ustetan, *Saltus*-ak eremu geografiko bat osatuko luke, Kantauri itsasertzean, *Oiasso* tontorraren eta Pirinioen artean kokatua eta meatzaritzari estuki lotua. Ondorioz, baliteke gerora ere, mendeek aurrera egin ahala, “Huartz/Oartzun” toponimoak aipatu dugun esanahi zabala hartzea.

agerian uzten dira. Agidanez, eskualdeko giroa ez zen bat ere lasaia, tar-tean bertako aitonsemeek burututako gehiegikeriak medio. Egoera honen ondorioz biztanleek inguruetatik alde egin eta beste leku batzuetara joatetari ekin omen zioten, besteak beste Baiona eta Nafarroara⁸⁹. Iparraldeko hiriaren aipamen honek ordurako nolabaiteko loturak zeudela isla dezake, hainbat faktorek bultzatuta: esparru erlijiosoak, batetik, eta Lapurdiko inguru hartatik Hondarribian eta Donostian ezarri ziren sendiekin uztartutako harremanak, bestetik⁹⁰. Horren lekuko, artikulua hasieran eskribauen formakuntzaz jardun ditugunak gogoratu behar ditugu. Esparru horretan Baiona eta Oarsoaldeko harremanen inguruko datuak daude: 1462ko uztailean, Bartolome Zuloagakoa erreteriarra Baionako elizbarrutiko eskribau eta notario publiko izendatua izan zen⁹¹. Nahiz eta adibide berantiarra izan, ez dugu zalantzarik aurreko hamarkada eta mendeetan ere halakorik gerta zitekeenik eta modu honetan oiartzuarrek beraien seme batzuk, bereziki eliza-mundura bideratutakoak, Baionara ikastera bidaliko lituzkete.

Bailara Baionaren eskumen erlijiosoan goizetik egonik, pentsatzekoa da gozainek eta bere egitura administratiboak dokumentu gehienak latinez idatziko zituztela. Baina Behe Erdi Aroan sartu ahala, XIII. mendetik aurrera, ezin da baztertu erromantzez sortutako hainbat agiri ere idaztea, gaskoiez, alegia⁹². Horrela, Oiartzunek hizkuntza horrekiko ezagupen edo ohikotasun bat izan zuela adieraziko luke, administrazioan erabiltzen zen mintzaira bai-

89. CRESPO RICO, M. A., CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 2. dok.: “*E agora que ay algunos fijosdalgo d’essa tierra que recaubdan los derechos que Yo y he, que los prendan por los dise seys maravedis sobredichos, e les pasan contra las cartas que ellos tienen (...) que se despuebla esse mi logar, e van beber a Bayona e a Navarra e a otras partes*”. Halaber, 1340an Erreteriarako biztanle eta auzoek bi leku horietako gehiegikeri, lapurreta eta erailetak pairatzen zituztela aipatzen zen (*ibidem*, 5. dok.).

90. Ald. LEKUONA, M.: *Del Oyarzun Antiguo (monografía histórica)*. Gasteiz: Gráficas ESTE-Seminario Vitoria, [1978], 25-26 orr., zeinak Lapurdiren eragina Lezoko Done Bikendi edo Bixintxo martiriaren ospakizuna ere gehitzen dio, zeinera inguruko eta Bidasoaz bestaldeko jendea ere hurbiltzen zen.

91. CRESPO RICO, M. A., CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 47. dok. Ald. *ibidem*, 45 dok. Horrez gain, XVI. mende hasieran “*mosen Pes de Larrenderie*” Baionako kalonje bezala aipatu da, baina ez dakigu Erreteriarako mosen Pedro Irizar-koari erreferentzia den ala ez. Ald. *Archives Municipales de Bayonne. Registres gascons. Délibérations du Corps de ville. Tome II (1514-1530)*. Baiona: Imprimerie A. Lamaignère, 1898, 314 dok., 111 orr. eta bereziki 615 orr., non Erreteriarakotzat duten.

92. Ald. BIDACHE, J.: *Le Livre D’Or de Bayonne. Textes Latins et Gascons du X^e au XIV^e siècle*. Pau: Chez Tous les libraires, 1906, (berrargitalpena: Kessinger Publishing, s. l., 2010), LIV. dok., 103-105 orr. eta RUIZ DE LOIZAGA, S., aip. lan., bereziki 20. dok., 80-82 orr. Lehenengoaren kasuan, gaskoiezko lehenengo dokumentua 1130kotzat jotzen da, baina beranduagokoa dela uste dugu, gutxienez 1167koa. Bertan adierazitakoaren

tzen. Modu honetan, Oiartzungo elizgizon, eliza-kabildo edo bestelako erakundeek gaskoiez sortutako dokumentuen berri izango zuten⁹³.

Jorratzen ari garen agiria gaskoiez idatzita egotea, beraz, ez luke esan nahi bertan gaskoi komunitate sendo bat legokeenik; dokumentuak latinez edo gaztelaniaz idazteak gaztelania edo latin hiztun petoez sortutako komunitate bat zegoela islatzen ez duen moduan. Gainera, aintzat hartu behar dugu 1316ko eskribaua ez zela oiartzuarra, donostiarra baizik, eta gaskoiez idazteko nolabaiteko joera zuena.

Ildo honetatik, mugatik urruti gelditzen den lurralde batera egin behar diogu so, Asturias hain zuzen ere. Izan ere, okzitaniara ez ezik, gaskoiaren erabilera bertan dokumentatua dugu. XII eta XIII. mendeetako dokumentazioak (tartean, Avileseko 1155eko foru ezagunak) ematen dituen zantzuak alde batera utzita⁹⁴, 1327ko abuztuko idatzi bat dugu lekukorik argiena.

...

arabera, 1126-1137 urteetan Baionako gotzain aritu zen Arnaut Lope Besabat-ekoak Baztango jaun Pedro Fortun eta bere seme Pedro Pedritz eskumikatu zituen, egoera horretan 30 urte baino gehiago eman zituztelarik.

Hegoaldeko elizetarako latinez sortutako dokumentazioaren inguruan, ald. GPAH-AHPG, 3/0335, 5. foliazioa, 40 au., non, 1569 urtean, on Juan Perez Ugartekoa notario apostolikoak 1437ko latinezko dokumentu baten kopia eskuetsia egiten duen. Ald. Oiartzungo UA, B-1-1-1, 52 at. (jatorrizko foliazioa), non, 1580 inguruko artxioboaren inbentarioan, honakoa azaltzen den: “*Yten, el título de la fabricación de la Madalena scripta en pergamino, dada por el hordinario de Bayona en latín, con otro pergamino pequeño dentro en ella*”.

93. Ald. baita ere, Iparraldeko Erdi Aroko ohitura administratiboei dagokionez, CIERBIDE, R.; eta SANTANO, J.: *Colección diplomática de documentos gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XVI)*. Archivo General de Navarra. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990 eta 1995 (2 liburuki), egiten den sarrera, Mikel Zalbideri eskerrak eman nahi dizkiogu, ildo honi lotuta emandako ideia eta iradokizunengatik.

94. Ikuspegi orokor baterako, ikus FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, J. R.: “La presencia de francos en la Península Ibérica y su influjo lingüístico”. In: LAFARGA, Fco.; eta DONAIRE FERNÁNDEZ, M.^a L.: *Traducción y adaptación cultural: España-Francia*. Oviedo: Universidad de Oviedo, 1991, 460-461 orr. (453-468); PFISTER, M.: “Les éléments provençaux dans les documents asturiens des XIIe et XIIIe siècles”. In: *Lletres Asturianas*, 41 (1982), 7-19 orr.; FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, J. R.: “Asturiano y provençal en el documento 146, de 1261, del archivo del monasterio de San Pelayo de Oviedo (aspectos fonéticos)”. In: *Homenaje al profesor Luis Rubio (I)*. Estudios románicos, 4 (1987-1989) 333-346 orr.; FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, J. R.: “Notas morfológicas a un documento gascón de la catedral de Oviedo (1327)”. In: *Homenaje a Alonso Zamora Vicente. Historia de la Lengua. El español contemporáneo*. Madrid: Castalia, 1988, I. liburukia, 81-100 orr.; eta, kontsultatu ezin izan dugun FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, J. R.: “Un documento gascón en la catedral de Oviedo (edición del texto, traducción y glosario)”. In: *Mélanges de Philologie Romane offerts à Charls Camproux*. Montpellier: CEO-Université Paul Valéry, 1978, II. liburukia, 553-572 orr. Ald. RUIZ DE LA PEÑA, J. I.: “Las peregrinaciones a Santiago de Compostela, cauce de transformaciones sociales y reactivación económica en la Edad Media peninsular”. In: *Cuadernos del CEMYR*, 6 (1998), 13-26 orr.

...

Agiria elebiduna da, gaskoia eta latina nahasten baititu, baina ohar batzuk egitea komeni da.

Gaskoiez dagoen testua 1327ko ekainaren 24an, Baionan, bertako notario publiko zen Arnaud Arrupekoak idatzi zuen; testuinguruak, beraz, mintzaira horren agerpena primeran azaltzen du. Bertan esandakoen arabera, Baionako komentuko hainbat kidek, Sabinako gotzain zen on Gilhen-en ahalordedun moduan eta bere izenean jarduten zirelarik, Oviedoko gotzain Otonen aldeko ordainketa-gutuna eman zuten; modu honetan, horren aurreko apezpikuak Sabinako gotzainarekin hartutako zorra kitatzen zen. Dokumentua Baionan emateko arrazoia Sabinako apezpikuaren erabakiekin zerikusi zuzena du: azken horrek, Aviñonen eta urriaren 1325ean latinez idatzitako agiri baten bidez, zor hori Odonek ordaindu behar ziola adierazten zuen, bildutako sosak Baionako komentuk gordeko zituelarik. Ordainketa 1327ko ekainean egin zen eta txanponak eman zituen Oviedoko auzo Gonsalbo Anton dendaria izan zen, bere hiriko gotzainaren izenean.

Ingurumari horretan Iparraldeko hizkuntzan idatzitako testuak zer zioen aditzera eman behar zuen norbaitek, Oviedon mintzaira hori ezezaguna baitzen, ordurako behintzat. Horretarako, 1327ko abuztuaren 7an, Otonen eta eliza-kapituluaurrean, Oviedoko elizako notario Lupi Fernandik eta Baionako elizbarrutiko notario Santxo Arnaldi Dalotus elizgizonak guztia- ren berri eman zuten; gure ustetan, azken hori izango zen gaskoiez idatzitakoaren berri emango zukeena, ziurrenik (erlijio kutsua zerion ingurumari batean) latinez azalduz⁹⁵.

Alabaina, dokumentua ondo aztertu ondoren, gauzek ez dute hasieran ematen dutenaren itxurarik, gaskoiez dagoen testua txertaketa bat baita; hau da, Oviedon burutzen den eta latin hutsean idatzita dagoen agirian sartutako kopia bat. Ondorioz, ez du Asturiasen gaskoiak izan zuen erabilerarekin

...

Datu hauekin guztiekin batera, ezin dugu ahaztu Oviedon dagoen “Gaskoi Kale” izeneko kalea, nahiko adierazgarria dena (eta Orellak ere aintzat hartzen duena; ikus ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan. 181 orr.). Dena den, Behe Erdi Aroan bertako biztanle gehienak elizgizonak zirela ematen du. Ald. ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, M.^a; GONZÁLEZ GONZÁLEZ, R.: “Espacio urbano y sociedad en el Oviedo bajomedieval: Una propuesta metodológica”. In: *Edad Media*, 16 (2015), 149-174. Eskerrak eman nahi dizkiogu María Álvarez Fernández doktoreari datua helarazteagatik.

95. Ikus FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, J. R.: “Notas morfológicas a un documento gascón de la catedral de Oviedo (1327)”. In: *Homenaje a Alonso Zamora Vicente, I.: Historia de La Lengua. El español contemporáneo*. Madril: Castalia, 1988, 1.º liburua, 81-101 orr. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Historian doktore eta Oviedoko Unibertsitateko irakasle Álvaro Solano Fernández-Sordori, artikulu hau helarazteagatik.

loturarik⁹⁶. Edonola ere, Oviedoko dokumentuak errealitate interesgarria argi uzten du. Batetik, ordurako Baionako ohitura administratiboan zein zen; bestetik, hizkuntza edozein zelarik ere, agirik balio juridikoa beraien horretan mantentzen zutela. Ikuspegi administratibo zibiletik ezin da ahaztu Baionako udalbatzak bere aktetan gaskoia XVI. mende erdialdera arte erabili zuela eta Erdi Aroan, Ipar eta Hego Euskal Herriko itsas-hiribilduen arteko komunikazio idatzia, hainbatetan gaskoiez egin zuela, besteak beste bietan ezarritako kutsu bereko komunitateak bultzatuta⁹⁷. XII. mende hasieratik gutxienez gaskoiek kostalde gipuzkoarreko hainbat puntutan izan zuten finkatze prozesuaz gain, Okzitaniak bere ondoan edo bertatik gertu zeuden lurraldeetan hizkuntza erromantzeen erabilerarako izan zuen eragina gehitu behar zaio⁹⁸. Horrek guztiak gure dokumentuarekiko bi mendeko lotura edo eragin bat ekarriko luke, idatzizko hizkuntza bezala oraindik ere XIV. mende hasieran gaskoia izateko.

c) Nafarroa

Oiartzungo dokumentuan hizkuntzaren matazak osatzen duen hirugarren hari-muturra Nafarroa da. Hipotesi honen oinarrian, gaskoiaren senide den okzitaniarrek bertako administrazioan izan zuen erabilera legoke. Dagoeneko Erresuma Zaharrak Behe Erdi Aroan bizitako egoera eleanitza hainbat aldiz azpimarratua izan da. Donostian, Hondarribian edo Baionan gaskoiak izan zezakeen lekuaz aparte, Nafarroan eman zen ohitura administratiboak, herriaren gehiengoari arrotza gerta ziezaiokeen hizkuntza batzuetara eramango gintuzke; nafar erromantzera eta, bereziki, okzitaniarara. Modu honetan, Oiartzungoa bezalako euskaldun ia elebakarra zen komunitate batek ez zuen eragozpenik jarriko era batera zein bestera arrotza izango zitzaion mintzaira batean kontuak idatziz adierazteko hautua, izan latina,

96. Max PFISTER-ek ondo adierazi bezala (aip. lan., 8 orr.): “*Ce text intéressant la philologie gasconne n’apporte rien à notre problème de l’influence linguistique des Francs dans les Asturies des XIIe et XIIIe siècles. Tout au plus il prouve qu’au premier tiers du XIVe siècle le gascon était compris par l’évêque et par le chapitre des ecclésiastiques*”; baina, gure uste apalean, ezta hori ere.

97. Ikus MADARIAGA ORBEA, J., aip. lan., 679 orr. Argitaratutako dokumentazioaren aldetik, BIDACHE, J., aip. lan.; *Archives Municipales de Bayonne. Registres gascons...*, Tome I, aip. lan.; *Archives Municipales de Bayonne. Registres gascons...*, Tome II, aip. lan., eta *Archives Municipales de Bayonne. Livre des Établissements...*, aip. lan., bereziki XXVIII orr.

98. “...en la península Ibérica los territorios vecinos al sur de Francia o aquellos centros de producción escrita con contacto intenso con el mundo occitánico lideraron la innovación cultural (erromantzez idaztearena)”. Ikus FERNÁNDEZ-ORDÓÑEZ, I.: “La lengua de los documentos del rey: Del latín a las lenguas vernáculas en las cancillerías regias de la Península Ibérica”. In: MARTÍNEZ SOPENA, P.; eta RODRÍGUEZ, A.: *La construcción medieval de la memoria regia*. Valentzia: Universitat de València, 2011, 327 orr. (323-362).

gaztelania, gaskoia edo erromantze nafarra⁹⁹. Halaber, Ugarte leinuaren eta Nafarroako monarkiaren XIV. mende erdialderako harreman estua ere hor dugu eta, beraz, Bailarako ahaide nagusi horiek izango zuten Nafarroako administrazioak zerabilzkien mintzairen berri; beraiek eta baita basailutzalotura horiek zituzten bestelako leinu gipuzkoarrek ere¹⁰⁰.

Ildo nafar honetatik 1245eko dokumentu bati lekua egiteko ueña dugu honakoa, Hondarribiko udalbatzak gizon-emakume nafarrei zuzendutakoa. Aztertzen ditugun gaskoiez dauden bi agiriekin jazo bezala, oraingoan ere jatorrizko testua kontserbatu denik ez dirudi, desberdintasun kronologiko nabarmen batekin: ditugun testuak Nafarroako administrazioaren bildumatan gordetzen diren bi kopia dira, baina ezaugarriak eta ingurumari dokumentala aintzat hartuta, jatorrizko agiria sortu zen garaitik gertu burutu ziren idatziak ditugu¹⁰¹.

99. Hau bereziki agerikoa da kolore, dekorazio edo zigilua bezalako elementu adierazgarriak dituzten agirietan, hiri-gutunak, kasu. Ald. BARRENA OSORO, E.: “La Carta Puebla de Zumaia: la sociedad que trasluce el texto”. In: HH. EE.: *Zumaia, 650 urte. Hitzaldiak / Conferencias*. Zumaia: Zumaiaiko Udala, 1999, 13-14 orr. (11-31).

100. Leinuaren eta Nafarroako monarkiaren inguruko harremanetarako, ikus FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A.: “La participación de la nobleza guipuzcoana en la renta feudal centralizada: Vasallos y mercenarios al servicio de los reyes de Navarra (1350-1433)”. In: DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*. Bilbo: EHU-UPV, 1998, 261-321 eta HH. EE.: *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*. Donostia: GFA, 2000.

101. Bi kartulario edo agiri-bildumatan gordetzen dira, III eta IV. etan, hain zuzen ere. Lehenengoari dagokionez, badirudi 1253 ondoren burutu zela; bigarren kartularioa, aldiz, 1248 baino beranduago sortu zen. Edonola ere, idazkera motagatik (karolina, gotikoa gailentzen ari zen ulean), sortu ziren garaitik ez oso urruti egindako kopiak lirateke. Eskerrak eman nahi dizkiogu Peio Monteanori, horren inguruan azalpenak emateagatik.

Hirugarren kartularioari dagokionez, García Arancón-ek 1236-1237 urte bitartean egin zela dio, bere azkeneko folioak XIII. mendearen bigarren erdialdean egindako 1253 bi dokumenturen kopiak dituelarik. Ikus GARCÍA ARANCÓN, R.: *Archivo General de Navarra (1253-1274). Comptos y cartularios*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996, eta IDOATE, Fl.: *Catálogo de los Cartularios Reales del Archivo General de Navarra. Años 1007-1384*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1974, 210 orr., 414 dok., zeinak dagoeneko erromantzez dagoela dioen. Edonola ere, Kartulario edo gutun-bilduma horietan ere izaten dira kopia bereziak, jatorrizko dokumentuetako hainbat kontu errespetatzen ez dituztenak edo ezohikoak gerta daitezkeenak: horien artean, ustez Gartzia Ramiritzek 1142an emandako diploma bat (ald. LOPETEGUI SEMPERENA, G.; eta PESCADOR MEDRANO, A.: *Archivo General de Navarra (1134-1194)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997). Baina, bestalde, baditugu kontrakoa adierazten diguten idatziak. Hala, Comptos Ganberan dagoen 1256ko dokumentu batean, Gaztelako Alfontso X.ak Nafarroako Tibalt erregeari Donostia eta Hondarribia ematen zizkion, nola eta gaztelaniaz. Ondorioz, horrek ere Hondarribiak sortutako jatorrizkoa nafar-erromantzez zegoenaren ideia berretsiko luke. 1256 dokumenturako, aipatutako Serapio Mugicaren artikuluz gain, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 19. dok.

Hondarribiko udalbatzak sortutako agiri hori Nafarroako errege-administrazioaren baitan azaltzearen zergatia ez da argitzen zaila. Batetik, idatziaren ildo nagusia Nafarroa eta Gaztelaren arteko su-etenaren zelako eta bestetik, Erresuma Zaharreko menekoei zuzendua zegoelako. Beste modu batera esanda, erresuma bera inplikaturik zegoen kontua zen. Deigarriena, beste behin ere, hizkuntzaren kontua dugu. Dokumentua ez dago gaztelaniaz edo gaskoiez idatzita, nafar erromantzez baizik¹⁰²:

“In Dei nomine. Nos el preuost, los jurados et todo el concello* de Fontarrabia, facemos* a ssaber a quantos estas letras ueran. Que nos, a bona fe, recebimos* en nuestra comienda et en nuestra deffension, quanto la treguoas* de los reies* duraren [sic], los ommes* et las femnas* et todas cosas del* regno de Nauarra, quanto nuestro poder se estiende, eillos pagando en nuestra villa

...

Hondarribiko dokumentuari lotutako hirugarren kopia Historiaren Errege Akademian dugu, Madrilen, bertako Salazar y Castro funtsean. Azken honi dagokionez, hainbat ohar egin behar ditugu, bereziki katalogoan agertzen den laburpenak islatzen dituen zenbait daturen ondotik. Horren arabera (*Catálogo de la Colección Salazar y Castro*. Madril: RAH, 2016, 10.807 orr.), dokumentua honakoa genuke: “Nafarroarekin merkatal-harremanak bermatzeko asmoz Hondarribiko lekuak Tibalt I.aren babespean jartzeko adostutako baldintzak, Nafarroako Tibalt I.aren eta Gaztelako Fernando III.ak hitzartutako su-etenak iraun bitartean” (“*Condiciones por las que el lugar de Fuenterrabía se ponía bajo la protección del rey de Navarra, Teobaldo I, para asegurar el comercio de este reino, por el tiempo que durasen las treguas de dicho rey con el de Castilla, Fernando III el Santo, su señor*”). Dakigunez, Hondarribia da nafar-menekoak bere babespean hartzen dituenak. Adierazgarriagoa da, ordea, beste ohar bat: katalogoaren arabera, dokumentuaren latinezko kopia baten aurrean gaude, baina agiri-erara joz, hitzez hitzezko kopia baten aurrean gaudela ikusiko dugu, hau da, nafar erromantzez idatzitakoa. Eskuineko alboan dagoen oharren arabera, kopiaren egilea Gil Ramírez de Arellano (1555-1618) izan zen, Gaztelako, Gurutzadaren, Inkisizioaren eta Ganberako kontseilari izandakoa. RAH-n dagoen kopia, beraz, XVI. mende amaieran edo XVII. mende hasieran egindakoa genuke. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Historiaren Errege Akademiari eta bere liburutegiko arduradunari, dokumentua kontsultatzeko emandako erraztasunengatik. Arellanoren inguruan, ikus <http://dbe.rah.es/biografias/36224/gil-ramirez-de-arellano>.

Dokumentuari buruz, ald. MÚGICA, S.: “Relaciones de Fuenterrabía con Navarra en el siglo XIII”. In: *Euskalerrriaren Alde*, VII (1917), 56 orr. (55-57), zeinak hasierako zatia gaztelaniaz ematen zuen. Izan ere, Mugicak beraz adierazten zuenez, transkribaketa eguneratua burutu zuen, baina ez zuen hizkuntzaren inguruan inolako oharrik egin. Zati hori bera, eta gaztelaniaz, honako lanean dakusagu: ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Régimen municipal...”, aip. lan.

102. Dakigunez (eta oker egon gaitzeko), inork ez du testu hau esparru linguistikotik ikertu. Gaia guztiz arrotza zaigun kontua izaki, alboratu egingo dugu, baina hainbat idazkera (“-eill- / -uill”, “dreito”, “feitor”, “ho”, “issir”, “deissar” edota “eillos”, “nuill”, “malfeitor”, “dreito”, “quereillantes”, “testimoniedat”) eta bestelako hitzak oso adierazgarriak direla uste dugu. Hondarribiko testuaren garaian nafar erromantzeak zituen ezaugarrietarako, ikus PÉREZ-SALAZAR RESANO, C.: “Aportación al estudio gráfico y fonético del romance navarro - Primer tercio del siglo XIII”. In: *Príncipe de Viana*, LIII (1992), 751-797 orr. eta egile beraren “Rasgos morfosintácticos y léxicos del romance navarro (primer tercio del siglo XIII)”. In: *Príncipe de Viana*, LIV (1993), 111-184 orr.

las costumpnes que hi pagar deuen. Ni deuemos recibir* en nuestra villa ni en poder d'eilla nuill malfeitor de Nauarra ni roberia que hi faga, si non fuere por mandamiento de nuestro seynnor el rei* de Casteilla, ho d'aqueil qui terria la uilla por honor. Et si por uentura ribare hi el malfeitor ho la robaria, somos tenidos de cumplir dreito a los quereillantes qui uerran todas las ueçes que el malfeitor ho la roberia sea en poder de nuestra villa, ni deuemos deissar issir la roberia de nuestra villa, demientre alguno fuere quereillante.

E que testimoniedat con el sayello* de nuestro concello saieillamos esta present carta.

Data en Fonte Arrabie, die sabbati prima* post octabas Resurrectionis Domini, anno eiusdem millessimo ducentessimo quadragésimo quinto**¹⁰³.

Esan bezala, Nafarroako erresumaren mundu idatziak errealitate eleantiz sakon bat ezagutu zuen¹⁰⁴. Horrek, ezinbestean, erromantze ezberdinek penintsulan izan zuten agerraldiaz edo ekoizpen dokumentalaz esan direnak aintzat hartzera garamatza¹⁰⁵. Guretzako guztiz arrotza da eta ez gara

103. Salazar y Castro bilduman gordetzen den kopiak hainbat ezberdintasun aurkezten ditu Nafarroako Agiritegi Nagusiko kopiekin alderatuta. Hori dela eta, eta jarri ditugun izarñoen (*) hurrenkera aintzat hartuta, Salazar y Castrokoak honako desberdintasunak litzuzke: “conçello”, “façemos”, “reçebimos”, “tregoa”, “reyes”, “omes”, “femas”, “de el”, “reçebir”, “rey”, “saiello”, “próxima” eta urtea, “M^o CCXLV”.

104. 1970ean, Fernando GONZÁLEZ OLLÉ-k “El Romance Navarro” (*Revista de Filología Española*, 53, 45-93 orr.) artikulua atera zuenetik, gaiak sakontasun nabarmena jaso du, bai egile horren beraren eskutik zein beste batzuen ekimenei esker (ald. TABERNERO, C.: “Tradición y actualidad en los estudios lingüísticos sobre Navarra”. In: *Archivo de Filología Aragonesa*, 68 (2012), 185-212 orr.). Ikuspegi orokor baterako, CIERBIDE, “Euskal Herria: Lugar de encuentro de lenguas y culturas”, aip. lan., bereziki, 102 orr. eta hh. Ald. CIERBIDE, R.: “Encuesta cuatrilíngüe de 1249 y el occitano en la cancellería de Navarra”. In: *Príncipe de Viana*, 58 (1997), 521-555 orr., non, hainbat dokumentuk gaskoia eta nafar erromantzea edo gaskoia eta frantsesa tartekatzen dituzten.

105. Hizkuntza erromantzeek Erdi Aroan izan duten erabilerrari buruz bibliografia benetan zabala da. Ikuspegi orokor baterako, FERNÁNDEZ-ORDÓÑEZ, I., aip. lan. Galegoari buruz, ikus BOULLÓN AGRELO, A. I.: *Na Nosa Lyngoage Galega. A emerxencia do galego como lingua escrita na Idade Media*. Santiago de Compostela: Consello da Cultura Galega-Instituto da Lingua Galega, 2007, eta MARIÑO PAZ, R.; eta VARELA BARREIRO, X. (arg.): *A lingua galega no solpor medieval*. Santiago de Compostela: Consello da Cultura Galega, 2016, non beste erromantzeei buruzko aipamenak ere egiten diren. Asturierari buruz, VIEJO FERNÁNDEZ, X.: “El Fuero de Avilés: lingüística histórica y metalingüística medieval asturiana”. In: RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I.; SANZ FUENTES, M.^a J.; eta CALLEJA PUERTA, M. (koord.), aip. lan.; VIEJO FERNÁNDEZ, X.: “El asturiano en el tránsito de la Edad Media a la Moderna (siglos XIV-XVII): entre el retroceso y la toma de conciencia lingüística”. In: MARIÑO PAZ, R.; eta VARELA BARREIRO, X. (arg.), aip. lan., 67-94 orr. Gaztelar erromantzearen inguruan ere, ekoizpena amaigabea da. Erromantze gaztelarrez sortutako lehen dokumentuen inguruan, E. Gross izan da azken urteetan hainbat lan burutu dituena. Ikus, besteak beste, bere “Documentación romanizadora del idioma español: último tercio del siglo XII hasta el año 1200”. In: *BRAH*, 201 (2004), 161-176; El fuero de Castrotorafe (1129): Transición a la

ataka horretan sartuko, baina esan direnen ildotik bada aditzera eman nahi dugun ideia bat. XIII. mendeak finkatze garaia osatu bazuen ere, hizkuntza erromantzeen erabilera XII. mendean ematen hasi zen eta prozesu horretan, egile batzuek Nafarroako erresumari eman diote protagonismo nagusia. Izan ere, Iberiar Penintsulako erreinetako kantzilertzen artean, harena jarri dute erromantzearen erabilerean aitzindari bezala, lehenengo testuak XII. mende amaieran ekoiztu zirelarik¹⁰⁶.

Oker ez bagaude, Hondarribiko agiri hau, Gipuzkoan edo bertako giza-taldeek, dela norbanakoek, dela erakundeek (berdin publiko zein erlijiosoek) sortutako dokumentuen artean, nafar erromantzez idatzita dagoen

...

documentación romanizadora. In: BRAH, 195 (1998), 221-230 orr.; “Documentación romanizadora del idioma español hasta el último tercio del siglo XII (1129-1162)”. In: BRAH, 200 (2003), 55-68 orr.; “Carta de homenaje por el castillo de Alcózar: Primer documento en romance castellano en prosa sin latinismos (1154-1155)”. In: BRAH, 194 (1997), 489-522 orr.

106. Ikus FERNÁNDEZ-ORDÓÑEZ, I., aip. lan., 334-342 eta 348-354 orr., bereziki 342 orrialdean dagoen taula. Antso VI eta VII.ak sortutako dokumentuei Iruñeako kofradia batek sortutako dokumentu bat gehi diezaiokegu. Adituren batek 1180 urtea baino lehenagokotzat jo izan du, baina zalantza handiak daude horren inguruan, eta ideia nagusia XIV. mendean kokatzea da (besteak beste, ez da Comptos-eko bilduman transkribatu). Ald. GROSS, E.: “Carta de la ‘Cofradía en Honor de Jesús y la Virgen, San Andrés, San Bartolomé y Santiago’ establecida en Pamplona”. In: BRAH, 190 (1993), 355-364 orr., eta berari jarraituz, ORELLA UNZUÉ, J. L.: *Historia de Euskal Herria. Tomo I: Los Vascos de Ayer*. Tafalla: Txalaparta, 1996, 175-179 orr. Eskerrak eman nahi dizkiogu Peio Monteanori “1180” urteko dokumentuaren inguruan emandako azalpenengatik.

Erromantze nafarraren testuinguru soziopolitikorako, CIERBIDE, R.: *Primeros documentos navarros en romance (1198-1230). Comentario lingüístico*. Iruñea: Príncipe de Viana, 1972; CIERBIDE, R.: “En torno a la problemática lingüística en la Navarra medieval: el romance navarro”. In: FLV, 12 (1980), 400 orr. (395-402); GONZÁLEZ OLLE, F.: “Reconocimiento del romance navarro bajo Carlos II (1350)”. In: *Príncipe de Viana*, 182 (1987), 705-710 orr.; PÉREZ-SALAZAR RESANO, C., aip. lan.

Hondarribiko dokumentuak beste esparru bati bidea irekiko lioke: Nafarroaz haratago gaur egungo EAeko probintzietan berezko erromantze bat sortzen joan zen ala ez aztertzeari, hain zuzen ere. Ildo horretatik burutu diren ikerkuntzek ezezkoa eman diote. Ikus LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, A.: “Las variedades lingüísticas en el País Vasco: Romance y vasco en la Edad Media”. In: ARIZA VIGURA, M. (koord.): *Actas del II Congreso Internacional de Historia de la Lengua española*. Madril: Pabellón de España, 1992, 2. liburukia, 1001-1006; IDEM: “El romance primitivo en el País Vasco: fuentes documentales y aproximación filológica”. In: GIRÓN ALCONCHEL, J. L.; eta DE BUSTOS TOVAR, J. J.: *Actas del VI Congreso Internacional de Historia de la Lengua española: Madrid, 29 de septiembre-3 octubre 2003*. Madril: Arco Libros, 2006, III. liburukia, 3013-3020 orr.; eta Arabarako, SANTIAGO LACUESTA, R., aip. lan. Dena den, interesgarria litzateke Gipuzkoako eskualde desberdinetan gaztelaniak, nafar erromantzeak eta gaskoiak izan zuten eragina aztertzea, bereziki erromantzeen finkatze garaian, XIII. eta XIV. mendeetan, baina ziurrenik aztarnak ere XV. mendean izango ditugu. Eta hizkuntzatik haratago, bestelako eragin kulturalak leudeke, onomastikarena kasu.

bakarra genuke; edo hobe esanda, gaur egunera iritsi zaizkigun XIII. mendeko idatzietan artean halako mintzairan dagoen bakarra¹⁰⁷. Galdera, beraz, agerikoa da: zergatik politikoki Gaztelaren zati zen, erlijio mailan Baionako elizbarrutipean zegoen eta gaskoi komunitate sendo batez osatutako hiribildu batek nafar erromantzez idatzi? Galderak ildo batzuk adierazi dizkigu, dagoeneko.

Zaila da pentsatzea jatorrizko agiria hizkuntza batean egon eta kopia beste batean jarri izana; halakoak ematen dira, baina normalean aspaldi-aspaldiko dokumentuekin gertatzen da, ez XIV. menderako¹⁰⁸. Aurreko oin-ohar batean aipatu dugun 1256ko adibideaz gain, beste bat 1301ean dugu. Lizarrako notario Tomas Ximenez-ek Gaztelako Santxo IV.aren gutun baten kopia eskuetsia egin zuen, non merkatari nafarrei Donostia erabiltzeko baimena ematen zitzaien. Kopia eskuetsiaren goiburua eta eskatokoloa erromantze nafarrez daude, baina dokumentua gaztelaniaz idatzita dago, jatorrizkoan erabilitako hizkuntza mantenduz¹⁰⁹.

Oiartzunen kasuan ez bezala, Hondarribiko XIII. mendearen erdialdeko agiri honek ez digu eskribauaren inguruko daturik ematen, baina hala eta guztiz ere, gakoa hemen datzalakoan gaude. Hipotesiak mahaigainetuz hasira, burura hiru aukera letozkguke: lehenengoa, dokumentua Hondarribia edo Gipuzkoako notario batek egitea; bigarrena, eskribau nafar batek edo administrazio nafarrekiko zerikusia zuen batek idaztea; azkenik, bi ildoak uztartuz, tradizio nafarreko eskribau gipuzkoar batek gauzatzea.

Bigarrena eta hirugarrena erraz azaldu daitezke: Nafarroan ikasketak egitea nafar-erromantzearen ezagutza ekarriko lioke etorkizuneko eskribauari, hein batean bederen. Horretarako 1365ean eta Andara edo Endarako portuaren erabilerari buruzko bi dokumentutara jo behar dugu, Hondarribia eta Nafarroako administrazioa protagonista moduan dituztenak¹¹⁰. Lehenengo dokumentua Hondarribiak berak emandako ahalorde-gutuna dugu, hiribilduan bertan emandakoa. Bigarren agiria Andara edo Endararen

107. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1200-1369), aip. lan. eta IDEM: *Colección...* (1370-1397), aip. lan.

108. Ald. FERNÁNDEZ-ORDÓÑEZ, I., aip. lan.

109. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección...* (1200-1369), aip. lan., 81. dok. 1256ko agirirako, ikus, supra, 101 oin-oharra.

110. *Ibidem*, 300 eta 301 dok. Ikus, baita ere, NOAIN MAURA, M.^a J., aip. lan., 361-367 orr.; URZAINKI, T.; eta OLAIZOLA, J. M.^a de, aip. lan., 261-262 orr. Ez daude, ordea, honako bilduman sartuak: RUIZ SAN PEDRO, M.^a. T.: *Archivo General de Navarra (1349-1387). III. Documentación real de Carlos II (1364-1365)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999. Ikus, baita ere, JIMÉNEZ DE ABERASTURI CORTA, J. C., aip. lan., 324-325 orr.

inguruan adostutakoaren berrespen-idatzia da, Iruñean egindakoa. Biak nafar erromantzez idatziak daude. Bigarrenaren kasua ez da ezohikoa, lehengoa, ordea, deigarriagoa da, Gipuzkoan bertan eta Gipuzkoako erakunde batek sortutakoa baita. Ezaugarri hau 1245eko agiriarekin lotzen badugu, nafar erromantzez idazteko joera bat isla dezake. Alabaina, adierazpen hauek ere tentuz hartu beharrean gaude, bereziki dokumentuak idatzi zituzten eskribauetara joz gero. Izan ere, nahiz eta Hondarribian idatzi, idazkariak beste leku batzuetara garamatzate.

Hondarribiaren ahalorde edo prokurazio gutuna Simeon Eraustieta edo Haraustietakoak idatzi zuen, bere burua “agintaritzza inperialak izendatutako notario publiko” moduan aurkezten digun notarioa. Agirian agertzen diren ohar batzuk bereziki interesgarriak dira, idazkera prozesuari buruzko pausoak aditzera ematen dizkigutelako. Agidanez, Simeonek berak idatzi ofiziala egin zuen, “in extenso” delakoa, baina aldeaz aurretik udalbatzak emandako oharretan oinarrituz: “*rrecebí la nota de la dicha procuracion et escriuí la carta e la dicha procuración con mi propia mano, et puse en eilla este mi acostumbrado signo en testimonio de verdat*”.

Bigarren idatziari dagokionez, Hondarribiko ordezkariak Iruñean emandakoa dugu eta egilea Joan Otxobikoa izan zen, “*notario público et iurado de la cort maor et de todo el rregno de Nauarra sobredicho*”, nafar Gorteko kontseilariz inguraturik¹¹¹. Ondorioz, agiriak islatzen duten hizkuntza eskribauetan du oinarri: nafar administrazioari lotuta daude eta, beraz, agiri horiek sortzen ziren hizkuntza nagusian idatzi zituzten¹¹².

Ildo beretik ulertzen da XIV. mende erdialdean sortutako beste dokumentu batean dakusaguna, Zumaiaiko hainbat biztanlek eta Orreagako monastegiak 1344 urtean burututako hitzarmenean, hain zuzen ere. Idatzia Iruñean burutu zen, Esteban Gartzia Aldabakoa gotzain-eskribauaren eskuz. Pentsa daitekeenez, bertan hainbat adiera edo idazkera adierazgarri ditugu, agiriari erromantze nafarraren kutsu argia ematen diotenak, nahiz

111. “*nos Per Iohán de la Maysón, preuoste de la dicha villa de Fuente Rrabía, Per Arnalt de Sereis, alcalde, Iohán d’En Ailes, capellán maor de la dicha villa, et Esteuan de Alunde, iurado de la dicha villa, procuradores del dicho conceio de Fuente Rrabía (...) por testimonio de las cosas sobredichas et cada una deillas, rrequerimos a vos, Iohán d’Ochoui, notario público et iurado de la cort et de todo el rregno de Nauarra, que pora hueuos de la thesorería del dicho seynor rrey de Nauarra fagades desto carta en pública forma. Et ponemos en eilla el grant sieillo del dicho conceillo en cera verde colgado (...) Et yo Iohán d’Ochoui, notario público et iurado de la cort maor et de todo el rregno de Nauarra sobredicho, a rrequisición de los sobredichos procuradores de Fuente Rrabía escriuí esta present carta con mi propia mano...*”. Ondoren, Hondarribiko udalbatza eta unibertsitateak idatzia berresten zuen, zigilua jarritz.

112. Ahaztu gabe, gainera, bi dokumentuak nafar funtsetan gorde direla.

eta hiribildu gipuzkoar bat protagonista izan¹¹³. Alabaina, agiriaren azterketa sakonago batek beste errealitate bat uzten du agerian.

Bere barnean hainbat zumaia-errek Getarian emandako ahalordea dakar; eta ahalorde honek, idatzi nagusiaren ezaugarri linguistiko berdinak dituela ematen du. Hor ditugu “aynno”, “clama”/“clamada”, “lures”, “meytat”, “muit”, “eyll/eyllos/aqueyllos”, “qui” edo “seynnor” bezalako aldaerak. Ahalordearen idazlea Otsoa Ibañez izan zen, Getariako notario eta eskribau publikoa eta jardun horretan udalbatzak izendatua (“*Ochoa Hiuaynes, notario e escriuano público la villa de Guetaria por el conçejo d’este mesmo logar*”). Ez hori bakarrik: agiria Otsoa Ibañezek berak 1352an egindako kopia eskue-tsian iritsi zaigu eta, beraz, 1344an erabilitako idazkerak fidagarritasun osoa du, egile berak bere idazkera aldatzeko arrazoirik ez baitago. Beste era batera esanda, adibide honek sasi-erromantze nafarrez idazteko ohitura gutxienez Getariaraino hedatu zela adierazten digu. Otsoaren idazketa ikasketak jakite-rik ez dugunez, oraingoan Iruñeako elizbarrutiari egotz diezaiokegu agiriaren idazkera, Getaria bere barruti barruan geratzen baitzen.

Bi lurraldeen arteko harreman estuak ikusita, argi dago gipuzkoa-rraren artean nafar erromantzea edo hizkuntza horretan idatzitako testuak ez zirela kontu ezezaguna. Batetik, alde bateko zein besteko biztanleek zituzten gizarte, kultura eta ekonomia harremanak leudeke. Bestetik, herri eta hiri-bilduek bidelapur eta gaizkileen aurka abiatu zituzten elkarte, anaidi edo ermandadeak ditugu¹¹⁴. Hirugarrenik, Nafarroako erregeen meneko ziren edo

113. Eta dagoeneko hainbat ikertzailei atentzioa eman diena. Ikus, MICHELENA, L.: “Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval”. In: *Homenaje a don José Esteban Uranga*. Iruña: Aranzadi, 1971, 212-213 orr. (199-214) (CIERBIDE, R.: “En torno a la problemática...”, aip. lan., 395 orr. egindako aipamenetik ateratako erreferentzia) eta OLAECHEA, J. B.: “Roncesvalles y el origen de Zumaya”. In: *EAE*, XXV (1969), bereziki, 532 orr. (532-543). Dokumentuetarako, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 591595. dok. eta berriki, ELORZA MAIZTEGI, J.: *Archivo Municipal de Zumaiá (1256-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2009, 6-8 dok. Agiriaren barnean Zumaia-ko hainbat auzok emandako ahalordea dago, Getarian 1344ko urriaren 19an emandakoa, zeinak nafar erromantze eta erromantze gaztelarraren arteko nahasketa ematen duen (edo gaztelar erromantzea, nafararren hainbat ezaugarriekin); aldiz, gaiarekin Getarian eta 1352an egindako dokumentuak gaztelaniaz daude (ikus, ELORZA MAIZTEGI, J., aip. lan., 6 eta 10 dok.).

114. Honen inguruan, DÍAZ DE DURANA, J. R.; eta FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A.: “La frontera de los malhechores: bandidos, linajes y villas entre Álava, Guipúzcoa y Navarra durante la Baja Edad Media”. In: *Studia Historica. Historia Medieval*, 23 (2005), 171-205 orr.; MUGUETA MORENO, I.: “Acciones bélicas en Navarra: La frontera de los malhechores (1321-1335)”. In: *Príncipe de Viana*, 61 (2000), 49-78 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa: (las relaciones Guipúzcoa-Navarra en el siglo XIII-XIV)”. In: *Vasconia*, 3 (1984), 25-100 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La Hermandad de Frontera entre Navarra y Guipúzcoa, s. XIV y XV”. In: *Príncipe de Viana*, 46 (1985), 463-492 orr.; ZABALO ZABALEGUI, Fco. J.: “El acoso de guipuzcoanos y alaveses a los ganaderos navarros: la frontera de los malhechores entre 1280 y 1349”. In: *Príncipe de Viana*, 66 (2005), 53-110.

beraientzako hainbat lan eta zerbitzu egin zituzten leinuak genituzke; hauek ere hizkuntza horretan hainbat agiri jasoko zituzten, erakunde nafarrek luzatutako ordainagiriak tartean. Modu honetan, 1245eko agiria eskribau nafar batek egin zezakeela pentsa dezakegu¹¹⁵.

Horrez gain, 1245eko idatzia kronologikoki 1200eko gertakariengandik hurbil dago. Ildo hori hartuta, eta dokumentuaren egiletasunean pentsatuz gero, bi hipotesi planteatu daitezke. Batetik, Hondarribiko eskribau edadetu bat, XII. mende amaieran hezitakoa, noiz eta “Ipuzkoa” politikoki Nafarroaren baitan zegoenean. Ideia honek ahultasun bat izan dezake, egilea 70 urte inguruko eskribau bat izan zela pentsatzera baikarama, gehiegitsu garai hartarako.

Badago, baina, bigarren aukera bat. Nahiz eta eskribau gazteago batean pentsatu, Nafarroaren eraginak beren horretan jarraituko luke. Honela, 1190-1210 urte bitartean jaiotako pertsona bat izanez gero, bere hezitzailea edo eskribau-maisua nafar tradizioaren baitan txertatua zegokeen eta ikasleei irakatsitakoa bere bizipenetan oinarrituta legoke. Modu honetan, hezkuntzak nafar moldeari jarraituko lioke, tartean erromantzearen erabilera egongo zelarik. Hipotesi hau balizkoa gerta dakiguke, Nafarroak hizkuntza horren erabilera administratiboan izan zuen aitzindaritzat aintzat hartuta¹¹⁶. 1245eko dokumentuaren testuinguruak nafar usadioetan oinarritutako hezkuntza horri eustea ekarriko luke. Gure begietara 1200eko gertakariak gerora Gipuzkoa izena hartuko zuen lurralde hori betirako Gaztelako Koroaren baitan geratu bazen ere, garaian hartan gertakariak (orainaldian ematen diren gauza guztiak bezala) behin-behinekotasun agerikoa izan zuen. Horren lekuko ditugu XIII-XIV. mendeetan Gipuzkoaren edo lurralde horretako hainbat hiribilduren nafartasuna berreskuratzeko saiakerak. Hondarribiko testuaren kronologiari dagokionez, bi agiri dira “Gipuzkoak” ezagutu zuen gaztelar behin-behinekotasun politiko horren adibide moduan jar ditzakegunak: batetik, Gaztelako Fernando III.ak 1234an Nafarroako Tibalt erregeari egindako lurraldearen lagapena, azken hori bizi artean Gipuzkoa osoa, Hondarribia, Donostia eta Mutriku emanez¹¹⁷. Bestetik, 1256ko Urte Berri egunean Gaztelako Alfontso

115. Dokumentua non eta nork sortu zuenaren garrantzirako, Aragoiko kasua adierazgarritzat jo daiteke, erromantzez idatzitako zaharrenak, Jaume I.goa sustatzaile dituztenak, erromantze nafarrez sortuak baitaude. Ikus FERNÁNDEZ-ORDOÑEZ, I., aip. lan., 343-344 orr.

116. Ikus supra, 106 oin-oharra. Euskal Herriko probintzia desberdinetan eskribautzaren inguruan azterketak oso eskasak dira, baina azkeneko boladan ikerkuntza batzuk burutu dira, azpimarragarriena honakoa delarik: ROMERO ANDONEGI, A.: *Documentación tardomedieval de la villa de Bermeo: edición y estudio*. Bilbo: UD, 2008, zeinetan, 96-99 orrialdeetan formakuntzaren inguruko kontuei leku egiten dien. Bertan ere, gaiari buruzko bibliografia ugari topatuko da.

117. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 7. dok.

X.ak Tibalt II.ari egindako lagapena; oraingoan eskualdatutako lurraldea askoz txikiagoa zen, Donostia eta Hondarribiara mugatzen baitzen¹¹⁸. Ondorioz, Gipuzkoaren gora-behera politikoak ikusita, normala litzateke Hondarribiak Nafarroako erakundeekin erromantzea erabiltzea¹¹⁹.

Hipotesiak hipotesi, 1245eko dokumentu horrek Oartzungoarekin defendatzen dugun ildoari eutsiko lioke: Behe Erdi Aro hasieran, eta latina hizkuntza erromantze jakin batzuek ordezkatzeko joan ziren prozesuaren baitan, zenbait lekutan, mugaldekoetan bereziki, administrazioen edota eskribauen munduak nolabaiteko egoera eleanitz batean murgilduta leudeke, zer esanik ez erresuma desberdinetako administrazioek lurralde berean eragina zutenean. Gurerako, gaztelaniak pisu nabarmena edo hizkuntza administratibo lehenetsia osatuko balu ere, Behe Erdi Aroaren hastapenetan, nafar-erromantzea eta gaskoia/okzitaniara erabiltzea ez zen ezohikoa izango, batez ere Gipuzkoak edo bertako hainbat eskualdek Iparraldearekin eta Nafarroarekin zuten harreman estua aintzat hartuta. Esan bezala, baliabideak zituzten hainbat pertsonak beraien semeak Nafarroan eta Baionan heztera bidaliko zituzten eta horrek, nahi eta nahi ez, bertan bizi ziren hizkuntza-egoeren aurrean jarriko lituzke: kalean euskara entzun eta eginez, baina ikasketetan bestelako mintzairak ezagutuz; halaber, merkataritzan zihardutenek ere, izango zuten erromantze horien berri, askotan hori baitzen halako jardueratan erabilitako idatzizko hizkuntza¹²⁰. Azkenik, beste behin ere errealtate administratiboaren eta ahozkoaren arteko desberdintasuna legoke.

Begirada XII eta XIV. mende bitarteko ingurumari historikoan jarzteak, halaberharrez “Gipuzkoa” izango zenaren eraketa politiko-administratibora garamatza, eta prozesu horren nondik norakoetara. Gauza jakina da XIV. mende amaiera arte ezin dugula gaur egun dakusagun Lurralde

118. *Ibidem*, 19. dok.; URZAINQUI, T.; eta OLAIZOLA, J. M.^a de, aip. lan., 259-261 orr.

119. Dena den, 1245eko dokumentu honek hausnarketa sakonago bat merezi du, bereziki erromantzeak Gipuzkoan izan zuen garapenaren ondotik. Ald. SARALEGUI, C.: “Sobre geografía lingüística de Navarra: de nuevo el norte y el sur”. In: *Anuario de Filología Aragonesa*, 67 (2011), 75-112 orr. eta egile beraren “Notas para la identificación de dos tipos de romance en Navarra”. In: *Oihenart*, 21 (2006), 453-465 orr. Ikus, baita ere, supra, 102 oin-oharra.

120. Ikus MONTEANO SORBET, P. J.: “La carta bilingüe de Matxin de Zalba (1416). El iceberg lingüístico navarro”. In: *FLV*, 47 (2015), 159-165 orr. (147-174). XIII-XIV. mendean Nafarroan ekoiztutako dokumentuen hizkuntzaren azterketa kuantitatiborako, CIERBIDE, R.: “Euskal Herria: Lugar de encuentros...”, aip. lan., 106 orr.

Hizkuntza-nahasketa hori ere, beste esparru batzuetan ikus dezakegu, hala XIV-XV. mendeetako Behe Nafarroan, nahiz eta maila askoz apalago batean. Ald. CIERBIDE, R.; eta SANTANO, J., aip. lan. Ikus, baita ere, CIERBIDE MARTINENA, R.: “El euskera en la Navarra medieval en su contexto románico”. In: *FLV*, 30 (1998), 502-504 orr. (497-514), eta GARCÍA LARRAGUETA, S.: *Documentos navarros...*, aip. lan.

Historikoaz hitz egin, ez bere osotasunean, behintzat; eraketa prozesu bat izan zen¹²¹. Modu honetan, esparru erlijiosoan administrazio ezberdinak zeuden moduan, politikoan ere, bereziki lekuan lekuko mailan, egoera anitza zen. Ondorioz, batasun politiko-instituzional bat ez zegoen heinean, esparru horretan jaso zitezkeen eraginak ere jatorri desberdinekoak izan zitezkeen, baita hizkuntza administratiboak aukeratzeko garaian ere. Are gehiago, muga politikoak finkatu baino lehen eliza zen gizonak, lurraldeak eta errentak antolatzeke ardatz nagusia. Honela, Oiartzun Baionako egituraren baitan egonik, auzialdi horretan zein inguruko biztanle gaskoiekin izandako harremanen ondorioz, normaltzat hartuko zen dokumentu administratibo bat gaskoiez egotea, zer esanik ez Donostian (eta Hondarribian?) hala egiten zenean¹²².

Edonola ere, agiriaren kontura burura datorkigukeen lehenengo hipotesia, Oiartzungo bailaran bertan ala inguruetan kokatu zen ustezko komunitate gaskoi sendo batean pentsatzera eramango gintuzke. Nolabait, hizkuntza jakin baten aukeraketak oinarri kultural eta sozialak izan zitezkeen; beste era batera esanda, gaskoia idatzizko hizkuntza erabiltzearen hautuak inguruko joerari erantzungo lioke, Oiartzungo lurraldean bertan aspaldidanik ezarritako eta gaskoia berezko zuten taldeak zeudelako. Horri helduko diogu orain.

4. Hizkuntza, komunitate gaskoi baten isla? Historiografiak esandakoetatik, zenbait ohar

Oiartzunen hizkuntza arrotz batean egiten zuen komunitate sendo bat bertan finkatu izanaren ideiak erakargarritasuna duela aitortu behar dugu, bereziki adituek esandakoak aintzat hartzen baditugu¹²³. Honekin batera,

121. Goi Erdi Arorako, ikus BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan.

122. Eskerrak eman nahi dizkiogu Javier Elorzari, ildo honetatik egindako iradokizunengatik.

123. Ricardo CIERBIDE-k honakoak esaten zituen: *“La presencia del elemento occitano en Guipúzcoa y el País Vasco norte se explica por razones muy diferentes y son la causa de la variedad lingüística atestiguada en los documentos medievales que se nos han conservado”*; *“Todo parece indicar que debido a esta actividad marinera tanto en San Sebastián, como en Hondarribia-Fuenterrabía, Pasajes, Oiartzun y Rentería la población fue gascona, procedente de la región delimitada por Bayona y sus alrededores”*; *“la población asentada en San Sebastián, Pasajes o Fuenterrabía era toda ella gascona. Parece obvio que la lengua de que se sirvieron para la ordenación de su actividad comercial y urbana, así como de sus relaciones con sus vecinos de Bayona o los francos de Pamplona fuera el gascón, como así fue”* (CIERBIDE, R.: *“Scripta medieval occitana...”*, aip. lan., 47 eta 50 orr.). Ald. Jacan 1238 urtean gaskoiez idatzi ziren ordenantzen inguruan esan direnekin. Egile batzuen ustetan,

Done Jakue bidearen eraginaz hitz egin daiteke. Beste hainbat lekutan, baita Nafarroa, Gaztela zein Leongo erresumetan sortu eta garatutako hiribildu eta hirietan ere, komunikabide horri jarraituz, “frankoen” eragina nabarmena izan zen XIII. mende hasiera arte¹²⁴.

Idea hori, ordea, sakonki berraztertu beharrean gaude. Pasaiako (eta Oarsoaldeko) kasurako eman diren baieztapenak ahulak direla uste dugu, eta Pasai Donibanen XX. mende hasieran oraindik ere gaskoia hitz egiten zenaren arrazoa berraztertu beharko litzateke¹²⁵. Beste era batera esanda, horren hedatua dagoen eta Pasaian, XII. mendean zehar Baionatik etorritako gaskoien finkatze sakon bat defendatzen duen hipotesia alboratu beharko genuke¹²⁶.

4.1. Oarsoaldeko gaskoi-populatzeko goiztiar sendoa baztertzuz

Gaskoien etorrera finkatzerako garaian, egile gehienek XII. mendeko lehen erdialdea abiapuntu gisa jarri dute¹²⁷. Prozesu horretan, Donostian eta Hondarribian (eta Getarian?) eman ziren mugimenduekin batera, Oarsoaldean ere zenbait kide ezarri zirela adierazi izan dute. Alabaina, azken eskualde honetan finkatutako horiek Baiona inguruetatik etorri izan

...

ordurako frankoen kopuruak nabarmen beherantz egin bazuen ere (hasierakoan laurdena lirateke), dokumentua hizkuntza horretan egoteak kanpotarren pisu politiko eta kulturala islatuko luke. Iritzi horretakoa da MARTÍNEZ SOPENA, P.: “Las migraciones de francos en la España de los siglos XI y XIII”. In: RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I.; SANZ FUENTES, M.^a J.; eta CALLEJA PUERTA, M. (koord.), aip. lan., 266 orr. (253-280). Ordenantza horiek honako artikuluan ikus daitezke: OLIVER, B.: “Ordenamientos de la Ciudad de Jaca de 1238”. In: *BRAH*, 52 (1908), 339-361 orr.

124. Honi dagokionez, onomastikaren inguruan burutu diren hainbat lan bereziki adierazgarriak dira. Zehaztasun handietan sartu gabe, ikus, besteak beste, MARTÍNEZ SOPENA, P., aip. lan.; IDEM: “Los francos en la España de los siglos XII y XIII. El testimonio de las listas de vecinos”. In: *Anthroponymie et migrations dans la Chrétienté Médiévale. Études réunies par Monique Bourin et Pascual Martínez Sopena*. Madril: Casa Velázquez, 2010, 177-194 orr.; RUIZ DE LA PEÑA, J. I.: “La antroponimia como indicador de fenómenos de movilidad geográfica: el ejemplo de las colonizaciones francesas en el Oviedo medieval (1100-1230)”. In: MARTÍNEZ SOPENA, P. (koord.): *Antroponimia y Sociedad. Sistemas de identificación hispano-cristianos en los siglos IX a XIII*. Santiago de Compostela-Valladolid: Universidade de Santiago de Compostela-Universidad de Valladolid, 1995, 133-154 orr.; eta infra, 171 oin-oharra.

125. XX. mendeko datuetarako, ikus MÚGICA, S., aip. lan., 11-12 orr.

126. Ikus ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., egindako errepaso historiografikoa.

127. Kronologiaren inguruan, ald. BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan., 288-294 orr.

balira, Orereta inguruetan hiribildua lehenago sortuko zelakoan gaude. Norbaitek Oiartzun Bailarari Donostiako forua XIII. mende hasieran emateak gaskoien ailegaeraren isla zuzena litzatekeela pentsa dezake; Munitak berak hipotesi hori plazaratzen zuen, Hondarribia eta Donostian gertatutakoa aintzat hartuta¹²⁸.

Foru-emate prozesu bat izateak, ordea, ez du esan nahi bertan finkatutako gaskoi komunitate baten ekimena izan zenik. Halakorik ikusiko bagenu, populazio horren eragina gipuzkoar kostalde osoan mende hartan sortu ziren hiribilduetara ere hedatu zela pentsa genezake, Zarautz edota Mutrikura, besteak beste¹²⁹. Hori baino, Oiartzungo udalbatzari Alfontso VIII.ak emandako pribilegioek erreakzio bat darakustelakoan gaude. Errege gaztelarraren interesak eskualdea finkatzeko zituen asmoak alboratu gabe, gertakariak Oiartzungo bailarak bi prozesuren aurrean izandako erantzuna islatuko luke: batetik, Donostiak XII. mendean zehar lurralde horietara zabaltzeko asmoen ondorioz etorritakoa eta bestetik, Hondarribiaren hiri-gutunaren aurrean izandako edo izateko arriskuan zegoen lurralde-galeraren aurrean hartutako jarrera bat.

Gure aburuz, historiografikoki gaskoiei Oarsoaldean eman zaien garrantzia uste baino askoz apalagoa izan zen eta izatekotan, beranduago gertatutakoa. Altza dugu adibide bat, bertako komunitatearen antolakuntzan gaskoi kutsu nabarmeneko abizenek protagonismo adierazgarria izan baitzuten, 1390ean eliza eraikitzeko asmoek ondo adierazi bezala¹³⁰.

128. MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan. 93-94 orr.: *“flanqueando por ambos costados a Oyarzun, las villas de San Sebastián y Fuenterrabía surgieron amparando a una población gascona dedicada a las actividades comerciales, lo cual pudo ocurrir igualmente con Oyarzun, donde la población nativa pudo convivir con los extranjeros, en barrios distintos, pues como queda dicho el topónimo ‘Uharçon’ es de origen gascón”*.

129. Eta bi kasuetan jakina da hiri-gutunak aldez aurretik osatutako herriei eman zitzaizela, hau da, maila juridikoa aldatu zitzaien, besterik gabe. Getariaren kasua ezberdina da; populazio honi Donostiako forua eman ziotenak errege nafarrak izan ziren, Gaztelako Alfontso VIII.ak berak 1209an aitortzen zuen moduan: *“Dono itaque vobis et concedo forum Sancti Sabastiani (...) eo modo quo rex Nivarræ [sic] illud dedit vobis habendum”* (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan. 5. dok.). Nahiz eta ditugun datuekin, bertako toponimia gaskoia hutsaren hurrengo izan, gure ustetan, gaskoiek bere fundazioan eragin nabarmena izan zutelakoan gaude. Agian hamarkada gutxiren buruan protagonismoa galdu zuten, Zarautz eta bere inguruak populatzen zituzten hainbatek bertarako bidea orduan egin zutela; prozesu honen eraginez, zarautzarrek beraiek ere hiri-gutuna eskatuko zuten, 1237an lortuz. Era berean, salmenta gutunean agertzen den Juan Ibañez Hernanikoa Hernaniko auzo moduan hartuko bagenu, norbaitek bertan gaskoiak finkatu zirela edo bertako gizartean nolabaiteko garrantzia izan zutela pentsa lezake.

130. Ikus ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C.: *“Altza: De los cubilares al concejo. ‘Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra’”*. In: *BEHSS*, 32 (1998), 535-578 orr.

Prozesu horrek, XIV. mende erdialdean Donostiatik Altzarako bidean eta azken eskualde honetan abian jarritako populatze-mugimendua age-rian uzten du. Jendeztatze hori ez zen inguru horretan guztian indar berdinez eman eta hainbat bide egin zituelakoan gaude. Bide horien artean, Pasai San Pedrorra zihoana ere hartuko lukete. Modu honetan, hainbestetan gune gaskoi petotzat hartua izan den Pasaiaren adibidea garai honetan txertatu beharko genuke. Beste era batera esateko, Altzan eta XIV. mende erdialden emandako mugimenduaren adar batek, gaur egungo Mirakruz gainatik badiara arteko bidea egin zuen, baina modu xumeagoan, helburua ez baitzen bokalean komunitate bat sortzea¹³¹. Horren adierazle beste prozesu batzuk genituzke: Pasai San Pedroren XIV. mende amaieratik aurreragoko popula-tze prozesua eta Donibanen XV. mendeko erdialdean ikus daitezkeen abi-zenak. Bietan ala bietan gaskoien edo gaskoi jatorriko donostiar abizenen kopurua ez da Altzan 60 urte lehenago dakusaguna. San Pedron biztanleak ezartzeko asmoz abian jarritako ekimenaren protagonistak hamaika lekutako pertsonak izan ziren, Kantauri itsasaldeko herriek pisu nabarmena izan zute-larik, Kantabria eta Asturiaskoek bereziki. Pasai Donibanen, berriz, eskual-deko abizen euskaldunek garrantzia izan zutelakoan gaude¹³².

Ildo horretatik, XVII. mendearen lehenengo hamarkadetan, bereziki 1611 eta 1627ko dokumentazioak aditzera emandakoak gogora ekar dai-tezke. Alta, garai horietan gaskoiak nolabaiteko indarra bazuen ere, horrek ez du esan nahi bertan gertatutakoa XII. mendean hasi eta zazpiehun urte-tan zehar inolako aldaketarik jazo gabeko prozesua izan zenik, zer esanik ez kostaldeko guneak Historian barrena oso leku dinamikoak izan direla aintzat

131. Bestalde, Altzan ikusten diren abizen gaskoiek Donostiarekin ala Baiona ingu-ruerkin lotura zuzena zuten ala ez aztertu beharko litzateke. Aitortu behar dugu, baina, gure ustetan Donostiatik Altzarako bidea egin zuten jatorri gaskoieko (baina ordurako donostiarrak ziren) pertsona horien artean, gutxi batzuk Pasaiako badiarako bidean finkatu zirela ia uretara iritsi arte. Horren lekuko lirateke Arnaobidao, Trintxer eta San Matet baserriak. Prozesu hone-tarako, ikus *ibidem* eta IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak...”, aip. lan., 36-44 orr. Berriki horren inguruan jardun gara. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Contingentes cantábricos...”, aip. lan.

132. San Pedron XV. mende erdialdean, gaskoi-donostiarrak Fautes, Pollón eta Ami-guer/Umiguer abizenetan ikus ditzakegu, baina bakoitzak ordezkari bakarra du. Gehiago dira Hondarribia-Oarsoaldeko abizenak, Laborda abizenak lau ordezkari dituelarik. Ikus IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak...”, aip. lan., 44-65 orr. eta egile beraren “Contingentes cantá-bricos...”, aip. lan. Onomastikari jarraituz, San Pedro eta Donibaneko emaitzek XV. mende erdialderako oso emaitza esanguratsuak ematen dituzte. Kontuan izan behar dugu, gainera, bi komunitate horien sendotasuna garai horretatik aurrera ematen hasi zela, hastapenak XIV. mende amaieratik bazetozen ere. Prozesu hauetarako ere, ikus IRIXOA CORTÉS, I.: *Pasaia: hastapenak (XIV-XVI. mendeak)/ Pasaia: orígenes (siglos XIV-XVI)*. Pasaia: Pasaiako Udala, 2009; IDEM: “Portu aprobetxamendua eta gatazka: Donostia eta San Pedroren arteko harre-manak Erdi Aro Amaieran (1397-1503)”. In: *Itsas Memoria*, 7 (2012) (http://www.untzimu-seoa.net/images/itsas_memoria_07/07_iagoirixoa_amplia.pdf).

hartuta eta hamaika lekutako pertsonen joan-etorria ikusi zuten heinean, kultura eta gizarte mailan maileguetara irekiak egon zirela¹³³.

Pasaian gaskoiaren agerpena eta finkatzea, beraz, beste dinamika batzuekin lotu beharko genukeelakoan gaude; besteak beste, XVII. mendearen bigarren erdialdean bale-ehizaren gainbeherak Iparraldean sortutako krisiarekin¹³⁴. Horren lekuko, toponimia bera dugu. Alde batetik, leku-izen gaskoi bat egoteak ez du zertan XI-XIII. mendeen artean sorrera izan behar, Molinao kasu. Bestetik, leku batean toponimia gaskoia izateak ez du esan nahi izena ustez bertan bizi ziren gaskoiek emandakoa denik; gerta zitezkeen handik hurbil zeuden komunitate batzuen ekimena izatea. Horiek lirateke, hain zuzen ere, Kodemasti (“*cod de mastel*”) toponimoaren edo “Pasaje” hitzaren beraren kasuak, azken hori gaskoitzat hartzekotan, Howeden-ek hartzen duen “Huarz” aldaera ahaztu gabe¹³⁵.

133. Pasaian bertan, irlandar edo holandarren kasua dugu. Ald. IRIXOA CORTÉS, I.; eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.: “¿Una inmigración católica a mediados del XVII? El caso de los irlandeses en la bahía de Pasaia (Gipuzkoa)”. In: GARCÍA HURTADO, M-R.; eta REY CASTELAO, O. (arg.): *Fronteras de agua. Las ciudades portuarias y su universo cultural*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 2016, 249-263 orr.

Lorratz honi jarraituz Donostiako “Esterlines” kale famatua genuke. XVI. mende erdialderako indarrean dagoen toponimoa bada ere, egun ditugun datu eta ikerkuntza eskasekin, ezin dugu, inondik inora, alemaniarrekin edo Hansarekin lotutako izentzat hartu. Nahiz eta Avilés bezalako herrietan XIII. mendearen lehenengo erdialdetik alemaniarrik ikus daitezkeen, gure dokumentazioan beraien agerpena hutsaren hurrengo da, eta gure susmoek Ingalaterrara garamatzate, XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, Gipuzkoako merkataritza esparrua berebiziko garrantzia izan zuen herrialde batekin.

134. Prozesu hori aintzat hartzen duten hipotesiak orain arte indarrean egon direnak baino askoz logikoagoak direlakoan gaude, nahiz eta aurreko mendeetan aitzindariak egon; besteak beste, 1448 urte inguruan jaiotako Juan La Canal sanpedrotarrak zuen “Matalot” goitizena (ikus IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak...”, aip. lan., II. eranskina). Lope MARTINEZ ISASTIKOAK ere, XVII. mende hasieran, testuinguru arrantziale horretan lapurtarrek Pasaiarekin zuten harreman estua aditzera ematen zuen (*Compendio historial...*, aip. lan., 494 orr.). Bestalde, egile batzuek XVII. mendean Iparralde eta Gipuzkoaren arteko loturen sakontzea ere ikusi dute. Hegoaldean bitzako krisiaren aurrean, Lapurdik itsas-jardueretako askotan loraldi eta gorenaldi garaia ezagutu zuen, Gipuzkoako kapital eta eskulanak haragoko bidea egin zutelarik eta, ondorioz, “XVII. mendeko krisi” bete-betean gertatu zen gorenaldi horretan parte hartuz (ALBERDI LONBIDE, X.: *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*. Bilbo: EHU-UPV, 2012, 40 orr.). Ziurrenik dinamika horrek Lapurdik gerora ezagututako krisian eragina izango zuen, Iparraldeko biztanleek Gipuzkoako kostalerako bidea hartu zutelarik, horietako askok Pasaiako badia bizileku berri bezala aukeratu.

135. Gavelek berak horren inguruan ere hausnarketa bera egiten zuen: “*l’existence d’un nom à forme gasconne en un point du pays basque n’indique pas toujours qu’il y ait eu là un habitat gascon*” (ikus GAVEL, H.: “Le nom de Fontarabie...”, aip. lan., 631 orr.). Molinao, gaur egun jakina denez, XV. mende erdialde aldera sortutako leku-izena dugu, baina egile

Demagun orain aurkezten dugun 1316ko agiriak gaskoien eragina islatzen duela. Hala izatekotan, eta mugimendu horrek Donostiako fundazioa eragin zuenarekin zerikusi zuzenik ez zuela onartzen badugu, beraien etorrera XIII. mendearen bigarren erdialde inguruan kokatu beharko genuke. Kronologia hau defendatzeko agiri idatziek ez dute informazio handirik ematen; kontserbatzen ditugun horietan Oiartzuni buruzko isiluneak nabarmenak dira. Merkatal dinamikaren ikuspegitik, XIV. mende erdialdera arte hiribidurik nagusienak Hondarribia, Donostia eta Getaria izan ziren; beraiek ziren garai hartan Gipuzkoako kostaldeak zituen populazio gunerik nabarmenenak eta nazioarteko merkataritzan lekua zutenak¹³⁶.

...

guztiek (euskarri dokumentalik gabe) egiten dituzten aipamenak ikusita, hastapenetan sortutako toponimoa ematen du. Ikus, besteak beste, GAVEL, H.: “Note sur d’anciennes colonies gasconnes en pays basque”. In: *EINA*, IX (1918), 75-79 orr. Funtsean, honek guztiak material toponimikoak ere sakontasunez aztertzeoak direla adierazten du, ez baitira geldidun edo aldaketarik gabe egoten diren kontzeptuak.

Bestalde, Molinaoz aparte bada beste toponimi adierazgarri bat: “Malvernet”. Serapio Mugicaren ustetan (aip. lan., 30 orr.), Molinao inguruetan zegoen leku-izen honek “altzadi” esan nahi zuen, eta zein testuinguru historiko eta geografikoan kokatzen den ikusita, oso prozesu interesgarria isla lezake: zenbait euskal leku-izen jatorren gaskoiezko itzulpena, hain zuzen ere. Toponimoaren inguruan, beherago jardungo dugu.

“Pasaje” hitzak zernolako buruhausteak ekar ditzakeen ikusteko, Juan Bautista Olaecheak Zumaiari lotutako “1346” urteko ([sic], urtea 1344 baita) dokumentu batean daku-sagu. Bertan, kanala igaro edo pasatzerako garaian, Orreagak Zumaiako biztanleei txalupa bat jartzeko agintzen zien, bigarrenen ardurapean egongo zena: “...obligar que los dichos pobladores mantengan a ssus mesiones propias et ssean tenidos de tener et mantener por todos tienpos vna barca e barquero *en el passage d’agoa que es en el dicho lugar*” (ELORZA MAIZTEGI, J., aip. lan., 15 orr.). Olaecheak gaizki irakurri zuen, “pasabide”-a “Pasaia”-n bihurtuz: “*A todos estos bienes hay que agregar también el llamado lugar del Pasaje con su barca y el barquero...*” eta “*y no se sabe el topónimo vernáculo de ‘El Pasaje’, que desapareció en razón de desecarse por tramos la marisma a fines del siglo XIX y principios del XX*”; hots, kontzeptu geografiko bat toponimo bihurtu zuen. Ald. OLAECHEA LABAYEN, J. B.: “Reflexiones filológicas en torno a una arcaica toponimia de Zumaia”. In: *Príncipe de Viana*, 31 (1999), 301-308 orr., bereziki 307 orr. (artikuluaren zehar egileak hainbat dokumenturen kronologia gaizki interpretatzen du, Aro Hispanikoa eta egungoa nahastuz).

136. Adibide gisa Mallorcako portuari buruzko dokumentazioa aipa dezakegu, bereziki XIV. mendearen lehenengo erdialdekoa, 1324tik aurrerakoa. Bertan, hiru hiribildu gipuzkoar besterik ez dira aipatzen eta hiruak ere, oso adierazgarriak: Hondarribia, Donostia eta Getaria. Ald. Antonio ORTEGA VILLOSLADA-ren “Puertos y fondeaderos de la bahía palmesana en la Edad Media”. In: *Acta Historica et Archaeologica Mediaevalia*, 29 (2008), 177-203 orr.; *El reino de Mallorca y el mundo atlántico (1230-1349)*. A Coruña: UNED-Netbiblo, 2008; “Ciudadanos atlánticos en Mallorca (1230-1349)”. In: *El Regne de Mallorca: cruïlla de gents y de cultures (segles XIII-XV)*. Palma de Mallorca: Institut d’Estudis Baleàrics, 2009, 347-359 orr.; eta “La aportación mallorquina al comercio y navegación entre ciudades atlánticas 1300-1350”. In: SOLORZANO TELECHEA, J. A.; ARIZAGA BOLUMBURU, B.; eta SICKING, L. (koord.): *Diplomacia y comercio en la Europa atlántica medieval*. Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2015, 277-301 orr.

Baina agiri idatziak ez dira lagungarri edo funtsezko gerta dakizkigukeen iturri bakarrak. Hor ditugu, adibidez, dokumentu grafikoak. Beraiek ematen diguten informazioa oso baliogarria da, eta osagarria. Dokumentu idatzien edukia portulano edo garaiko mapekin alderatzen baditugu, orain aipatu ditugun hiru hiribildu horiekin batera, Gipuzkoako kostaldean Oiartzungo portuarekin identifikatuta agertzen den “Uarca/Varca”-k leku lehenetsia osatzen du. Egoera hau oso goizetik islatzen da, 1313. urtetik, hain zuzen ere¹³⁷.

Dena den, mapa horietan ez ziren populazio guneak bakarrik islatzen, bestelako elementu geografikoek ere beraien lekua zuten; hor ditugu eten-gabe agertzen diren Higer edo Matxixako lurmuturrak. Funtsean, tresna grafiko horiekin nabigazio on bat bermatu nahi zen eta hori dela eta, kostaldean zeuden eta itsasoan ongi aritzeko aproposak ziren elementurik nagusienak adierazten ziren, eta Oiartzunen aipamena, edo hobe esana, “Oiartzungo kanala” izenez ezagutzen zen Pasaiaiko badiaren agerpena, horien baitan ulertu behar dugulakoan gaude. Zalantzarik gabe, eta Historiak erakutsi duen bezala, lehen mailako atsedenekua zen; baina horrek ez du esan nahi, nahi eta nahi ez, munduaren hastapenetatik eta etenik gabe komunitate sendo edo guztiz eratutako herri baten aurrean gaudenik¹³⁸.

137. Horiek lirateke, zalantzarik gabe, Gipuzkoako kostaldean ageri zaizkigun punturik nagusienak. Pietro Vescontek 1313-1325 bitartean egindako portulanoak, *Dolcert-en 1339koa*, 1375 inguruko atlas katalana, 1390eko anonimoa edo Albertin de Virgak 1409an egindakoa ikusi besterik ez dugu. Hauetarako guztietarako, ikus BOCHACA, M.; eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B.: “Ports, havres et mouillages de Bayonne (Gascogne) à Bayona (Galice) d’après les routiers de la fin de Moyen Âge”. In: GARCÍA HURTADO, M. R.; eta REY CASTELAO, O. (arg.), aip. lan., 47-58 orr.; FERREIRA PRIEGUE, E.: *Galicia en el comercio marítimo medieval*. A Coruña: Fundación “Pedro Barrie de la Maza”. Universidad de Santiago, 1988, bereziki txertatzen diren irudiak; MOLLAT DU JOURDIN, M.; eta LA RONCIÈRE, M. de la: *Les Portulans. Cartes marines du XIII^e au XVII^e siècle*. Fribourg: Office du Livre, 1984; eta PUJADES I BATALLER, R. J.: *Les cartes portolanes. La representació medieval d’una mar solcada*. Bartzelona: Institut Cartogràfic de Catalunya, 2007, non, inprimatutako lanaz gain, CD-ROM batean material desberdinen bilduma digitala dakarren.

138. Halako material grafikoan erabilera, zalantzarik gabe, Euskal Herriko Erdi Aroko merkatal dinamika ezagutzeko eskuarri garrantzitsu zein ezezagunetako dugu. Apenas inork erreparatu dien oraindik. Aitzindari batzuk badira ere (ald. CIRIQUIAIN-GAIZTARRO, M.: *Los puertos marítimos vascongados*. Donostia: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 1951, 15 orr. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña...”, aip. lan., 186 orr.), salbuespenik nabarmenena Iñigo RUIZ ARZALLUZ da (“De Oiasso a Huarcha...”, aip. lan., bereziki 512-514 orr.).

Neurritz edo kritika eginez hartu behar badira ere, horietan islatutako informazioek portu-hierarkiak ikertzeko lortatz nabarmenak ematen dituztela argi dugu. Gipuzkoari dago-kionez, benetan azpimarragarria da, XV. mende erdialdera arte, Orío, Zarautz, Zumaia, Deba eta Mutrikuren isilunea, azken hauen itsas-garapena garrantzitsua izan bazen ere. Orioren

Edonola ere, eta ezaugarri geofisikoez haratago, XIII. mende amaierarako Oiartzungo portua burdin-esportazio gune garrantzitsua zen, zalantzarik ez dago. Gaztelako Antso IV.aren garaian hamarren zaharren inguruan egin-dako kontuek ondo adierazten dute errealitate hori¹³⁹. Testuinguru honetan

...

kasuak, halaber, populazio bakoitzaren baitan izan ziren dinamika ezberdinak agerian uzten ditu. Modu honetan, ezin dugu pentsatu, orain arte mantendu den bezala, kostaldean kokatutako hiribildu batek itsasoarekin berebiziko harremanik zuenik edota unibertso horri lotutako jarduera ezberdinak (arrantza, merkataritza edo ontzīgintza) neurri berean ematen zirenik. Orio, gainera, Oiartzunen inguruan diogunaren adibide bikaina da. XIII. mende amaieran burdin-esportazio punturik garrantzitsuenaren izan bazen ere, XVI. mendera arte itsasoarekin izan zuen harremana oso eskasa izan zen eta ordura arteko portulanoetatik zeharo baztertua dago. Honen inguruan, ALBERDI LONBIDE, X., aip. lan., 90-97 eta 1102-1106 orr. eta bereziki, IRIXOA CORTÉS, I.: “¿Una pequeña villa costera medieval con escasa proyección marítima? Reflexiones en torno a la economía de Orio (Gipuzkoa) a fines de la Edad Media”. In: MILLÁN DA COSTA, A.; AGUIAR ANDRADE, A.; eta TENETE, C. (arg.): *O papel das pequenas cidades na construção da Europa medieval*. Castelo de Vide: Instituto de Estudos Medievais, 2017, 317-339 orr. Kostaldeko populazio guztiak antzeko garapen azpimarragarria izan zutenaren adibiderik esanguratsuenaren, egungo egileez aparte, HEERS, J.: “Le commerce des Basques en Méditerranée au XVe siècle (d’après les archives de Gênes)”. In: *Bulletin Hispanique*, 57 (1955), 292-324 orr. dugu. Badirudi inork ez diela erreparatu bere garaian Juan Ignacio RUIZ DE LA PEÑA zenak idatzitako hitzei, zeinekin guztiz bat gatozen: “*el nivel de participación de las flotas norteñas en el comercio mantenido con los puertos mediterráneos fue muy diverso, variando según las áreas regionales; y dentro de éstas, obviamente, no todas las villas portuarias participaron en esa actividad en la misma medida. Por otra parte, y por lo que toca a la cronología de esa presencia, se observan también diferencias regionales a tener en cuenta*” (RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I.: “Las villas castellanas de la costa cantabro-atlántica...”, aip. lan., 58 orr.).

Portulano eta material kartografikoen erabilerari buruz, ald. Andaluziako kasuan, Víctor MUÑOZ GÓMEZ-ek darabilzkien ikerkuntza interesgarriak. Ikus, besteak beste, iker-tzaile horren “Para el conocimiento de la costa de la Andalucía atlántica (siglos XIV-XVI): Descripciones, relaciones y documentación náutica”. In: *Historia, Instituciones, Documentos*, 40 (2013), 179-205 orr. edota “Puertos, abras, cabos e islas: La topografía medieval de la costa atlántica de Andalucía a través de las cartas portulanas (ss. XIV-XVI)”. In: AZNAR VALLEJO, E.; eta GONZÁLEZ ZALACAIN, R. J. (koord.): *De mar a mar. Los puertos castellanos en la Baja Edad Media*. La Laguna: Universidad de La Laguna, 2015, 179-211 orr.

139. DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: “Comercio y fiscalidad en Guipúzcoa a fines del s. XIII (según las cuentas de Sancho IV)”. In: *EAE*, XXXVII (1981), 85-148 orr. Ald. LÓPEZ DAPENA, A.: *Cuentas y gastos (1292-1294) del rey D. Sancho IV el Bravo (1284-1295)*. Córdoba: Publicación del Monte de Piedad y Caja de Ahorros de Córdoba, 1984, 50 orr. eta hh., zeinak Donostia, Oiartzun, Higer, Hondarribia eta “La Nao” izeneko portuetatik sartutako produktuak desberdintzen dituen, erregistroak berak jasotako banaketan oinarrituz. Laugarren izen horren atzetik beste portu bat baino, askoz azalpen logikoago bat legokeela uste dugu. Hamarren zaharren erregistroak Donostiatik inportatutako salgaiak erregistratu ondoren, 13 merkatarik egun berdinean (abenduaren 19an) sartutako merkatalgaiei apiamena egiten die, honakoa jarriz: “*Esto es lo que veno después d’esto* [Donostiako erregistroaren ondoren, alegia] *en la Nao*”; hau da, ziurrenik Donostiara eta itsasontzi berean (“la nao”) zetozen produktuak, Luis Miguel Díez de Salazar zenak adierazten zuen moduan.

Hondarribia zein Donostiako jatorri gaskoieko merkatariek negozio horretan parte hartuko lukete, garai hartan Oriotik ateratzen zen burdinarekin egin zuten moduan; hau da, metalaren esportazioaren negozioa beraien eskuetan egongo zen. Baina “Oartzungo portua” leku garrantzitsu edo lehentasi baino, hierarkia apalago batean zegoen puntua izango genuke; Orioren antzera, anezka bat litzateke, produktuak Donostiara (edo Hondarribira) bidali eta azken horretatik nazioartera hedatzeko¹⁴⁰. Testuinguru horretan, gaskoietako gutxi batzuk Orereta inguruetan kokatu zirela pentsatzea zilegi da, negozioarekin harreman zuzenagoa izateko asmoz. Modu honetan, Bailarako euskaldunek badiako uretan finkatutako zenbait gaskoiekin elkarlana bultzatuko zuten. Leinu, sendi zein pertsonak Bailararen jurisdikziopean zegoen badiako urak ukitzen zituen lekura joaten hasiko ziren, inguruko burdinoletan lantzen zen metalarekin lotutako jarduerari etekin handiagoa lortze aldera, eta Oreretan azpiegitura xume batzuk ezarriz. Honela, Oreretan Donostia eta Hondarribiko (eta Getariako?) gaskoien eta Bailarako euskaldunen arteko harremanak uztartuko ziren¹⁴¹.

Alta, jorratzen dugun gaskoien Oarsoaldeko finkatze prozesu honek ahulezia bat du. 1318an, Hondarribia eta Getaria arteko merkatal bidean, erregeak bi ainguraleku jartzea agintzen zuen: bata, Donostian; bestea, Oartzungo kanaleko “cod de mastel” delakoan, gaur egungo Kodemastin, alegia:

“por fazer bien y merced al concejo de San Seuastián e por guardar no se pierdan algunas naves e vaxeles que arribarían e podrían arribar en los puertos de San Seuastián y que quando la tormena faze no osando entrar [***], así que se pierden muchas naos e vaxeles en muchos algos (?), de que yo pierdo mis diezmos e los mis dineros que yo he de auer por razón que no osan [***]”

140. Ildo horretatik, Elena Barrenak eta José Antonio Marínek egindako hausnarketa interesgarriak oso aintzat hartu beharko lirateke. Ikus BARRENA OSORO, E. (zuz.); eta MARÍN PAREDES, J. A.: *Historia de las vías de comunicación en Gipuzkoa. 1. Antigüedad y Medioevo*. Donostia: GFA, 1991 (gaztelaniazko argitalpena erabili dugu, baina euskaraz ere badago).

141. Modu berean, eta ardatz historiografiko sendo bat eman ez badu ere, Getariako kasua hobeto aztertu beharko litzateke, jakinik gainera, nafar erregeek XII. mende amaieran hiribildu titulua eman ziotela eta XIII.-XIV. mendeetan zehar berak, Donostiak eta Hondarribiak berebiziko merkatal eta ekonomia-harremanak izan zituztela eta Gipuzkoako kostaldeko gunerik dinamikoena izan zirela. Getariaren inguruko hipotesi gaskoiares babesleatako bat E. BARRENA dugu (*La formación histórica...*, aip. lan, 349-350 eta 355 orr.), populazio horren eragina Villabona eta Zumaiara ere hedatuz, H. Gavel-ek ere aipatu zuen moduan (ikus BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica*, 288-294, 349-350 eta 355 orr.; GAVEL, H.: “Le nom de Fontarabie...”, aip. lan., eta ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La vida eclesiástica...”, aip. lan., 49, 51 eta 66 orr). Azken bi gune horien adibidearekin ados ez bagaude ere (hasteko, Granada toponimoa uste baino beranduagoa dela ematen duelako, XVII. mendekoa), zalan-tzarik ez dugu Getariako kasuan sakonki aztertu beharreko gaia litzatekeela.

se anclear(e) do ponen las naues o vaxeles que acaecen con algos dez maderos [sic], así como en los otros mis puertos, e para se avenir e dezmar con los mis dezmeros que están en los dichos mis puertos, tengo por bien y mando que aian lugar de anclear en el puerto de San Seuastián, ante la villa, desde las voyas de las nabes de las áncoras de las nabes e vaxeles que pasan y están en la concha contra fuera el bocal d'este dicho puerto, y en el canal d'Oyarçun desde el cod de mastel afuera. E para sennalar este lugar para anclear, mando a los conçejos de Fuenterrabía e de Guetaria en bien dos onbres buenos de cada lugar para que lo fagan así, y este lugar que estos sennalaran mando que se ancrearen saluo para do estén las naos o vaxeles seguros, según que están las naues e los vaxeles seguros en los otros mis puertos do han lugares de ancreajes”¹⁴².

Berriz ere Hondarribia, Donostia eta Getaria merkatal-hirukia agertzen zaigu. Eta, aipatzen garen hipotesiaren ildotik, Orereta merkataritza-erlazio horien tokitzat edota gaskoi komunitate baten bizileku hartuko bagenu, zaila zaigu elkartasun etnikoa alboratuz hura ainguraleku moduan ez hautatzea eta bai, ordea, ia bokalean zegoen leku bat. “Oiartzungo kanalean” ainguratzeko gunea hautatzeko ardura izango zuten gizon-onen artean Bailarakorik ez egotea ere, dokumentuak ematen duen isilune esanguratsua da; argi dago Oiartzunen edo Oreretan beraien jarduna bideratzen zutenek inguru horiek ezagutuko zituztela, ziurrenik getariarrek baino hobeto. Oiartzungo portua hamarren zaharra biltzeko lekua izaki eta dokumentuan erregeak bere hamarrenen eta bestelako sarien galeraren argudioa aintzat hartuta, bitxia da ainguralekua badia barrenean ez jartzea, Kodemasti baino leku aproposago batean. Hau guztia gutxi balitz, handik gutxira mugimendu sakon eta esanguratsu bat eman zen: 1320an erregeak Oreretan hiribildua sortzeko agindua emango du, Oiartzungo hainbat biztanlek eskatuta.

Orain arte Oreretan hiribildua ezartzearen ekimena ez da 1318ko dokumentu horrek islatzen duen Oiartzunen aipamen ezaren ondotik ulertu. Argi dago, ordea, aintzat hartu beharreko kontua dela. Hiri-gutunean azaltzen diren babes kutsuko argudioak argudio, “Oiartzungo Hiriberria” sortzeko arrazoen artean, alboratua sentitu zen eta burdinaren negozioan esatekorik zuten komunitate bateko hainbat kideren interesak ere ikusi beharko lirarteke. Hiribildutasuna komunitate gaskoi batek erakutsitako plana balitz, eta jakinda inguruetan jatorri kultural eta linguistiko bereko kideak zeudela, agi-riak islatzen duen bazterketa zaila egiten zaigu. Pentsa liteke, beraz, hiribildua sortzeko asmoak azaldu zituztenak euskaldunak izan zirela, Bailaratik beheranzko bidea egindakoak, agian aurretik ezarritako gaskoi gutxi batzuen laguntzarekin. Ondorioz, gaskoiak komunitate sendo gisa XIII. mende

142. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., XII. dok. eta MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 127. dok.

amaiera aldean ezarri zirenaren ideia baztertu behar dugulakoan gaude eta horren ildotik, Erreteriak ustezko gaskoi kutsua duten toponimoen inguru-koak ere, berraztertu beharrean gaudela uste dugu.

Horrek, dena den, ez du esan nahi Erdi Aroan zehar gaskoiek eragin kulturalik izan ez zutenik, edo halakorik gurean baztertu behar dugunik. Gauza jakina da Europako atlantiar isurialdeko kostaldean zeuden hiribildu eta herriek ezaugarri amankomunak izan zituztela, tartean mailegu linguistikoak eta ziurrenik, eragin kultural desberdinak (janzkera, onomastika, eta abar)¹⁴³. Horren lekuko lirateke izenetan ageri diren “-ot” “-et” atzizki txiki-tzaileak¹⁴⁴. Hauek jatorri okzitanierazkoak eta moda probentzalaren eraginez eragindakoak dira. Nafarroa eta Aragoiko onomastikan oso hedatuak daude, baina baita Donostia, Pasaia eta Hondarribian ere. Hori dela eta, ez da harritzekoa Erreterian edota, hein txikiago batean, Oiartzunen ere ikustea, nahiz eta halako prozesuek Gipuzkoan izan zuten islaren inguruan, azterketa geografiko eta kronologikorik eginda ez dagoen¹⁴⁵.

4.1.2. Oiartzun / Huartz izenen inguruan

Hainbat ikertzailearen arabera, gorago aipatu ditugun Huarche, Huarcha edo Huarz bezalako terminoek Oiartzunek okzitanieraz edo gaskoiez zuen izenaren molde desberdinak lirateke. Izena, ordea, ez letorke Bailaran jatorri etniko hori osatuko lukeen komunitate batetik, handik gertu finkatutako gaskoiek edo Lapurdikoek emandako izenetik baizik¹⁴⁶. Hala, Howeden-en zein material kartografikoen iturria gaskoiek osatzea, XII. mende amaieran

143. Honen inguruan, SOLÓRZANO TELECHEA, J.: “Santander, puerto atlántico medieval”. In: *Santander: Puerto, Historia, Territorio*. Bilbo: Autoridad Portuaria de Santander-Universidad de Cantabria, 2011, 93-125 orr., bereziki 121-125 orr.

144. CIERBIDE, R.: *Primeros documentos...*, aip. lan., 37 orr.

145. Oiartzuni dagokionez, datuak ez dira oso ugariak eta hori, dagoeneko, nahiko adierazgarria da. 1499ko estimazio liburuan oso gutxi azaltzen zaizkigu: “Matiu” Udizibarkoa, Marxinot bastagilea, Estebetxoren suhi Johanot eta izen bereko Johango Zamorakoaren suhia. 1511n, berriz, Juanikot edo Johanikot Beraungoa eta Johanot Soroetakoia ditugu, eta 1520an, berriz, Johanot Zalduakoa. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.; eta LEMA PUEYO, J. A.: *Documentación medieval del Archivo Municipal de Oiartzun. I. Libro de estimaciones fiscales de vecinos y bienes raíces (1499-1520)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2011, bereziki 38, 44, 57, 166, 189, 194, 199 eta 203 orr. Matxinot bastagile hori hainbat urte lehenago ikus dezakegu, 1475ean, Bailarako udalbatza ireki batean (HH. EE.: *Documentación medieval...*, aip. lan., 26. dok., 106 orr.). Alabaina, XIV. mendetik XV. mende erdialdera arteko agirietan oso adibide gutxi ikusten dira. Ald. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta SAN MIGUEL OSABA, A.: *Documentación medieval del Archivo Municipal de Oiartzun. II. Pleito de ferrones (1328-1514)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2012. Erreteriak, berriz, XVI. mende hasieratik oso datu onomastiko esanguratsuak aurkezten ditu, “-ot/-et” atzizki horietatik haratago.

146. Kodemasti edo “*cod de mastel*”-ekin gertatu bezala.

biztanle horientzako Donostia eta Getaria arteko eremuak zuen erabilera adieraziko luke; beste era batera izanda, itsasoarekin lotutako jardueran gascoiek Gipuzkoako kostaldean izan zuten garrantziaren lekuko litzateke.

“Huarca” / “Uarça” izena XII-XIII. mendeetan eta hurrengo gizalditik aurreragoko material kartografikoetan islatzen da. Halaber, 1237an “Huarçon / Huarten” edo antzeko adiera agertzea, Donostia eta Hondarribiko elite gascoieko kide batek edo giro horretan hezitakoren batek dokumentuaren idazketan izandako nolabaiteko eraginaren isla ikusi izan da. Aldaera horren tradizio idatzia, kartografiara ez ezik testuetara zabaldu zen, XII. mende amaieratik XIV. mende erdialdera arte mantenduz: “Uarça” edo 1301eko “Uharçen” forma gaskoia, oraindik orain 1334ko latinezko dokumentu batean agertzen zaigu, “Ucharçum” eta “Uharçum” moduan¹⁴⁷.

Ez dira, ordea, izenaren aldaera desberdinen inguruan aintzat hartu beharreko testu bakarrak. Howeden-en garaikideak diren bi agiri dira lehenengo eta behin azpimarratu behar direnak. Batetik, Antso Handiari 1027 urtean egotzen zitzaion Iruñeko gotzain-barrutiaren zehaztapenaren dokumentu faltsua. Egileak ez dira ados jarri iruzur dokumentala noiz egin zen adierazterako garaian, baina gehienek XII. mendearen azken hamar-hamabost urteetan egindakotzat dute¹⁴⁸. Dokumentu horretan Belatetik Donostiara arteko lurraldean hainbat bailara zehazten ziren, besteak beste “*Lerin, Oiarzun, Lauaien, Berastequi...*”¹⁴⁹. Bestetik, Zelestino III.-ak 1194an Baionako apezpiku-barrutia mugatzen duen agiria dugu. Dokumentuan honako bailarak aitortzen zitzaizkion Iparraldeko gotzainari: Baztan, Lerin, Lesaka eta “*vallem dicitur Otarzu usque ad Sanctum Sebastianum*”¹⁵⁰.

147. Esan bezala, dokumentu hau 1414ko kopia eskuetsi batean iritsi zaigu, baina bietan “Oiarzun” toponimoa idazteko ohitura desberdina da: 1344ko agirian aipatu ditugunak islatzen badira, 1414an burututako testuan (eta urte bereko beste batean) “Oyarçum” agertzen da. Ondorioz, kopiak XIV. mendeko jatorrizko dokumentuan azaldutakoa errespetatu zuelakoan gaude. Ikus RUIZ DE LOIZAGA, S., aip. lan., 8-b, 20, 21, 24 eta 57 dok.

148. Gonzalo Martínez Díezen azkeneko ondorioek XII. mende amaierakotzat zuten, Elena Barrenaren ustetan 1186-1189 urte artean burutu zen eta Isabel Ostolazak, aldiz, XIII. mendean egindakotzat zuen eta Isabel Ostolazak, aldiz, XIII. mendean egindakotzat zuen, nahiz eta datazio hori argudiatzeko inolako arrazoirik ez eman (ald. OSTOLAZA, M.^a I., aip. lan., 163-164 eta 176 orr.). Ikus, bereziki, BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan., 141-149 orr. (datazioaren inguruan, 142 orrialdeko 12 oin-oharra eta 340-346 orr.).

149. MARTÍNEZ DÍEZ, G., aip. lan., 170 orr. eta BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan., 434 orr.

150. Dokumentu honetan azaltzen diren hainbat ezaugarrik atentzioa eman diete iker-tzaileei eta faltsutzat jotzen ez bada ere, oso berezitat daukate. Ikus OSTOLAZA, M.^a I., aip. lan., 164-165 eta 186-188 orr. eta BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan., 338 eta hh., bereziki 345-347 orr. eta 416 orr. Ikus, baita ere, MARTÍNEZ DÍEZ, G., aip. lan., 144 eta 211 orr., zeinak 145 orrialdean honakoa dio: “...hubo un intento de Bayona hacia

Aldaera bat zein bestea, dokumentuaren sorrerarekin zerikusia zuten erakundeek azal lezaket. Honela, Nafarroatik toponimo euskaldunak askoz gehiago hartuko ziren aintzat, beraiekin ohikotasun handiagoa izango baitzuten. Adibide bat Donostiako Foruan bertan dugu, 1180 urte inguruan. Bertan ez da “Oiartzun” aipatzen, baina hiribilduari ematen zitzaizkion mugak zehazterakoan, “*de Undarabia/Hundarribia usque ad Oriam*”; hau da, “Fuenterrabía / Fonterrabiam / Fontemrapidum / Fontisreindi” izenen euskal aldaera¹⁵¹.

Hondarribiko hiri-gutunean, aldiz, mugetarik batzuk “*de ribo de Iharcen usque ad ribum de Fonterabia*” dira. “Iharcen” hau aldaera benetan bitxia da, baina akats bat izatea ez genuke baztertu behar. Izan ere, gaur egun ez dugu jatorrizko hiri-gutuna kontserbatzen, 1498ko sutearen ondorioz suntsitu baitzen. Kopiarik zaharrenak 1503tik aurrera egindakoak dira baina horietan irakurketak ez dira beti berdinak izaten, aitzitik, anitz aldaera aurkezten dituzte: *Iharcen, Charce, Charcen, Charçe, Charse, Iharçum* eta baita *Oyarzum* ere¹⁵².

Ondorioz, badirudi Nafarroatik errazagoa zela euskarazko moldea adieraztea, Baionatik gaskoi/okzitaniarra erabiltzen zen bitartean. XIII. mende

...

el año 1105, no renovado posteriormente, de ampliar sus límites diocesanos con Hernani y San Sebastián, quizás como consecuencia del establecimiento de los gascones en Fuenterrabía, Pasajes y San Sebastián, o del reforzamiento de sus colonias mercantiles... XVII. mende hasieran egindako gaztelaniako itzulpenak, bere aldetik, “*el balle que se diçe Olearçu hasta San Sebastián*” moduan itzuli zuen. Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 2. dok.

151. MARTÍN DUQUE, A.: “El Fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica”. In: *Donostiako Forua eta bere garaia*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-25 orr. (jatorrizko artikulua ordez, honako berrargitalpen hau darabilgu: *Príncipe de Viana*, 63 (2002), 695-716 orr.); “Fontisreindi” aldaera baterako, ikus 1353ko urtarrilean, Hondarribian Baionak eta Gaztelako Padura osatzen zuten hiribilduek sinatutako adostasun-hitzarmena (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 285 dok.).

152. Ikus LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., III. dok. eta NOAIN MAURA, M. J., aip. lan., 300-302 orr. “Oyarzum” irakurtzen dutenen artean honakoak daude: GOROSÁBEL, P. de: *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa, con un apéndice de Cartas-Pueblas y otros documentos importantes*. Tolosa: Pedro Gurruchaga, 1862, eranskin dokumentaletan (“Ojarzum”), Hondarribiari dagokion zatian; LLOBREGAT, C. de: *Fuenterrabía. Noticias históricas*. Donostia: Gráficas Fides, 1942³, 11 orr. eta bertako 1 oin-oharra; MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 4. dok. Ald. NOAIN MAURA, M^a. J., aip. lan., 74 orr. eta ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.), aip. lan. 26 orr.

hasierako Gaztelan, berriz, erdibidean leudeke, batez ere pribilegio-eskatzailleen bitartekariak gaskoiak zirenean eta toponimoak latinez edo gascoiezko forma jator bat zuenean. Diogunaren lekuko “1027”ko dokumentua dugu, Nafarroako auzialdietatik baitzetorren. Bigarrena, aldiz, 1194ko hori, Zelestino III. Aita Santuak Baionako gotzainaren erreguei emandako erantzuna zen, hau da, gaskoia indarrean zegoen lekutik egindako eskaeraren ondorioa. Azken agiri honek gure hipotesia ezbaian jartzen duela aitortu behar dugu, horri jarraituz “Huarz” topatzea begietara hobeto emango bailuke, “Otarzu” baino¹⁵³.

Gaztelako errege-azuzaldietan XIII. mende hasierako joera, amaierarako gutziz aldatu zen, gaskoi kutsua zuen formari euskalduna gailendu zitzaizolarik. Gizaldi amaieratik leku-izenak hartzen dituen aldaerak “Oartzun” euskal formari lotuak ageri zaizkigu: “Oyarço” 1293-94 urteetako hamarren zaharraren kontuetan, “Oyarçu” 1318an, “Oyharçu” 1338ko agirian eta azkenik, 1343an egin zen Errenteriako hiri-gutunaren berrespenean, “Oyarço” eta “Oyarçu”¹⁵⁴. Natura gaztelarreko dokumentu horietatik salbuespena, 1237ko idatziak ematen du, “Huartan/Huarcen” moldea ageri baita. Hipotesi interesgarri bat plazaratu da gaskoitik gertuago dagoen forma hori azaltzeko: erregeari Alfontso VIII.aren pribilegioak berresteko eskaera egin ziona Donostiako gaskoi bat izatea, zeina Bailararen izenean ziharduen. Lotura hau ez litzateke baztertu behar: batetik, dokumentuak berak Donostiako gizonei Oartzunekin zituzten babes betebeharrak errespetatzeko agintzen zielako; eta bestetik, 1316an bertan parte hartzen zuen eskribaua bera donostiarra zelako, eta orduan “Uharçun” idazten zuen heinean, 1301ean “Uharçen” izkiriartzen zuelako.

Aldaera gaskoi/okzitaniarraren zantzuak, kartografian azaldutakoak alde batera utziz eta dokumentu berriak azaldu artean, 1340 inguruan itzaltzen direla ematen du. Horietako hainbatetan eskribau donostiarrek parte hartzen dutela ikusiko dugu, hau da, tradizio gaskoian txertatuak daude. Azkenik, Gaztelako erresumak geroz eta indar administratibo handiagoa lortzen doan heinean, euskal aldaeraren gaztelaniazko forma gailentzen joango da. Honela, hasierako aipamen dokumental dezente tradizio “arrotz” edo

153. Ohartu behar dugu ez dela “1027”ko jatorrizko dokumentua gordetzen. Agidanez, hiru kopia kontserbatzen dira: lehenengoa, Iruñeko katedraleko funtsen artean dagoen XIII. mendeko gutun-liburu edo kartularioan, “Liburu Borobila” deritzona; AGN-NAO-n, XIV. mendean egindako bat eta, azkenik, 1511ko bat. Horien inguruan, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G., aip. lan., 25-27 orr.

154. 1320ko hiri-gutuna ez dugu aintzat hartzen, 1343ko dokumentu batean iritsi zaigulako.

kanpotar batekin zerikusia izango lukete, gaskoien eraginean oinarrituta egongo zena; “Oiartzun” forma, berriz, inguruko euskal hiztunek (gizartemaila gorenean zein apalenetan zeudenek) erabilitakoa litzateke. Halaber, prozesu horrek bestelako esanahi bat luke: Bailararen izenean ziharduten hasierako bitartekari gaskoi horiek hamarkada gutxiren buruan oiartzuarrei beraiei leku egin zietela.

Usadio arrotz horren baitan, 1316ko dokumentua ulertzea oso erraza litzateke, zer esanik ez, forma “Uharçon” denean. Esan bezala, Gipuzkoako ekialdean ohitura administratibo eleanitz bat islatuko luke, baita Oiartzungo udalbatzak gaskoiarekin zuen nolabaiteko lotura ere; baina azken honen oinarrian ez legoke bertan finkatutako elite gaskoi bat, inguruko hiribildu garrantzitsuetan esparru horretan ematen zen joera baizik.

Izenaren ingurukoekin amaitzeko, beste datu bat jorratu nahiko genuke; Fernando III. Oiartzungo bailarari 1237an zuzendu zion pergaminoaren atzealdean agertzen den oharretako bat, hain zuzen ere. Testu horrek honakoa dio: “*Seppan todos los hombres d’Oyharçon que son sus (?) preui/legios de plomo, VII. / E los preuilegios de çera son VI. / E más son las cartas de las auençias [...]*”.

Orain arte ohar horri erreparatu dion bakarra José Antonio Munita izan da, hausnarketa interesgarriak burutuz¹⁵⁵. Hauetan, idatzi hori dokumentuaren beraren garaikidetzat du. Hala hartuko bagenu, alde batean gaskoiezko aldaera eta bestean euskalduna ikustea, bitxia litzateke. Arrazoi bat, dokumentuaren hizkuntza genuke: latinezkoan “Uharçen” agertzeak modu formalekoa adieraziko luke, izena esateko modu jantziago bat; “Oyharçon”, berriz, erromantze gaztelaniarrez azaltzen zaigu eta testu edo ohar informal batean txertatzen da. Garaikidetzat jotzeko, errege-instantzietan zeuden ohitura administratiboak aintzat hartu ditzakegu. Adituen esanetan, erromantze gaztelaniarrak Gortean izan zuen erabilera nabarmen igo zen 1231tik aurrera, harik eta 1246-1252 epean dokumentuen %81,4 hizkuntza horretan egon arte¹⁵⁶.

155. Ald. MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan., 93-97 orr. Ahaztu gabe dokumentu horretan bertan 1237ko agiria kantzilertzan aurkeztu izanaren hiru ohar edo auto idatzita daudela. Autoak 1388, 1393 eta 1459koak dira eta ez ziren Eusko Ikaskuntzaren bilduman transkribatu. Ikus, EUA, B-1-1-1.

156. 1231-1240 eperako, berriz, %21,2koa izan zen. Ikus FERNÁNDEZ-ORDÓÑEZ, I., aip. lan., 333 orrialdean agertzen den taula esanguratsua, eta gure dokumentu honi dagokionez, MUNITA LOINAZ, J. A., aip. lan., 91 orr.

I Taula

Errenteriako udal artxiboan zigiluzko beruna zuten dokumentuak (1237-1371)¹⁵⁷

Urtea	Zigilua	Non
12??	?	Galduta? ¹⁵⁸
1237	Berunezkoa ¹⁵⁹	Errenteriako udal artxiboan
1318	Berunezkoa	Errenteriako udal artxiboan
1320	Berunezkoa ¹⁶⁰	Galduta
1338	Berunezkoa	Errenteriako udal artxiboan
1340	Berunezkoa ¹⁶¹	Galduta

157. Zerrenda honetan ez ditugu 1318ko Kodemastiri lotutako agiria (Donostiari zuzendutakoa) eta Irun eta Oiartzuni 1328an emandako olagizonen forua jarri, nahiz eta berunezko zigilua izan. Ez bata, ez bestea, ez dira Errenteriako udal artxiboan gorde. Bigarrenari dago-kionez, jatorrizko dokumentua eta Endrike IV.ak egindako 1460ko berrespena galdu egin direla ematen du. Izan ere, gaur egun gordetzen dena ez da originala edo berrespen bat, 1514ko auzi batean dagoen kopia bat baizik (ald. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 1. dok.; eta MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 154 dok.). Galera horren lekuko, Errenteriako udal artxiboan gordetzen den eta Oiartzungo udal artxiboari dagozkion 1630eko bi inbentario ditugu; bertan, olagizonen forua (1338an datatua) eta Endrike erregearen berrespena jasotzen dira. Alabaina, 1630eko bigarren inbentarioan dokumentuaren laburpenak ohar adierazgarri bat du, “*Es de Renteria*” dela adieraziz. Ikus EUA, B-1-4-1.

158. Arrastoa oso goiz galdu zela ematen du, 1320rako gutxienez. Alfons XI.ak hirigutuna eman zuzenean, berak baino lehen bere aita Fernando IV.ak, aitona Antso IV.ak eta birraitona Nuño III.ak emandako mesedeak erakutsi zitzaizkiola aipatzen du, Alfons VIII.arena aipatu gabe. Honen inguruan, ald. CALLEJA PUERTA, M., aip. lan.

159. Gaur egun galduta dago eta harien marka badu ere, dokumentu ez da ezer zehazten, ezta inbentarioetan ere (ald. adibidez, 1768 eta 1770ekoak: “*vn privilegio (...) en pergamino de la confirmación de los buenos usos y costumbres del valle de Oiarzun concedido por el señor Rey Don Fernando*”). Alabaina, J. A. MUNITA-ren azterketa sakonak berunezkoa zela ondorioztatu zuen (aip. lan., 87-88 orr.).

160. Kopia eskuetsian aipatzen da: “*mandamos seellar este privilegio con nuestro sello de plomo*”. Ald., baita ere, CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 5 dok.: “*E otrossi, que nos enbiaron pedir mered que les manásemos poblar en el dicho lugar e faser y villa e çercarla (...) e Nos, por les faser merçed toviemos por bien e mandamosles [dar] nuestro previlejo seellado con nuestro seello de plomo*”. 1735eko eta 1780ko inbentarioetan oraindik jatorrizko dokumentua gordetzen zen, modu honetan deskribatua: “*en un pergamino grande con su escudo real embuelto en vn palo con su sello de plomo pendiente*” (ikus EUA, B-1-4-1).

161. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 5 dok. Kopia eskuetsian aipatzen da: “*e d’esto les mandamos dar esta nuestra carta seellada con nuestro seello de plomo*”. Ikus, baita ere, 1351ko kopia eskuetsia (*ibidem*, 7. dok): “*vi una carta del rey don Alfonso, mio padre que Dios perdone, escripta en pargamino de cuero e seellada con su seello de plomo colgado*”.

Urtea	Zigilua	Non
1343	Berunezkoa	Erreneriako udal artxiboan
1351	Berunezkoa ¹⁶²	Erreneriako udal artxiboan
1371	Berunezkoa ¹⁶³	Erreneriako udal artxiboan

Alabaina, azken ohar horren kronologia zehaztu beharrean gaudela uste dugu, bereziki letra moldeari erreparatzen badiogu. Gureak susmo hutsak direla onartu behar dugu, zaila baita gotika kurtsibo horren kronologia zehaztasunez finkatzea, baina oharra XIV. mendearen erdialdean zehar burututakotzat genuke. Horren lekuko “Oiartzun” aldaera aurkezten duten dokumentuak genituzke edo, nahi izanez gero, forma hori islatzen duen originalik zaharrena, 1343koa; bertan “d’Oyharçu” aldaera agertzen da, eta 1237koaren oharra ikusita, letra antzekoa duten dokumentuak dira.

Kronologia berri horrek eta oharrak aditzera ematen dituen datuak ardatz hartuta, bertan aipatzen diren agiri kopuruaren inguruan hainbat ohar egin daitezke. Gaur egun Erreneriako artxiboan gordetzen diren 1237-1371 arteko sei dokumentuetatik, guztiek berunezko zigilua izan zutenaren aztarnak dituzte. Horiei 1320ko hiri-gutuna eta 1340ko berrespenaren dokumentu originalak gehitu beharko genizkieke, gaur egun beraien kopia eskuetsiak besterik ez baditugu ere, bertan egiten diren adierazpenek jatorrizkoek berunezko zigilua zutela argi uzten dutelako. Ondorioz, 1237ko agirian dagoen oharra aintzat hartuta, metal horretan egindako zintzilikarioak zituzten zazpi dokumentuak 1237 eta 1351 artean izango genituzke (**I Taula**).

Oharrak, dena den, badu bere mamia. Lehenengo eta behin, “Oiartzungo gizonek” zituzten pribilegioez ari delako. Adierazpen horrek Bailarari zuzendutako gutunez ari dela iduri dezake, 1237 urtea baino lehenago eman ziren ustezko mesedeei aipamena egingo liekeelarik. Testua beranduagokotzat hartuko bagenu, “Oiartzungo hiriberriko (alegia, Erreneriako) gizonei” erreferentzia egiteak logika handiagoa luke, eta ez bailarakoei. Baina testuinguru historikoa aintzat hartuz, oharra XIV. mendearen erdialdekoa izatea ez litzateke baztertu behar.

Kontuan hartu behar dugu Oretetan hiribildua egiteko agindua eman zen ia une beretik Bailararen eta hiribilduaren arteko borrokak abantzu etengabeak izan zirela. Tira-birek hainbat esparru hartu zituzten beraien

162. “*E d’esto les mandé dar esta mi carta seellada con mio seello de plomo colgado*” (*ibidem*, 7. dok).

163. “*E d’esto les mandamos dar esta nuestra carta sellada con nuestro sello de plomo colgado*” (*ibidem*, 12 dok.).

gain, toponimikoa tartean¹⁶⁴. Oiartzunen izena bereganatuko zuen hiribildua Oreretan sortzeak sinbolismoz betetako kolpea izan zen Bailararentzat, aurretik zuen zentraltasun politiko, administratibo eta ekonomikoa galtzen zuelako. Egoera honek, diogun bezala, borroka toponimikoari ere bidea ireki zion, bi aldeek “Oiartzun” izenaren zilegitasuna beretzat mantendu nahi baitzuten. Honen aurrean, errege-kantzilertza desberdinetan alde bati zein besteari dokumentuak zuzentzerakoan sortutako nahasmena agerikoa izan zitekeen, Oiartzun leku-izena bai Hiriberriari zein Bailarari zuzentzeko erabiliko zelarik. Gainera, 1237ko agiria Erreterian “beti” (hau da, 1320tik) egon dela aintzat hartzen badugu, “Oiartzungo Hiriberri”-aren izenean zihardutenek Bailarako biztanleen ordezkarietza ere beretzat hartuko zuten, errege-instantziak komunitate bat bestearengandik desberdintzeko lanak izango zituztelarik.

Ildo horretatik, XIII. mende hasierako dokumentuaren inguruan beste kontu azpimarragarriak ere bada: bizi izan zuen dinamika dokumental eskasa. Hiri-gutuna edo bestelako dokumentuekin gertatu ez bezala, ez omen dago 1237ko agiriaren kopia edo kopia eskuetsirik, ez Erreterian, ezta Oiartzunen ere. Bitxia da, kopia egiteko asmoz Gaztelako Kantzilertzan hiru aldiz gutxienez aurkeztu baitzen: lehenengoa Madrilen, 1388ko urtarrilaren 29an; bigarrena Medina del Campon, 1393 martxoaren 12an, eta azkenik, Valladoliden, 1459ko apirilaren 30ean¹⁶⁵. Hiru aurkezpen-autoetako batek azaltzen duten moduan, Erreteriarako ordezkariak Oiartzunekin zuten liskarren testuinguruan erakutsi zioten kantzilertzari¹⁶⁶. Horrek, Erreteriarak

164. Berriki Luis Elberdinek bikainki frogatu duen bezala. Ikus bere *Orereta/Erreteria. Gure toponimiaren ibilbidea* (txosten argitaratugabea). Eskerrak eman nahi dizkiogu Elberdini berari, bai txostena helarazteagatik, baina bereziki horren inguruan planteatutako galdera, iradokizun eta zalantzenegatik.

165. Ikus EUA, B-1-1-1, pergaminoaren atzealdean idatzitako testuak. Irakurketa zailtasunak direla eta, GPAH-AHPG-ko teknikari Ramon Martinek utzitako Wood lanpara erabili dugu horretarako. Eskerrak, beraz, berari, eta Erreteriarako artxibozain Leonor Garcíari, dokumentua kontsultatzen uzteagatik.

166. Alde horretatik, 1459koa da arrazoietan argiena. 1393koak “Erreteriararen eskubi-deen alde” aurkezten dela dio eta 1388koa, aldiz, ez du aparteko gauzarik esaten: “*En Madrit, estando en la chançillería de nuestro sennor el rey, lunes, veynte e nu[eve] de enero, anno del Nasçimiento de Nuestro Señor Ihu Xpo de mill tresientos ochenta e ocho annos, ante los oydores de la avdiencia del dicho sennor rey, par[eciò] [...] en nombre del conçejo de la Villa Nueva d’Oyarço et presentó esta carta en nombre de la su parte...*”. 1459koak, berriz: “*En la noble villa de Valladolid, estando y la Corte e chançellería de nuestro sennor el rey, lunes, treynta dias del mes de abril, anno del Nasçimiento del Nuestro Saluador Yhu Xpo de mill e quatroçientos e çinquenta e nueve annos, (...) paresçió y presente Ferrand Gonzalez de Alua, en nombre del [conçejo?], alcaldes e preuoste e regidores e omes buenos de la Villa Nueva de Oyarçun, sus partes, e para guarda de su derecho e en prueua de su intençión en quanto por sus partes fase o faser puede e non más [ny] allende [en el plito que ant’ellos traba] con la tierra de Oyarçun...*”.

bere interesen aldeko froga moduan erabiliko zuela pentsatzera garamatza, bere burua 1237an aipatzen zen Oiartzungo udalbatzaren ondorengotzat aurkeztuz. Eta horrek errege-erakundeetan sortuko zuen nahasmena agerikoa litzateke, oharrean aipatzen diren “Oiartzungo gizon” horiek logika izango luketelarik.

Bestalde, dokumentuak bi galdera uzten ditu agerian. Batetik, argizarizko 6 pribilegiari egiten zaien aipamena dago, horien inguruan ez baitugu inolako arrastorik¹⁶⁷. Bestetik, ustezko adostasun-hitzarmenak genituzke. Oharrean zenbat ziren ezin da jakin baina Fernando III.aren agerian Donostiako udalbatzak Oiartzunekiko babes-betebeharrak azpimarratzen badira, pentsa daiteke ordurako hainbat akordio sinatu egin zirela. Alabaina, Alfontso VIII.aren garaitik horren epe laburrera hainbat agiri sortu izana deigarria da, bereziki 1237 eta 1318 artean isiltasuna nagusi denean; zaila zaigu arazoak berehala konpondu zirela pentsatzea. Bestalde, gaur egun kontserbatzen diren agiriak aintzat hartuta, ez dirudi kontuak bat datozenik. Esan bezala, 1237 urteko babes-betebeharrak kenduta, tira-biren inguruko berriak 1318ko bi dokumentuetan eta 1338 eta 1340koetan ageri zaizkigu, baina agiri horiek guztiek berunezko zigilua duten pribilegio desberdinak dira. Gorde diren lehen epaiak 1364an hasten dira¹⁶⁸, eta zalantzak ditugu oharraren idazkera garai horretatik aurrera kokatzerik dugun ala ez. Hala izanez gero, oharrean azaldutako dokumentu kopuruak logika luke, ordurako ika-mikak ia etengabe sortzen ari zirelako. Gure susmoak egia balira eta oharraren datazioa XIV. mende erdialdean kokatu beharko bagenu, horrek esan nahiko luke 1351 inguruan aurreko hamarkadetan sortutako arazoan ildotik hainbat dokumentu sortu zirela, gerora suntsitu edo desagertu zirenak.

4.2. Pontika eta Alaberga, toponimo berantiarrak

Agiri desberdinek esandakoan oinarrituz, Erreteria-Oiartzun inguruetan eman zen usteko eragin gaskoia azaltzeko beste hipotesi bat mahai-gaineratu daiteke. Oraingoan Donostiatik Altza inguruetara joandako mugimendurekin harremana planteatu dezakegu. Ideia honek kronologian aurrera egitera garamatza, eta XII-XIII. mendeetako gaskoiak alboratuta, gure burua XIV. mende erdialdean kokatu behar dugu, orduan sustatutako ekimen batez ari baikara. Ez hori bakarrik, ideia honek Erreterian gaskoi

167. 1320ko hiri-gutunean adierazten diren errege-agirietarako, ikus supra, 73 oin-oharra.

168. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M., aip. lan., 11 dok.

kutsua eman zaien bi toponimoen inguruan jardutera ere garamatza, Pontika eta Alabergari buruz, hain zuzen ere¹⁶⁹.

Bi leku-izenak gaskoien eraginaz hitz egiteko erabili dira. Alabaina, Erreterian bildu diren beste hamaiken artean gaskoi kutsukoak bi besterik ez izatea, benetan adierazgarria dela deritzogu; kopuru oso txikia da. Beste horrenbeste esan dezakegu onomastikaren inguruan. Gaur egun XV. mende hasiera arteko ezagutzen ditugun dokumentuekin, gaskoi izaera duten leku-izenen eskasia pertsonen izen-abizenetan ere dakusagu; Camón/Gamon bezalako abizenak, adibidez, XV. mendearen bigarren erdialdetik aurrera ikusiko ditugu, ez lehenago¹⁷⁰. Norbaitek pentsa lezake horrek guztiak ez duela gaskoien eragin goiztiarra ezbaian jartzen. Gerta zitekeen XII.-XIII. mendeetako “gaskoi tantak” “euskaldunen itsasoaren” artean urtzen joatea eta haien arrasto toponimiko eta onomastikoa hamarkada edo belaunaldi gutxiren buruan desagertu izana¹⁷¹. Horrek Baiona inguruetatik etorritakoen ahulezia edo itzaltze goiztiarra islatuko luke, Erreteria sortu aurretiko dokumentazioan Oiartzun/Huartz toponimoaren aldaeren garapenarekin bat eginez. Alabaina, Pontika eta Alabergaren inguruko azterketa batek horiek berandu samar finkatu zirela adieraziko digu, uste daitekeena baino geroagokoak baitira.

169. MÚGICA, S.: *Gascones...*, aip. lan., 30 orr.

170. Hautetan adierazgarriena, zalantzarik gabe, Pierres Camongoa dugu. Abizen hau XIII. mendeko Baionan ikus daiteke (BIDACHE, J., aip. lan., 92 eta 200 orr.). Agramont/Agaramont abizena 1457ko ahalorde batean dakusagu (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 339-5, 2 at.-4 au. folioak). Bestalde, Gamon (edo Camon) eta Pontika abizenak XV. mende amaieran elkarturik ditugu (ikus ARChV. Registro de Ejecutorias, 269-4). Azkenik, XVI. mendearen lehen erdialdean Zurubiz (edo Surubis) abizena agertzen zaigu, baina Erreterian ordura arte tradizioz gabeko abizena dugu, bai, ordea, Donostian eta XIII. mendetik eta gutxienez XV. mende hasiera arte. Badakigu Laurentz Zurubizkoa donostiarra 1388 urtea baino lehenago zendu dela (LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A.: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (1250-1515)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995, 36. dok.).

171. Honela, XIII. mendearen erdialdetik aurrera, burdin esportazioaren negozioaren baitan, Orereta inguruetan bakan batzuk finkatu zirenen ideiarri indarra emango litzaioke; jende gutxi izanik, gehiengo euskaldunaren artean sakabanatuko lirateke (ziurrenik berdin gertatu zen Getarian, bere hiribildutasunean eragin gaskoia egon zela aintzat hartzen badugu). Ildo horretatik, Jaca hirian gertatutakoarekin antzekotasun bat legoke. Hiri aragoarrak XIII. mendean garapen interesgarria aurkezten du. Frankoen forua 1077 urte inguruan eman zitzaionetik, populazio atzerritarraren pisua nabarmena izan zen XIII. mendera arte, eta errealtate hori 1137 eta 1238 artean egin ziren erroldak agerian uzten dute. Alabaina, azken urte horretan aldaketa demografiko-onomastiko bat ematen ari denaren seinaleztat hartua izan da, 1215eko populazio-zerrendarekin alderatuta izen-abizen frankoen beherakada bat sumatzen baita. Ordezkapen etniko honek, hala ere, ez omen zion hasiera batean gaskoiari eragin, 1238ko ordenantzak hizkuntza horretan egin baitziren, mintzairaren pisu kultural eta administratiboa agerian utziz. Ikus supra, 124 oin-oharra.

Hasteko, esan dezagun Alaberga eta Molinao artean zegoen mugarrin baten aipamena 1495ean dugula. Badirudi, bi uestezko toponimo gaskoien artean zegoen eremua garai hartarako zedarritu zela, ziurrenik Donostia eta Errenteriarren arteko jurisdikzioa banatzeko eta horren inguruan sortzen ziren eztabaidei amaiera emateko. Jakina denez, Molinao toponimoak ordurako hainbat hamarkadako bizitza zuen, oso luzea ez bazen ere. Lehenengo aipamena 1448koa dugu eta “molino nuevo” deritzo, gaztelaniaz; gaskoi aldaera (“molinao”) urte gutxiren buruan azalduko zaigu, 1456an, baina ordutik forma lehenetsia bihurtuko da¹⁷².

Hasiera batean, XIV. mendean emandako Altzako populatze-prozesuaren baitan Alaberga eta Pontika inguruetan Donostiatik etorritako jatorri gaskoieko pertsonak edo sendiak ezarri zirela pentsa daiteke. Horretarako Bidebieta-San Pedro inguruetan Arnaobidao, Trintxer eta San Matet (edo Samated) izenak aintzat hartu behar ditugula uste dugu. Azken hiru izen horien finkapena XIV. mendearen erdialdera eman zen prozesua izan zelakoan gaude; gehienak Altxamuñorako ibilbidea jarraitu zuten bitartean, hiru horiek badiaranzko bidea hartu zuten. Alabaina, beraien helburua ez zen itsasoari lotutako jarduera bideratzea; aitzitik, Altzan ezarri zirenen xede ekonomiko bera jarraituz, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak garatzea bermatzen zuten eremuetan ezarri ziren; uretatik gertu baina, aldi berean, bertatik aldentuta. Hiru izenek gerora oinetxeak sortu zituzten, eta Alaberga eta Pontikarekin beste horrenbeste gertatu zela ematen du, bai, behintzat, lehenengoarekin¹⁷³. Ondorioz, hasierako ideia Pontika eta Alaberga kronologia berean sortu zirela pentsatzea litzateke. Joera horri jarraituz, Altxamuñotik Molinaorako bidea egin eta aurrerago joanda, bi abizen gaskoi finkatuko ziren Donostiako lurretan, abeltzaintza eta nekazaritza jarduerak

172. Bestalde, Donostiako lursailek inguratzen zuten errota: “*La qual rueda e molino es en el término e iuridición de la dicha villa de Sant Sebastián, teniéndose al brazo de mar que entra por el Pasaie en el logar que se llama [***] e se llama la dicha rueda ‘el molino nuevo de Alça’, e es conoçido por el dicho nonvre, que se tiene por la parte de baxo a la dicha canal del Pasaie e por las otras partes e términos conseiales de la (...) dicha villa de San Sebastián*” (LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta LEMA PUEYO, J. A., 55. dok.). Ikus, baita ere, LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altza XIV. eta XV. mendeetan...”, aip. lan., 63-65 orr. Gerora ere “Molinao” hori lehenetsiko da, 1475ean eta 1495ean dakusagun moduan. Ikus CRESPO RICO, M. A., CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 64 eta 85 dok.

173. Hala dio GAMON-ek (aip. lan., 46 eta 311 orr.), baina ikusiko dugunez, horrek ez du esan nahi aspaldi-aspaldikoak zirenik. Ez hori bakarrik, Pontikaren “oinetxetasun” hori halamoduzkoa dela deritzogu, XVI. mendean ez baita “oinetxe” bezala aipatzen eta bai, ordea, etxe bezala. Arnaobidao, Trintxer eta San Matet edo Samateterako, ikus IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrek Erdi Aro amaieran...”, aip. lan. eta, berriki, IRIJOA CORTÉS, I.: “Contingentes cantábricos...”, aip. lan.

aurrera eramateko eta, hala, Urumeako hiribilduak beharrezko zituen hornigaiak ekoizteko.

Hipotesi honi jarraituz, toponimoak sortu baino hamarkada gutxi batzuk lehenago idatzitako dokumentu baten bidez, Orereta inguruek hiribilduaren sorrera ikusia zuten. Pontika-Alaberga herrigunetik aldentuta bazeuden ere, herria ez zuten oso urruti eta inguruko lursailek nolabaiteko erakargarritasuna izango zuten. Esparru horrek gaskoi izenak hartzeko, hainbat hipotesitan pentsa daiteke: batetik, modu naturalean Altza-Molinao inguruetan kokatuak zeuden pertsonak Erreteriarako bidea egitea; bestetik, eta beste hainbatetan abian jarritako lurraldearen kontrol-prozesu bati erantzunez, Donostiak inguru hori beraien auzoekin kontrolatzeko saiakerak egitea; azkenik, bi mugimendu horiek uztartzea, modu naturalean emandakoa plangintza baten bidez areagotuz.

Donostiaren interesak prozesu horretan eragina izanez gero, Pontika-Alabergan gertatutakoa Altzan jazotako mugimenduen arrakastaren ildotik abian jarritako ekimena litzateke; hau da, bi toponimoak ez genituzke prozesu nagusiaren garaikidetzat hartu behar, pixka bat beranduagoak bizik, Hirurehunaren amaieran edo Laurehunaren hasieran. Datazio berri hau askoz esanguratsuagoa litzateke, Pasai San Pedroko populatze prozesuarekin bat egingo bailuke. Hau da, Erreteriatik gertu jendea finkatzea XIV. mende amaiera aldera sustatutako kontua litzateke, badiaren jurisdikzioari lotuta 1374, 1376 eta 1399an eman ziren epaien ondotik eta ondorioz sortutakoa. Alabaina dokumentazioak aditzera ematen dituen datuak lotuz, ez du ematen, Pontikaren kasuan behinik behin, XIV. mende amaierako prozesuez hitz egin behar dugunik. Testuek oso informazio esanguratsua dakarte.

Gaur egun Pontika Erreteriako gunetzat badugu ere, duela bost mende luze gauzak ez zeuden hain argi. 1456an Donostiako eta Erreteriako udalbatzen arteko muga-kontuen inguruko liskarretan, Pontika izena zuten etxe eta etxaldea eta bere inguruak norenak ziren jakiterako orduan, ageriko zalantzak azaleratu ziren. Are gehiago, Migel Martinez Urdaiagakoak eta Martin Martinez Latsartekoak emandako epaiak higiezin horiek eta inguruko lursailak Donostiaren eskuetan utzi zituen:

“Otrosý, fallamos qu’el dicho conçejo, alcaldes, prevostes e regidores e omes buenos de la dicha villa de San Sabastián que tuvieron e tienen jusgado e juridición y execuçión e uso e exerçicio e juridición en la casa e casería de La Pontica e en sus tierras y canpos y heredades y en el juncal de cabo la Pontica, declaramos la dicha juridición pertenesçer e ser del dicho conçejo, alcaldes, preboste, regidores e omes buenos de la dicha villa de San Sabastián. E mandamos al dicho conçejo, alcaldes e omes buenos de la dicha Villa Nueva que non amolesten nin perturben en la dicha juridición de la dicha Pontica e sus

tierras e pertenencias ni en cosa alguna d'ello al dicho conçejo, alcaldes, preboste e omes buenos de la dicha villa de San Sebastián”¹⁷⁴.

Hori bai, beti ere bertara iristeko bideak Donostiak egiteko baldintzapean:

“E otrosý, por quanto el conçejo (...) de San Sabastián non podrían usar nin gozar de su juridiçión de la dicha Pontica e de sus tierras e heredades e pertenencias e del dicho canpo juncal si non oviesen caminos por donde yr, e porque en los caminos que ban desde la dicha villa de San Sabastián a la dicha Villa Nueva e a la dicha Pontica pordrian [sic] entre las dichas partes recresçer ynconbenientes y males e dannos deziendo cada uno de las dichas partes y en los dichos caminos cada vno d'ellos deven vsar de su juridiçión, por ende declaramos que en los dichos caminos qu'el dicho conçejo, alcaldes, preboste e omes buenos de la villa de San Sabastián tengan juridiçión e juzgado e poder de execuciön en qualesquier estrannos e bienes de estrannos fasta la dicha Pontica y en la dicha Pontica, mas que en los dichos caminos que son e fueren de dentro de los dichos mojones e apeamientos que nosotros fiziéremos para el dicho conçejo de la dicha Villa Nueva d'Oyarçun, que en los vezinos e moradores del dicho conçejo de la dicha Villa Nueva e de su tierra e término e juridiçión ni en sus bienes d'ellos nin de alguno d'ellos e que non ayan jusgado ni juridiçión el conçejo (...) de la dicha villa de San Sabastián ni alguno ni

174. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M.: *Colección documental... Tomo I*, aip. lan., 44 dok. Auziaren arrazoiak aditzera ematera-koan, “*deziendo cada uno de las dichas partes que los sus términos, comunes y exidos son e alcançan fasta la puente de Pontica y que la juridiçión suya es fasta la dicha puente, e los otros deziendo que los sus términos son fasta el monte de Pordeplata e fasta el dicho monte tienen juridiçión*” zioten (*ibidem*, 44 dok.). Bestalde, Donostiak Erretereriako muga honela aipatzen zuen, haren lurrak honakoak zirela esanez: “*como entra el braço de mar en el puerto e canal del Pasaje e ba ateniende a Vasanoaga y entre [sic] e pasa por devaxo la puente que es çerca la casa de Pontica, que se diz que se llama Ponticat, e dende arriba hasta Ybarrola e dende hasta el monte e sel de Viçaray e Camalvide como diz que taja el agua de la herreca e arroyo de agua que se dice que corre entre Çamalvide e Viçarayn (...) e dende ayuso a la reca e arroyo de agoa cabe yuso Yerdo, como e taja el agoa, como dicho es, desde la dicha agua e canal que dende Pasaje como va e pasa ateniende a Basanoaga y entre e pasa por devaxo la dicha puente hasta lo que ellos dizen términos de Murguía (...) e que todo lo que de los dichos límites e lugares susodichos haz a la dicha villa de San Sabastián, que hera e es término e juridiçión e juzgado el dicho conçejo (...) de San Sabastián...*” (*ibidem*, 41. dok.). Erretereriak, aldiz, “*desde al agoa e arroyo de Molinao que sube hacia donde viene a dar e demostrar el mojón e piedra antigua que fue puesta (...) en el lugar que le dizen de Abiçango, que taja e departe los términos de entre las dichas villas e sus tierras de Alça e aun el término qu'es de Murga [sic] (...) que son en el terminado que, como dicho es, fueron juzgados e executados por de término y juridiçión de la dicha Villa Nueva, e aun la casa y caseria de Pontica, vendida y rematada por execuciön e almoneda por el preboste de la dicha Villa Nueva, e los de la dicha villa aver tenido todo el dicho terminado e los montes e árboles y las yervas e toda la presiaçión de todo el dicho terminado como de su juridiçión, syn embargo ni perturbaçión ni deffendimiento de los de la dicha villa de San Sebastián con todas las tierras e pedreras e riberas e usos esentos de Vasanoaga e de la dicha mar y puerto*”. (*Ibidem*, 41. dok). Azpimarratuak gureak dira.

algunos d'ellos más que en todos los otros estrannos e bienes de estrannos que ayan la dicha juridiçión y en los dichos caminos y en la dicha Pontica y en sus tierras e pertençias e campo juncal, e non en otra cosa ni en los otros caminos e exidos que ser, fueron e son de la dicha Villa Nueva d'Oyarçun”¹⁷⁵.

Esan bezala, hitzok oso prozesu adierazgarria darakuste. Lerrorik nagusienetan, XV. mende erdialderako inguru horiek zer hiribilduri zegozkion jakiteko garaian, zalantza handiak zeudela aditzera ematen dute; eta dudarik bazen, higiezinak duela gutxi eraikitzen hasiak zirela esan nahiko luke. Beste era batera esanda, epaiak, ordura arte ustiaketa edo presio antropiko sakonik gabeko eremu baten aurrean gaudela adierazten digu; horren presio txikia eta kronologikoki berria, ezen Pontika etxera iristeko bideak ere apenas eginak zeuden. Egoera hau zela eta, leku horren gainean eskumenak nork zituen jakitea ez zen bat ere samurra. Ordura arte hori argitzeko behar gutxi zegoen, ingurua eremu hutsa baitzen, edota interes gutxikoa.

Gogora dezagun, gainera, XV. mendeko azken laurdenean “Pontika” abizena Donostia zein Erreterriako auzoen artean dugula, etxea sortu zutenek, lehenengo biztanleek edo beraien lehenagokoek izan zitzaketen joera ezberdinen seinale; batzuk beraien begirada Urumeako hiribilduan jarriko zuten eta beste batzuk, berriz, Oiartzun ibaiaren ondokoan. Horrek, gure ustetan, Pontika sortu zutenak Altxatik etorri zirenen hipotesia berretsiko luke: abizen ezezaguneko batzuek zubitxotik gertu etxea altxa zuten, eta azpiegitura hori zenez inguruari izena ematen ziona, etxearen izenarekin beraiek beste horrenbeste egingo zuten. Modu honetan, bertatik aterako ziren Erreterriara joango zirenak, baina baita 1478 urtean agertzen zaigun Martin Pontikakoa donostiarra ere; ziurrenik, bera izango zen Pontika abizena hartu zuten horien lehenengo belaunaldiko kideetako bat, Migel eta Joanekin batera¹⁷⁶.

175. *Ibidem*, 44 dok.

176. Martin Pontikakoa Donostiako auzoen artean agertzen zaigu, bertako udalbatzak Oiartzunekin Pasaiako portuaren inguruan dauden eztabaidak konpontzeko emandako ahalordean (*ibidem*, 68 dok.) eta 1483 inguru “Matxin” aldaerarekin udalbatzar ireki batean agertzen dena dela uste dugu (IRIJOA CORTÉS, I.: “Gobierno urbano en San Sebastián a fines de la Edad Media: crisis de linaje, conflictos y reestructuración política”. In: *BEHSS*, 49 (2016), 15-205 orr., bereziki bertako 4. taula). Abizenak jarraipena izango du XVI. mendean zehar: 1566ko Donostiako erroldan Domingo eta Bartolome Pontikakoa azalduko dira, jatorria Erreterriako etxean dutelarik (GARCÍA DE VICUÑA OLAIZOLA, I.: “Estudio sobre el padrón de San Sebastián de 1566”. In: *BEHSS*, 38 (2004), 77-148, bereziki 85 eta 132 orr), eta 1577ko apirilean Maria Migel Pontikakoa eta bere senar Pedro Ormaetxeakoak testamentua egiten zuen, 50 urteko elkarbizitzaren ondoren (ikus Laurgain Dorreko artxiboa, 7-3). Bartolome Pontikakoa, berriz, 1570 aldera oraindik bizirik zegoen (ald. Zabala Etxeko Artxiboa. Olaso. Añadidos, 318-21).

Azkenik, askoz adierazgarriagoa deritzogu dokumentuan Pontikari “oinetxe” moduan inolako aipamenik ez egitea. Horrek, gure ustetan, argi eta garbi islatuko luke duela gutxi burututako eraikina zela, garrantzia sozial handirik ez zuen etxe soila, hamarkada gutxiren buruan egoera arras aldaturiko bada ere¹⁷⁷.

XV. mende Erdialdeko eztabaiden zergatien artean, beraz, Pontika etxearen gaineko jurisdikzio-eskumenak nork zituen argitzea zegoen. Testuak aditzera emandakoaren ondotik, tirabirak Errenteriako udalbatzak higiezinahatzen bahituran hartu eta enkantean saldu ondoren hasi ziren. Horren aurrean Donostiak salaketa jarri zuen, halakorik ezin zela egin adieraziz, etxea bere lurretan zegoela argudiatuz eta ez, ordea, Oiartzungo Uriberriaren jurisdikziopean. Agidanez etxearen eraikuntzak arazoei ateak ireki zizkien; hura eraiki baino lehenago ez zegoen tira-birarik, edo ez zen esparru horren mugarrizkoa egiteko beharrik ikusten. Behar ezak inguru horietan burutzen ziren jarduerekin lotura zuelakoan gaude. Bertatik oso urruti ez zegoen Alaberga leku-izena sarobe moduan aipatzeak, inguruetan abeltzaintzan oinarritutako jardun batean pentsatzera garamatza, nekazaritzak lurrarekiko duen lotura eta atxikitzea ez duen aktibitate batera, hain zuzen ere¹⁷⁸.

Hasiera batean, eremu horretan zubitxo bat eraiki zen, eta inguru guztian zegoen egiturarik adierazgarriena izango zenez, lekuari izena eman

...

Bestalde, Londresko portuaren 1480-1481eko erregistroetan, Joan Basurtokoaren (edo “John Debassorto”) ontzian Migel Pontikakoa merkataria zamaturako salgaiak ikus ditzakegu. Hainbat urte beranduago, 1488an, Migelen itsasontzi bat da Londresen dagoena. Bi datuek ez digute Migelen auzotasunaz ezer adierazten, baina garai hartan Errenteriako merkataritzak Ingalaterran zuen leku lehenetsia Bristol zela aintzat hartuta, eta ez Londres, agian Pontika merkataria eta ontzijabe hori donostiartzat hartu beharko genuke. Migelen datuetarako, ikus COBB, H. S.: *The Overseas trade of London. Exchequer customs accounts, 1480-1*. Londres: London Record Society, 1990, 263. erregistroa, 480 orr.; JENKS, S. (arg.): *The London Customs Accounts. Part III: The Dynasty of York (1461-85). Number 5: 20 Edward IV (1480/81)*. Lübeck: Hansischer Geschichtsverein, 2016, 118 orr.; eta JENKS, S. (arg.): *The London Customs Accounts. Part IV: The Tudor Dynasty (1485-1553). Number 1: 3 Henry VII (1487/88) - 5 Henry VII (1489/90)*. Lübeck: Hansischer Geschichtsverein, 2016, 113 eta 158 orr. (“Ponteka” bezala). Eskerrak eman nahi dizkiogu Bristolgo unibertsitateko Margaret Condon ikertzaileari Jenks-en lanaren berri emateagatik.

177. Errenteriako Pontikatarren inguruan, IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D.: *Errenteria a inicios de la Edad Moderna...*, aip. lan. 446-448 orr. eta 593 orrialdeko zuhaitz genealogikoa. Ziurrenik egoera hau Juan Pontikakoa ontzi-maisua politikan genuke. Datuen arabera, bera izango litzateke Pontika etxea eraiki zutenen semea (eta 1478an agertzen zaigun Domingo donostiarraren anaia?) eta ondarea handitzearen ardura, tartean hiribildu barruko etxea eskuratuz.

178. Ikus LANDA IJURKO, I.; eta ETXEBESTE GONZALEZ, J. C.: “Altzako Erdi Aroa izenez-izen”, aip. lan., 72 orr.

zion. Molinaoren adibidea ikusita, zubia Altza inguruetako gaskoien ondorengo baten ekimenez burutu zela pentsa dezakegu; eta errota berriari “Molino Nuevo de Altza” edo “Molinao” eman zitzaion moduan, zubiak, txikia izanik, “Pontica” edo “La Pontica” izena hartu zuen.

Azpiegitura hori altxatzeak ez zuen jurisdikzio buruhauste handirik emango, azken finean, egitura xume bat besterik ez zen. Baina inguru horietan lurrari eta nekazaritzari estuki lotutako etxe, basetxe, saletxe edo etxaldea eraikitzea beste kontu bat zen, bai esparru ekonomikotik baina baita ikuspegi fisiko eta sinbolikotik ere. Oso harreman adeitsuak ez zituzten bi hiribilduren arteko mugan zeuden higiezinak ziren eta, beraz, halakoak lehenago eraikitzen zituenak, bertan kontrol handiago bat ezarri eta inguru horren jabetza beretzat erreklamatzeko pausoa emango zuen; non eta etengabeko kalapitak sortzen ari ziren Pasaia badiaren inguruko lurretan¹⁷⁹.

Honekin guztiarekin zera esan nahi dugu: kutsu gaskoieko Pontika leku-izena ez dugula XII. edo XIII. mende hasieran ustez finkatutako gaskoi komunitate batekin lotu behar. Hori baino, Altzan eta Pasaialdean 1350 ingurutik aurrera eman ziren pausoen ildotik sortutako ondorio berantiarra litzateke; izan ere, horietan ez bezala, zubia ez zen XIV. mendean eraikiko, hamarkada luze batzuk beranduago baizik¹⁸⁰. Hala, Erreterian gaskoi jatorria zuen toponimo hau, XV. mendeko bigarren herenaren inguruan eraikitako azpiegituretan izango zuen oinarria¹⁸¹.

179. Beste kontu bat, Pontikako ustezko burdinola eta errota noiz eraiki ziren jakitea litzateke. Gure uste apalean, lehenengo azpiegitura ez zen egin. Gamon da aipatzen duen egile bakarra eta zeharkako modu batean, bertan XVIII. mende amaieran omen zeuden zepa, sarra eta mea hondarretan oinarrituz. Haren ustetan, 1476ko frantziarren erasoaldian suntsitua izan zen. Gerora ez dago inolako arrastorik eta burdinolen inguruan Luis Miguel Díez de Salazar zenaren lanek isiltasun adierazgarria islatzen dute. Guk geuk ere, burdinolaren inguruan ez genuen inolako aipamenik topatu. Errotari dagokionez, 1490erako eraikia zegoen iada eta 1506an Joanes kapitainaren jaraunspenean sartzen bada ere, badirudi XV. mende amaieran Olaitzarrek higiezinaren jabetza eskuratu zutela; gerora zati hau, prozesu betearazle baten ondorioz, 1499 eta 1537 urte bitartean Donostiako Elduaiendarren eskuetan egon zen; Olaitzarrek azken urte horretan berreskuratu zuten eta 1550ean hiribildura pasa omen zen. Luis Elberdini eskerrak eman nahi dizkiogu, ildo honetatik egindako ohar eta iradokizunengatik.

180. Hori da, hain zuzen ere, gaskoi jatorrizko toponimiarekin eman den akatsik nabarmena; guztiak garai berean eman zirela pentsatzea. Gure ustetan, Donostia-Hondarribian, Altzan edo Pasaian ikus daitezkeen prozesuak ez ziren ez garai berean eman, ezta Baionatik etortritako jendearen eskutik eman ere. Ald. IRIXOA CORTÉS, I.: “Atzerritarrak Erdi Aro amaieran...”, aip. lan. 77-81 orr. eta ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C., aip. lan.

181. Ondorioz, bere garaian Koldo Mitxelenak berak agertutako zalantzak are argiago gelditzen dira oraingoan. Ald. MUJICA, L. M.: *Euskal Toponimiazko materialeak, VII. alea: Gipuzkoako Ipar-ekialdea. Hernani, Donostia, Pasaia, Lezo, Erreteria*. Donostia: GFA, 1989, 155, 317, 388 eta 430, eta bereziki MICHELENA, L.: “Apellidos vascos”. In: LAKARRA, J. A.; eta RUIZ ARZALLUZ, I. (arg.): Luis Michelena. Obras Completas, IX: Onomástica. ‘Julio Urkixo’ Euskal Filologia Mintegia-GPF-EHU/UPV. Donostia-Gasteiz: 2011, 102 orr. (1-235).

Alaberga toki-izenari dagokionez, Urdaiaga eta Latsartek 1456an emandako epai horretan bertan Donostia eta Errenteriararen arteko izaera mugakidea agerian geratzen da. Bi udalbatzek amankomunean izango zituzten lursail, hesigabe, herri-lur edo usak zedarritzerako garaian, mugari bat Alaberga sarobearen ondoan, Donostiatik Errenteriarako bidearen aldamenen jarriko zela adostu zen: “*cabo el sel de Alaberga, cabo el camino real de cómo van de San Sabastián a La Rentería*”. Berau dirudi leku-izenaren aipamenik zaharrena, baina ordurako inguru horretan presio antropikoa areagotzen ari zen, epaiaren jakinarazpena Agirre etxe eta basetxearen aurrean egin baitzuten, hau da, Alabergako kortatik gertu: “*delante la casa e casería de Aguirre, qu’es çerca el sel de Alaverga, en la jurisdicción de la Villa Nueva d’Oyarçun*”¹⁸². Eremu horretan gizakiak bere jarduna areagotuko duenaren adibide hori bera Alabergak ere ezagutuko du, hurrengo hamarkadetan sarobeak etxeari lekua egingo baitio: 1533an “*casa de Laberga*” ikusiko dugu eta 1595ean, aldiz, etxeak elizan hilobi propioa zuela aditzera ematen da¹⁸³. Bestalde, Alaberga izenaren inguruan hipotesi ezberdinak sortu dira, besteak beste jatorrizko izena “labar” hitzetik eratortzea. Sarobe moduan agertzea eta, beraz, abeltzaintzari lotuta egoteak, Behe Erdi Aroan zehar sortutako eta euskal izen jatorria duen leku batean pentsatzera eramanez gaitzake; egia da, ordea, dokumentazioak beti “Alaberga” aldaera islatzen dituela¹⁸⁴.

182. Ald. GOIKOETXEA, I. (zuz.): *Errenteriako Toponimia*. Errenteria: Errenteriako Udala, 2003 (http://ondarea.errenteria.eus/fitxategiak/liburu_osoia.pdf helbidean eskuragarri), non “Agirre” etxe hau Oiartzungo baseritzat hartzen den. Argi dago, ordea, Alaberga inguruetan kokatua izaki, ezin dela hori izan. Ald. IRIXOA CORTÉS, I.: “Portu aprobetxamendua eta gatazka: Donostia eta Pasai San Pedroren arteko harremanak Erdi Aro amaieran (1397-1503)”. In: *Itsas Memoria*, 7 (2012) (https://itsasmuseoa.eus/images/itsas_memoria_07/07_iagoirixoa_amplia_azkena.pdf), 37 oin-oharra. Halaber, 1677ko apirillean Beheko Kaleko etxe bati izen bera ematen zaio. Ikus EUA, A-1-20, 94 au. folioa.

183. Ikus GAO-AGG CO MCI 74 auzian txertatzen den Domingo Zurubizkoaren eta Markesa Isastikoaren arteko ezkontza-hitzarmena. Bestalde, horrek ematen du XVI. mendean zehar etxeari egindako aipamen bakarra, dokumentazioan gehiago sakondu beharko litzatekeela uste dugun arren. 1595eko maiatzaren 15ean, Marina Lezokoari hilobi berria ematea adosten da. Ehortz-leku hori, “*pegante a la sepultura de Laberga*” egongo da (EUA, A-1-6, 62 at. fol.).

184. Honela, 1524ko maiatzean “*canal (...) que es en Alaverga*” (EUA, A-1-2, 90 at. fol.) aipatzen da; 1566ko azaroan, aldiz, “*monte y mançanal llamados de La Berga*” (EUA, A-1-18, 112 au. fol.). Azkenik, 1540ko abenduaren 20an, udalbatzak lokatz-sail bat saltzen du: “*pedaço de tierra lodaçal e juncal que nos, el dicho conçejo, avemos e tenemos e poseemos por nuestro e como nuestro propio entre la dicha villa e los lagares de Alaberga*” (EUA, A-1-1, 108 at. fol.). Azken esaldi honetan “lagares” hitza zalantzarria da (agian “lugares” ere irakurri daiteke), baina 1642ko urtarrilaren 15ean “*lagares de Alaberga*” ageri zaizkigunez, agian horrela irakurri behar genuke (ald. EUA, A-1-6, 133 at. fol.). Ikus, baita ere, GOIKOETXEA, I., aip. lan.

Hipotesiak hipotesi, argi dago Molinao inguruetan gaskoiak edo kutsu horretako toponimiak garrantzia nabarmena izan zuela ematen du. Lekuari izena ematen dion kontzeptuaz gain, eta orain aipatu ditugun Errenteriako toponimoez aparte, badaude beste adibide batzuk; tartean, Pasaiako izen gascoien artean hainbatetan aipatua izan den Malvernet edo Marbernet errotarena¹⁸⁵. Leku-izen berantiarra dugu, eskuratutako datuen arabera, besteak baino beranduago agertutakoa, lehenengo aipamena 1528koa baita. Badirudi hainbat leku-izen gaskoik sorrera berantiarra izan zutela, baina Altza-Molinao-Malvernet-Alaberga-Pontika inguruaren okupazio donostiar-altzatarraren baitan ulertu behar ditugula. Ondorioz, kutsu gaskoi hori Altzatik etorri zela planteatu daiteke, zer esanik ez “Malvernet”-en esanahia “Altzadi” denean¹⁸⁶.

4.3. 1432ko gaskoiezko su-eten eta bake-ituna

Errenterian gaskoiak izan zuen eraginaren adibide idatziez aritu direnean, egileek 1432ko su-eten edo bake-hitzarmena jarri izan dute. Serapio Mugica dugu horretan aitzindaria eta, beste hainbatetan bezala, ikerkuntza ezberdinek berak esandakoei jarraitu diete¹⁸⁷. Bere artikuluan honakoa zioen:

“En la colección de Vargas Ponce que hay en la Academia de la Historia, tomo 34, está copiada la sentencia en gascón, que en la iglesia de Rentería se pronunció en 1432, dando una solución amistosa a los perjuicios causados mutuamente durante la guerra, entre Bayona y sus pueblos de Labourd, con Fuenterrabía, San Sebastián y Rentería, a cuya sentencia hemos hecho referencia antes”¹⁸⁸.

Carmelo Echegarayk eta Fausto Arocenak, beraien aldetik, Gamon-ek Errenteriarri eskainitako lanean egin zuten “Reseña histórica de Rentería” izeneko eranskinean, beste horrenbeste zioten:

“Y, según una transcripción documental que se puede ver en el tomo 34 de la colección de Vargas Ponce, fue también en la iglesia renteriana donde se pronunció, en 1432, la sentencia escrita en gascón para distribuir las indemnizaciones por daños causados en las luchas entre Bayona y sus pueblos de Labort con San Sebastián, Fuenterrabía y Rentería”¹⁸⁹.

185. Gaur egun, Albernate. Ikus LANDA IJURKO, I.: “Altzako etxeak eta baserriak dokumentuetan”. In: *Altza, hautsa kenduz*, XII (2013), 29 eta 65 orr. (21-67).

186. Nahiz eta badakigun Molinaoren eraikuntza Landriguer pasaitarrarekin zerikusia duela eta XV. mende amaieran pasaidonibandarrek (errenteriarrek eta oiartzuarrek bezala) inguruetan sagastiak zituztela, eta agian prozesu horren ustiapenean bertako eta kanpoko jendeak zerikusia izan. Ikus IRIJOA CORTÉS, I.: “Contingentes cantábricos...”, aip. lan. Molinao-Altza inguruko toponimiarako, ikus LANDA IJURKO, I., aip. lan.

187. Ikus, adibidez, ORELLA UNZUÉ, J. L.: “La gasconización...”, aip. lan., 186 orr.

188. *Ibidem*, 186 orr. eta MÚGICA, S.: *Los gascones...*, aip. lan.

189. MÚGICA, S.: *Los gascones...*, aip. lan., 8 orr. Ikus, baita ere, GAMÓN, J. I., aip. lan., 387 orr. eta GAVEL, H.: “Notes sur...”, aip. lan., 78 orr.

Oraingoan ere, ez omen gaude jatorrizko dokumentu baten aurrean, iturria Vargas Ponce dela ematen baitu. Eta egile honek agiriaren inguruan jasotako informaziora joz gero, Mugicaren hitzekin alderatuta zenbait ezberdintasun aurkezten ditu. Cadiztarrak zera zioen:

“1432. Vn pergamino de más de vara en largo y menos de media en ancho que contiene una sentencia arbitraria dada a 16 ó 17 de diciembre de 1432 en la parroquia de Santa María de Rentería, entre las partes, San Sebastián, Fuenterrabía y Rentería con Bayona, decidiendo amigablemente los resarcimientos de robos y daños causados recíprocamente durante la guerra. Está en gascón (lenguaje muy semejante al lemosín, fácil de entender. Y más en este pergamino, que está bien escrito, donde á Rentería se llama todavía Villanueva de Oyarzun, y toma el último lugar y el primero San Sebastián) y por no hablar las tress [sic] bendiciones o artículos de que consta, de cosas de marina, se omite más noticia”¹⁹⁰.

Dakusagunez, Serapio Mugicak zioenaren aurka, Vargas Poncek ez zuen inolako transkribaketarik jasotzen, aipamen orokor bat baizik. Ez hori bakarrik; agiriak itsas esparruari lotutako gairik ez zekarrenez (!?), hari buruzko bestelako aipurik egitea baztertu zuen.

Gamon-ek, bere aldetik, ez zuen agiriari buruzko aipamenik egiten, baina ez da harritzekoa, ez baitu 1316koak erabilitako hizkuntzaren inguruan ezer adierazten. Are gehiago, uneren batean gaskoia administrazio-hizkuntza moduan Donostian bakarrik erabili zela dio, ez, ordea, Probintziako beste lekuetan¹⁹¹. Haren etsai historiografiko zen Caminok, berriz, bai, dokumentuaren ingurukoak bildu zituen:

“tambien hay otros Instrumentos del siglo XV concebidos en el mismo idioma; entre ellos una sentencia arbitraria y amigable pronunciada por los Jueces nombrados por San Sebastian, Fuenterrabía, Rentería y la ciudad de Bayona, sobre resarcimiento de represalias: particularidad digna de observarse; pues solo ha quedado y es usual dicho dialecto en ambos Pasajes, y de allí á menos de un cuarto de legua, nada entienden semejante idioma”¹⁹².

Gaskoiezko idatzia non egon zitekeen ez dakigu. Camino denez berari buruzko lehen aipamena egiten duena, Donostiako udal artxiboan zegoela

190. RAH, 9-4207, 13. Hortaz, Mugica, Echegaray eta Arocena oker dabilta, RAH-n dagoena transkribatu dugun Vargasen ohar soil bat baita.

191. Ikus GAMÓN, J. I., aip. lan., 243-244 orr.: “*se conoció el gascón en este pueblo [Donostia] y lo usó en instrumentos públicos hasta mediados del siglo XIV, como consta únicamente de su archivo y no de otro alguno del país ni de sus gentes*”.

192. CAMINO Y ORELLA, J. A.: *Historia civil-diplomático-eclesiástica, antigua y moderna de la ciudad de San Sebastián*. Donostia 1892, Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja, IX. Kapitulua. Ziurrenik hori da hainbat egilek XV. mendeko gaskoiezko adibidetzat eman dutena. Ald., besteak beste, CIERBIDE, R.: “Occitano languedocano y gascón...”, aip. lan. 769 orr. (“*otros varios [agiriak] del s. XV con sentencias pronunciadas por jueces nombrados por San Sebastián, Pasajes y Bayona*”).

pentsa daiteke¹⁹³; zoritxarrez, bertako inbentario desberdinek —zaharrek ala berriek— zein transkripzioek, ez dute 1432ko agiriari buruzko aipurik egiten.

Dokumentuaren inguruan esan direnak aintzat hartuta, ohar bat egin beharrean gaude. Epaia gaskoiez idaztea gauza logikoa da, hizkuntza horren errealitate administratiboa aintzat hartuta eta mugaldeko herrien arteko gaia zela ikusita; halakoetan bere erabilera eman egin zela frogatu dugu. Baina gauza bat hori da, eta oso bestelakoa, gaskoiez zegoen epai bat hizkuntza horretan aditzera ematea. Gauza jakina da gaztelaniazko testuak gaztigatzerako garaian euskaratu egiten zirela. Horretarako, herria elizan bilduta zegoelarik, apaiza zen, orokorrean, agiriaren mamia herriaren hizkuntzaz aditzera emateko ardua zuena. Hori izan zen, gure ustetan, oraingoan ere gertatu zena: gaskoiez egindako epai-idatzia beste hizkuntza batean aditzera eman zela. Itzulpena Errenteriako auzo batek ala beste norbaitek egin zuen, ez dakigu, baina hiribilduak Baionarekin zuen harremana ikusita, lehenengo aukera ez litzateke baztertu behar. Ondorioz, epai horren ingurukoak ongi azaltzeko, errealitate linguistiko-administratiboak oso aintzat hartu beharko liriateke.

XV. mendearen lehen hamarkadetako agiri honekin amaitu baino lehen, ohar bat egin nahiko genuke, izan ere, bada antz handia duen beste dokumentu bat, urte berekoa gainera. Bertan Donostia eta Baionaren arteko su-eten edo bake-itunaren berri ematen da. Beste dokumentuan bezala, haren inguruko lehenengo aipamenak Caminori zor dizkiogu¹⁹⁴ eta Vargas-ek ere oharrak egin zituen¹⁹⁵. Gaur egun gordetzen dugun kopia Hondarribiko udal artxiboan dago eta bere transkribaketa duela hainbat urte eman zen argitarara¹⁹⁶. Alabaina, oharu behar dugu ez dela agiri originala, eta nahiz eta datarik ez duen, XVI. mendearen lehenengo herenean sortutako kopia dela ematen du.

193. Ald. GAVEL, H.: “Notes sur...”, aip. lan., 78 orr.: “*mais nous ne pouvons douter que les pièces mentionnées par Camino n’aient réellement existé, car cet auteur n’aurait pu inventer sur ce point une allégation dont tout le monde pouvait alors contrôler l’exactitude*”.

194. XIII. kapituluan zera dio: “*Nuevamente se corroboraron estas capitulaciones entre San Sebastian, Bayona, San Juan de Luz, Bearriz, Cabreton y otros pueblos de aquella comarca ante Salvador Vidart, Notario Apostólico é Imperial en 15 de Abril, de 1432, mediante una carta-partida por ABC, como se acostumbraba en semejantes instrumentos de aquel tiempo*”. Merkataritzari eskainitako atalean, berriz: “*Igual confederacion mercantil se ajustó en 15 de Abril, de 1432 entre San Sebastian, Bayona, San Juan de Luz, Bearne, Cabreton y otros pueblos de aquella comarca, ante Salvador Vidart, Notario Apostólico Imperial, mediante una carta-partida dividida por A.B.C., segun se insinuó antes*”.

195. Ald. RAH, 9-4207, 12. dok.: “*1432. Concordia entre San Sebastián, Bayona y Labort sobre resarcimiento de daños y buena armonía entre sí*”.

196. LARRAÑAGA ZULUETA, M.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., XXXI dok.

Idatzia Donibane Lohizunen egin zen, apirilaren 15ean. Agiria burutzeko ardura, Caminok ondo zioen bezala, Baionako notario Saubat Bidartekoak izan zuen. Baina frantsesa edo gaskoia erabili ordez, gaztelaniaz egin zuen. Beraz, hemen ere, hizkuntza administratiboen inguruko adibide bikaina dugu, Iparraldeko notario batek bere esparru politiko-administratibotik at zegoen hizkuntza batean idatzitako agiri baten aurrean baikaude¹⁹⁷.

Bigarren dokumentu hau 20 kapitulu luzez osatua dago¹⁹⁸ eta guztietatik hamaseigarrena da interesatzen zaiguna, Erretereria aipatzen den bakarra baita. Honakoa dio:

“sean ynbiados y elegidos tres juezes e procuradores, aviendo suficiēnt poder por la parte de la dicha çibdat [Baiona], y tres juezes por la parte de las villas e concejos de San Sebastián, Fuenterrabía e Billanueva de Oyarçun, que sean en la dicha villa de Fuenterrabía todos aquí ayuntados dentro de quinze días primeros siguientes que serán requeridos por los dannificado o dannificados de cada una de las dichas partidas por dibçidir, sentençiar, determinar o amigablemente conponer sobre los dannos fechos e ynferidos de la una parte a la otra e de la otra a la otra durante e pendiente el término de la tregua de un anno postreramente fecha”.

1432ko agiri hauek, beraz, urte berean baina hainbat hilabete lehenago adostutako su-etenaren ondotik behar dira. Susmoak egon daitezke bi idatziren ordez idatzi berdinen aurrean ez ote gauden, baina hizkuntzaren aipamenak lotura duten bi dokumentu desberdinen aurrean gaudela aditzera ematen du.

Bigarren agiriaren inguruan Orellak iruzkin bat burutu du¹⁹⁹, baina egin den duen azterketa ez da guztiz zuzena. Ikertzailearen ustetan, ituna sinatu zutenen artean honakoak zeuden: “*San Sebastián y con esta villa los de su jurisdicción y aliados como Fuenterrabía, Villanueva de Oyarzun, Orio y Amuaiza*”. Adierazpen hauek, ordea, zuzendu behar dira. Hondarribia eta Oiartzuni dagokionez, hiru epaile-arbitroetako bi izendatzeko ardura izango zuten, ez besterik; ez ziren zuzenean interesatuak zeuden komunitateak. Orion eta Amuaiztan, berriz, interpretazio akatsa agerikoagoa da. Ez dute

197. Iritsi zaiguna kopia arrunta dela aintzat hartuz, agian ez litzateke baztertu behar jatorrizkoa frantsesez edo gaskoiez egotea eta Hondarribiko udalbatzaren eskariz gaztelaniaz egin izana, nahiz eta horren inguruan inolako ohar edo daturik ez izan.

198. Hogeita bi guztira, 4, 7, 12 eta 20 kapituluetakoko bakoitza bi itenez osatua dagoela aintzat hartzen badugu.

199. ORELLA UNZUÉ, J. L.: “Relaciones medievales entre Gascuña...”, aip. lan., 186-188 orr. Testua eranskin moduan sartua dago, Carmelo [sic, egiaz Bonifaciok egin baitzuen] Echegarayren transkribaketan oinarrituz.

inolako “aliatu” edo arazoan lekua zuten gunerik osatzen; aitzitik, esparru geografiko baten mugak adierazteko erabili ziren. Batetik, Orio leku-izenak kontzeptu geofisikoa du, bertako sarrera eta bokalari aipamena egiten baitio. Bestetik, eta agerikoagoa dena, “Amuaiza” leku-izena dugu. Elementu geografiko hutsa da, uharte, punta edo arroka. Egun, Amuaitz/Amuiz moduan iritsi da eta Hondarribiko toponimian guztiz errotutako izena dugu²⁰⁰. Orellaren uste ustel horiek baztertzeko, dokumentuan bertan jasotzen dena irakurri besterik ez dugu:

“se a acordado (...) que los de la dicha çibdat de Bayona ni los de los lugares de su partida no vengan, vayan ni tornen ni se acerquen por hazer mal ni danno a ningund nabío ni nabíos, personas, vienes e cosas que fuesen de parte de dentro de qualquier parte e condiçión que sean que venga o vengan a la dicha villa de San Sebastián o salgan fuera d’ella, es a saber: de la dicha villa de San Sebastián asta la entrada y bocal de Orio, el dicho bocal escluso, e de la dicha villa de San Sebastián azia la parte de Fuenterrabia, asta el licle o punta de Amuayça, e de la dicha villa de San Sebastián hazia la mar mayor a tres leguas...”.

Bestalde, Frantzia eta Gaztelako kororen barnean zeuden kostaldeko herrien arteko akordioak ez ziren gaskoiez bakarrik eman, latinak ere bere lekua izan zuen, baita gaztelaniak ere. Azken honen erakusle XV. mende hasieran sinatutako bi akordio ditugu, 1404 eta 1407 urtekoak. Alde bate-tik “Espainiako Padura eta Kostaldeko hiri, hiribildu eta lekuak” zeuden eta bestetik, Baiona, Miarritze, Donibane Lohizune, Capbreton eta “La Punta” (Lapurdi?). Bi adostasun-hitzarmenak Hondarribian burutu ziren, eskribau publiko moduan ziharduen Migel Ibañez Castrokoaren eskutik. Esan bezala, biak gaztelaniaz idatzi ziren, nahiko modu bitxian bada ere²⁰¹. Adibide gehiago mende luze baten ondoren ikus ditzakegu. Honela, 1530ean

200. Ikus, XVII. mende hasierako dokumentuetatik aurreragoko aipamenak bilduz, FURUNDARENA SALSAMENDI, J. J.: *Hondarribiko Toponimia*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003, 83 eta 285-286 orr. (Amuaitz eta Erdiko Punta sarrerak). 1432ko datu honek, Amuaitzaren lehen aipamenak mende t’erdi aurreratzen ditu.

201. Izan ere, dokumentuan “*algunos días apries syguientes*”, “*vorguey de mesma çiu-dat* [Baionakoak], “*parrochanes*” (eliztarrak), “*Nuestra Dona de febrero*”, “*suficientemient*”, “*abondosamiento*”, “*vorgesys*”, “*en*” (On edo Don tratamendua) bezalakoak irakur daitezke. Gure susmo hauek Jesús Ángel Solórzano Telecheak berak berretsi dizkigu, testuaren idazkera bitxiaz ohartu gaituelarik; bihoazkio gure eskerrik beroenak. Dokumentuetarako, ikus SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.: *Patrimonio documental de Santander en los archivos de Cantabria...*, aip. lan., 43 eta 44 dok.

Gainera, badirudi Baionako notarioek agirian parte hartu zutela, 1404ko idatzian, Baionako ahalorde-gutunak “*retenidas en forma pública por mí, Iohán de Sant Per, notario público de Bayona*” daudela aipatzen baita, edota “*Las quales cosas los dichos procuradores por nombre que de suso requirieron a nos, notarios de juso escriptos, que los reteniésemos,*

sinatu ziren akordioetan gaztelania eta frantsesa erabili ziren eta horrek, hein batean behintzat, okzitaniara zein gaskoiaren erabilera administratiboaren beharakada, gainbehera, islatuko luke²⁰².

Laburbilduz, 1432ko dokumentua, Bidasoaren bi aldeetako hiribilduen arteko harreman administratiboan gaskoiak izan zuen lekua ikusteko erabilgarria da, baina ez du balio Erreterian gaskoiek edo beraien hizkuntzak izan zuten eragina neurtzeko.

5. 1301 urtea: Oiartzuni lotutako gaskoiezko beste dokumentu bat

Orain arte XIV. mende hasieran Oiartzuni lotutako idatzi bat gaskoiez egotearen inguruan hainbat hausnarketa egin dugu, bereziki bertako udalbatzaren ekimenez sortutako agiria zelako. Horrek atentzioa eman digu hasieratik. Badaude, ordea, ildo horri jarraituta ageri zaizkigun gauza interesgarri gehiago, lerro hauetan jorratzen dugun hizkuntzen erabilera administratiboa eta Oiartzungo historia elkarrekin lotzen dituztenak. Izan ere, 1316koa ez da Oiartzunekin zerikusia duen eta gaskoiez idatzita dagoen agiri bakarra. Halakoa ikusteko, 15 urte lehenago Basesarrikoak berak egindako beste idatzi batera jo behar dugu.

...

diésemos e fisiésemos seudos [sic] e quantos públicos instrumentos de mesma tenor como les fuesen nesçesario sygnados de nuestros sygnos” (ibidem, 83 eta 96 orr.). Azken esaldi honek beste egoera bat agerian utziko luke: tradizio linguistiko-administratibo desberdinetako eskribauen partaidetza, ziurrenik itunaren partaide batek ez-ohikoa zuen idatzizko-hizkuntzan kopiak emateko asmoz.

Ez da antzeko testuinguruan halamoduzko gaztelania idatzian ikus dezakegun agiria. Hor dugu Baionako “*Livre des Établissements*” delakoan, 1311 urtean Baionak eta Miarritzek Castro, Santander eta Laredorekin sinatutako eta latinez idatzitako bake-ituna. Hiribildu kantabriarrek akordioa berresteko egin zuten ekitaldian, izenik gabeko eskribauak oso modu bitxian idatzi zuen, gaskoia edo nafar-erromantze kutsuz. Horren lekuko gerta daitezke “*aquelhos*”, “*conseilho*”, “*los sobre dijtz sabios*” edo “*sa valor*” hitzak, eta honako esaldiak: “*a todos los fieles en Iesu Christo qui esta prezent carta ueiron e oiron, como nos el conseio de Castro Durdiales (...) per nos e por todos los habitantes de le misma vila, peer le tenor de queste presente carthe...*”; “*en ste prezente ordenatin auemos fecho poner el nuestro saelho maior en pendent en testimonio de verdat*”; “*E per medisse manere que dessus es de los de Santandir*”; “*E per medissa manere que los de Sentandir, es de los de Laredo*”. Hemen ere hainbat hipotesi planteatu daitezke: eskribaua kantabriarra ez izatea, bere hezkuntza handik kanpo jaso izana (Aragoin? Nafarroan? Lapurdin?) edo liburua bera 1336an egin zuen eskuak garaiko gaztelania jatorrean zegoen testua moldatu izana. Ikus *Archives Municipales de Bayonne. Livre des Établissements...*, aip. lan., 300-301 dok.

202. Ald. GPAH-AHPG 3/0329, 34 au.-65 at. eta GPAH-AHPG 3/0330, 70 au.-87 at. folioetan gordetzen diren 1536 eta 1537an egindako akordio edo kapitulatuak, Itsasoko Lau Hiribilduek, Bizkaia eta Gipuzkoak Baiona, Lapurdi eta Cabretonekin sinatutakoak. Kasu honetan, frantsesez idatzitako dokumentuen aurrean gaude.

Dagoeneko egile batzuek Basesarrik 1301eko otsailean idatzitako dokumentu batek Gipuzkoarekin izan dezakeen loturari erreparatu diote²⁰³. Idatzi horretan erregistratzen zen ekintza, honakoa zen: Romeo edo Errumio Bergarakoak, Migel Martin Leringoak, Martin Xemen Agorretakoaren seme Martinek eta Maria Maiakoa andreak Zizurko Donibane edo San Joan Ordenaren aldeko ordainketa-gutun bat luzatzen zuten²⁰⁴. Erakunde erlijiosoak ordainketa burutzearen zergatia salmenta batean zetzan. Pentsa dezakegunaren kontra, ez zen une horretan burututako salerosketa, aspaldian egindakoa baizik; dokumentuak zioenez, 1272ko Aroan (alegia, 1234 urtean) egin zen. Data horretan saldu zena, honakoa zen: “*los cuyolars Duharçen Çorçaraç ab totes sas pertienças e ab totz lo autres cuyolars que aue yu termi Duharçen o en le vezintad, que son vint et dus, segont par per vna carta escriuta en pargamini e feyte en latin de la era de mill e dozenz e setanta dus anz, e deus dies*”.

Erakunde erlijiosoak ahalordedun edo ordezkari baten bidez jardun zuen eskrituran, eta lau pertsonak berarengandik jaso zituzten sosalak. Ordezkari hori da, hain zuzen ere, gure arreta eskuratzen duen lehenengo puntua, gipuzkoarra edo Gipuzkoarekin lotura estua zuen pertsona baitzen. Aitortzaileek dirua Lope Gizerudiagakoarengandik hartu zuten, Tolosako Arrameleko eta Donostiako Santa Katalinako komendadorearengandik. Vargasen 1316ko dokumentuaren kopian “*d’Uharçon*” aldaera agerian gertzen bada, 15 urte lehenago sortutako idatzian antzeko terminoa dugu begien aurrean. Aitortzaileek eskaera bat egiten zioten “*Duharçen*” izena zuen leku bateko probestu, alkate, hamabi eta batzarrari: “*totz ensemble pregan au prebost e aus arcaudes e aus iuradz e a tote le comune Duharçen que meten lo lor sayet en questa carta per ceu que mes firme sie*”. Egitura instituzional hori ezaguna zaigu eta ia ezinbestean Donostiak zuenera garamatza.

203. Bereziki, AGUINAGALDE, F. B.: *Una presencia casi desconocida de la Orden de San Juan de Jerusalén en Guipúzcoa. Notas sobre la historia de la encomienda de Santa Catalina de Rodas y San Juan de Arramele hasta su desaparición en 1671*. Donostia, s.e., 2004, 14 orr. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J.: *Colección... (1200-1369)*, aip. lan., 82 dok. (dokumentuaren laburpena bakarrik). Dokumenturako, GARCÍA LARRAGUETA, S.: *Documentos navarros...*, aip. lan., 121 dok.

204. Ospitalearen inguruan, GARCÍA LARRAGUETA, S.: *El Gran Priorado de Navarra de la Orden de San Juan de Jerusalén. Siglos XII-XIII*. Iruñea: Príncipe de Viana, 1957 (bi liburuki). Erakundearen funts dokumentalen gorabeheraren inguruan, anitz bibliografiarekin: ÁLVAREZ-COCA GONZÁLEZ, M.ª J.: “La Orden de San Juan de Jerusalén en el Archivo Histórico Nacional: aproximación general a sus fuentes. El archivo del Gran Priorado de Navarra”. In: *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, 17 (2010), 97-118 orr. Gipuzkoarako, ikus AGUINAGALDE, F. B. de: *Una presencia casi desconocida...*, aip. lan., bereziki 12-15 orr., zeinak Gipuzkoako enkomienda hauen jatorrian, gaskoien eragina balizko hipotesizat hartzen duen.

Ondorioz, bide gipuzkoarra “*Duharçen*” toponimora lotuz, leku-izen horren atzetik Oiartzun dagoela ondoriozta dezakegu, zeinak Donostiako foruaren bidez eskuratu zuen gobernu-antolaketa instituzionala probestu, alkate eta hamabiez osaturik zuen.

Hasiera batean ordainketa gutuna non eman zen ez dakigu, aipatutakoak nongoak ziren ere ez, ezta “*Duharçen*” hori non zegoen ere. García Larragueta Jerusalemgo San Joan ordenari buruz egindako lanean, adibidez, gerora emango zuenaren interpretazio edo irakurketa zeharo ezberdina burutu zuen. Hasiera batean, dokumentuak Nafarroako Artze (“*du Harçen*”) eta Goldaratz (“*Çorçaraç*”) herrietako nekazari-morroien salerosketa islatzen zuela zioen²⁰⁵. Azkeneko hurbilketetan, berriz, hitz horiek aldatu zituen; arras aldatu ere.

Datuak uztartuz, Gipuzkoarekin zerikusi zuzena duen dokumentu baten aurrean gaudela ondorioztatu dezakegu eta, ziurrenik, idatzi ere, lurralde horretako lekuren batean idatziko zen. Gizerudiagaren aipamenak dagoeneko Gipuzkoan begirada jartzera garamatza, baina ez hori bakarrik²⁰⁶. Dirua jaso zutela aditzera emateko, idatziaren emaile edo ematariek bermatzaile edo fidatzaileak aurkeztu zituzten, honakoak, hain zuzen ere: “*Iohan Santz d’Uart, Iohan Martinz d’Aramburu, Garçia Erlanz d’Oyciuarr, Pero Ochoa del Seyn, Martin Santz d’Olayz e son fill Iohan Martiniz, Domingo Erlantz de Yçaguirre, Martin d’Orouia*”²⁰⁷. Horietako batzuen abizenak oso esanguratsuak dira, Oiartzunen ohikoak ziren Olaitz, Sein edo Ugarte ikus baititzakegu, Aranburu bera baztertu gabe²⁰⁸. Aldiz, agiria egin zen lekuari dagokionez, burura bi datozkigu: Oiartzun edo, Lastaolako jaunaren eta Hondarribiaren arteko 1299ko hitzarmenean oinarrituz, Donostia.

205. GARCÍA LARRAGUETA, S.: *El Gran Priorado...*, aip. lan., I, 178-179 orr. eta bereziki, 180 oin-oharra. Orduan, agiriaren irakurketa honela egiten zuen: “*los cuyolars de Harçen Çorçaraç ab totes sas pertienças (sic) et ab totz los autres cuyolars que aue yu termi du Harçen o en le vezintad (...) pregam au prebost et aus juradz e a tote le comune du Harçen*”.

206. Dena den, egile batzuk, abizen horrek islatzen duen toponimoa Izurdiaga lekuarekin lotu izan dute. Ikus MARTINENA RUIZ, J. J. *Catálogo documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1301-1500)*. Iruña: Príncipe de Viana, 1979, lanaren aurkibidea.

207. Lekukoen artean Andia, Zilbeti, Olaitz, Olazabal eta Beruete aipatzen dira, eta hein txikiago batean bada ere, horietakoren batek ere Oiartzun aldera garamatza.

208. Abizenen lotura oiartzuarraz jabetu den lehena (eta bakarra?) Borja Aguinagalde izan da. Ikus bere AGUINAGALDE, F. B. *Una presencia casi desconocida...*, aip. lan., 14 orr. Agian esanguratsua gerta daiteke Ordenari buruzko XIII. mendeko dokumentazioan, emaile edo ematarien zein berme-jartzaile gisa izendatutakoen izenik ez azaltzea; 1234tik 1301era arte Ordenak Gipuzkoa aldean interes handia ez zuen seinale. Ald. GARCÍA LARRAGUETA, S. *El Gran Priorado...*, aip. lan., II, 649 orr. eta hh. Ohartu behar dugu aurkibideak onomastikoak besterik ez direla eta sarrerak egiteko sistema nahiko ezohikoa dela; abizenarekin hasi ordez, hurrenkera “izena + abizen patronimikoa + abizen toponimikoa” da.

Bestalde, “cuyolars” hitz horren atzetik, nekazari-morroiak (“collazos” direlakoak) baino, “cubilar” edo gerora sarobeak izango ziren guneak ikusten baldin baditugu²⁰⁹, Oiartzunekin goiz eta lotura estua duen abeltzaintza jardueraren aurrean geundeke, eta dagoeneko XII. mende erdialdean dokumentatu daitezkeen egituren aitzinean²¹⁰.

Sarobe horien inguruan ditugun datuak ez dira gutxi. XIV. mende amaieran, Ugarte oinetxearen eta Orreagako Kolegio-etxearen artean auzi bat eman zen, Urumeako “cubilar”-en inguruan²¹¹. Mende luze bat lehenago, 1270ean, Bizkaiko jaunak Orreagari berari hainbat sarobeetan zuen zatia eman zion, tartean 1389an Ugartetarrena izango zen eta Oiartzunen zegoen Errenga izenekoan zuena²¹². Dohaintza hau, erakunde erlijiosoak aspaldian Gipuzkoan zituen interesen seinale litzateke, izan ere, 1203an Hernando Blancafort-ekoak erakunde erlijiosoari Gipuzkoan zituen ondasunak eman zizkion, Amasan, Asteasun (“*Estiassu*”) eta “Paquiazze” izeneko lekuan zeudenak²¹³.

209. Hitzaren eta esanahiaren inguruan, ikus ARAGÓN RUANO, A.: *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. Bilbao: EHU-UPV, 2009, 103 orr. eta hh. Egile honek, “cubilar” hitzaren erabilera Nafarroako dokumentazioarekin lotzen du (*ibidem*, 109 orr.). “Cuyolar” hitza, berriz, gaskoiez (eta okzitanieraz?) erabilia da. Ikus BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan., 258 orr. eta BIDACHE, J., aip. lan., 105 orr.

210. Donostiari hiri-gutunean egokitutako lurraldean (tartean Urdaburu eta Añarbe ingurutuan) XII. mende erdialdean islatzen diren abeltzaintza-interesetarako, GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A.: “Una villa mercantil: 1180-1516”. In: ARTOLA, M. (arg.): *Historia de Donostia-San Sebastián*, Donostia-Hondarribia: Nerea-Donostiako Udala, 2000, 17-18 eta 27-28 orr. (11-86). Garai hauetan emandako jardueren inguruan, ikus BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica...*, aip. lan.; GARCÍA DE CORTÁZAR, J. A.: “La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián”. In: DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.): *Investigaciones sobre historia medieval del País Vasco (1965-2005), del profesor José Ángel García de Cortázar y Ruiz de Aguirre. 20 artículos y una entrevista*. Bilbo: EHU-UPV, 2005, 281-312 orr. (1982an argitaratu zen jatorrizko artikulua berrargitalpena).

211. Dokumenturako, ikus HH. EE.: *Los señores de la guerra...*, aip. lan., 226. dok.

212. “*do al hospital de Santa María de Ronçasuailles, toda la mi parte que yo he e deuo auer en las mis bustalizas qui son en Ypuzcoa, por nombre Beracoyana e Errenga e Anizlarre con todas sus entradas...*” (OSTOLAZA, M.^a I.: *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*. Iruñea: Príncipe de Viana, 1978, 225 dok., 307 orr.; eta baita ere, IDEM: “La organización...”, aip. lan. 162 orr. eta 23. eranskin dokumentala). Ald. ARAGÓN RUANO, A.: *La ganadería...*, aip. lan. 128 orr.; ARAGÓN RUANO, A.: *Abeltzaintza Oiartzunen XX. mendearen hasiera arte*. Oiartzun: Oiartzungo Udala, 2013, 50 orr.; MUTILOA POZA, J. M.^a, aip. lan., 39 orr.; eta OSTOLAZA, M.^a I.: “La organización...”, aip. lan. 162-163 orr.; ald. FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A., aip. lan.

213. Ikus GARCÍA LARRAGUETA, S.: “El becerro de Roncesvalles”. In: *Príncipe de Viana*, 168-170 (1983), 131 orr. (111-172). Ald. IBARRA, J.: *Historia de Roncesvalles*.

Orreaga ez zen, ordea, Oiartzun inguruko sarobeetan interesa zuen erakunde bakarra. Horren lekuko 1301eko dokumentuan agertzen zaigun Zizurko ospitalea bera dugu, XVI. mende hasieran bailaran oraindik hamabortz sarobe zituena²¹⁴, eta ez litzateke baztertu behar horietako hainbat 1234an eskuratutako hogeita biren artean egotea²¹⁵.

Agiriaren toponimorik ilunena “*Çorçaraç*” dugu, ez baitirudi indarrean denbora asko iraun zuenik. Mende haietako dokumentazioan barnera-tzea, ordea, ez da saiakera guztiz antzua eta 1364ko dokumentu bat horren lekuko dugu²¹⁶. Bertan, Jerusalemgo Donibane Ospitaleak ordezkari edo ahalordedunak izendatzen zituen, Baionako gotzainaren aurrean Arantza, Hondarribia, Oiartzun eta “Sorsaraiz” inguruetako sarobeetan zituen interesak babestu zituzten: “*specialment a goardar todos los montes, bustalizias, arbores, fruytos que son e serán en los montes de las bustalizis de las tierras d’Aranaz, d’Oyarçun, de Sorsaraiz, Santiago d’Ondarravya*”. Horrek

...

Iruñea: Talleres Tipográficos «La Acción Social», 1935, 150 eta 1017 orr., eta azken horri jarraituz, MUTILOA POZA, J. M.^a: *Roncesvalles en Guipúzcoa. Tomo I. El Patrimonio de Roncesvalles*. Zarautz: GAKP, 1976, 94 eta 96 orr. Azken bi egile horiek “bienes” hitzaren ordeztu “villas” irakurtzen dute (nahiz eta ohartu behar dugun XIII. mendea baino lehenagoko “villa” kontzeptu horrek ez duela hortik aurrera izango duen esanahi bera). Era berean, Ibarrrak dohaintza hori 1203an kokatzen du (1241eko Aroa); García Larragueta eta Mutiloak, aldiz, 1202 urtean. Urte batzuk beranduago, 1217an, Blancafort-ek eta monastegiak auzia izan zuten, bigarrenak Gipuzkoan zituen ondasunen inguruan (GARCÍA LARRAGUETA, S.: “El becerro...”, aip. lan., 142 orr.; IBARRA, J. aip. lan., 1030 orr.). Bestalde, 1222an, Guillermo Reimundo eta bere emazteak Gipuzkoan zituzten ondasunen erakunde erlijiosoari dohaintza eman zizkioten, gure lurraldean izan zezaketen interesaren beste zantzu bat izan daitekeelarik (ikus GARCÍA LARRAGUETA, S.: “El becerro...”, aip. lan., 146 orr.; eta IBARRA, J. aip. lan., 1030 orr.). Orreagako dokumentaziorako ikus, baita ere, MIRANDA GARCÍA, F.; eta RAMÍREZ VAQUERO, E.: *Archivo de la Real Colegiata de Roncesvalles*. Iruñea: Nafarroako Gobernuak, 1996; OSTOLAZA, M.^a I.: *Colección Diplomática...*, aip. lan., eta MARTINENA RUIZ, J. J., aip. lan. 1203ko dokumentuak Amasaren inguruan egiten dituen aipamenetarako, ikus *Historia de Amasa y Villabona*. Amasa-Villabona: Amasa-Villabonako Udala, 2003, 73 eta, bereziki, 101-102 orr.

214. ARAGÓN RUANO, A.: *La ganadería...*, aip. lan., 122 eta hh., bereziki 128-129 orr., eta egile beraren *Abeltzaintza Oiartzunen...*, 45-57 orr. XVI. mende hasieran, Oiartzungo olagizonen eta udalbatzaren arteko dokumentazioan, sarobeen inguruko gorabeherak aipatzen dira. Auzirako, ikus AYERBE IRIBAR, M.^a R.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., pássim.

215. Zoritxarrez, ez dirudi 1234ko salmentaren agiri originala edo kopiaren bat gordetzen denik. Zizurko enkomendaren jabetzen garapenerako, GARCÍA LARRAGUETA, S.: *El Gran Priorado...*, aip. lan., I, 88-90 eta 143-152 orr. Badirudi iparralderanzko prozesu bat eman zela, Baztan eta Araitz aldera, eta handik Gipuzkoara. Bigarren bailara horretan, 1274rako jabetzak zituela dirudi. Ald. *ibidem*, I, 149-150 orr., bertako 38 eta 43 oin-oharrak, eta *ibidem*, II, 427. dok.

216. HH. EE.: *Los señores de la guerra...*, aip. lan., 88. dok.

ez du zehazki guretzako ezezaguna den toponimo hori oiartzuarra denik esan nahi, baina bai, ordea, Gipuzkoako ekialde inguruan kokatzen zela eta Bailararekin nolabaiteko harreman geo-ekonomikoa zuela; zerrendan biak hurrenkeran doaz, bata bestearen ondoan edo gertu zeudenaren isla izan daitekeena²¹⁷. Hau guztia dela eta, gure lerro hauek ez genituzke balizko kokapenaren inguruan ohar batzuk egin gabe amaitu nahi.

Adierazi bezala, leku-izen horrek isla handia izan duenik ezin dugu esan. Toponimiari buruzko lanek, inguruko udal artxiboetako dokumentazioak zein bestelako gaietara lotuta baina toponimia oso aintzat hartzen duten ikerkuntzek, ez dute bere inguruan aipamenik egiten, Gipuzkoari dagokionean behinik behin. Hondarribia, Oiartzun, Erreterria, Pasaia edo Lezoko Erdi Aroko dokumentuetan ez da ageri²¹⁸ eta, era berean, Erreterriaren mugei buruzko lanek ez dute kontzeptua bildu²¹⁹. Hori ikusita, gaiak Nafarroa iparraldera begiratzera eramanez gaitzake. Batetik, Anizlarrea aldera; XIII. mendetik interes berezia zuen eremu batera, hain zuzen ere²²⁰. Bigarrenik, Ituren eta Zubieta aldean dagoen Ontzorrotz gaztelura²²¹; zerrendan ematen den hurrenkera errespetatzen ez badu ere, bertan ageri den Arantza herriaren hegoaldean dugulako. Hirugarrenik, eta adierazgarriagoa izan daitekeena, datuek Goizuetako Untzorrotz edo Zontzorrotz gainara eramanez gaitzakete²²². Azken hau Urumea eta Añarbeko ubideen artean, urtegi

217. Ald. ARAGÓN RUANO, A.: “Relaciones ganaderas entre Navarra y Guipúzcoa durante la Baja Edad Media y el comienzo de la Edad Moderna”. In: *En la España Medieval*, 38 (2015), 22-23 (13-35); IDEM: *Abeltzaintza Oiartzunen...*, aip. lan., 55-56 orr.; IDEM: *La ganadería...*, aip. lan. 122 eta hh., non Oiartzun aldean eman zen sarobeen (eta beraien izenen) desagertzearen eta berrien sorreraz diharduen. Ikus, baita ere, MUTILOA POZA, J. M.^a, aip. lan., 39 orr.

218. Ald. Eusko Ikaskuntzak Erreterria, Hondarribia eta Oiartzuni buruz ateratako aleak.

219. Ald. ARENZANA, Tx.: *Erreterria a través de sus mugas*, Erreterria 2004², Erreterriako Udala eta IDEM: “Los seles en Erreterria: una primera aproximación”. In: *Bilduma*, 23 (2010) 179-213 orr. Eskerrak eman nahi dizkiogu Txema Arenzanari berari, toponimoaren inguruan egindako galderei erantzuteagatik.

220. Orreagako Kolegio-etxeak zituenak, besteak beste. Ald. MUTILOA POZA, J. M.^a: *Roncesvalles en Guipúzcoa. III. La Desamortización en Articuza y Cegama*. Zarautz: GAKP, 1976, eta ARAGÓN RUANO, A.: “Relaciones ganaderas...”, aip. lan., 24 orr. Eskualde hori ez da XII. mendearen bigarren erdialdean edo XIII. mende hasieran koka dezakegun eta Tolosa inguruetan zegoen Anizlarrea toponimoarekin nahastu behar. Honen inguruan, ikus DIEZ DE SALAZAR, L. M.: *Colección diplomática del concejo de Segura (Guipúzcoa). (1290-1500). Tomo I (1290-1400)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1985, 14, 24 eta 30. dok.; eta MORA AFÁN, J. C.: *Olaberriaren historia hastapenetatik 1804ra arte*. Donostia: Aranzadi Zientzi Elkarte, 2004, 35 orr.

221. Orçorots, Orçorontz, Orcorrotz edo Unzarroz aldaerekin ere ezaguna dena. Gere inguruan, <http://www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/gazteluak/Gazteluak/Ortzorrotz.htm>

222. Ald. ZALDUA ETXABE, L. M.: *Urumea Zilegimendietako Toponimia*. Deustuko Unibertsitatea, 2011, 288 orr., 777 oin-oharra. Eta 1098 orr. (<http://edtb.euskomedia.org/id/eprint/5992>).

ondoan eta Goizuetako lurretan, baina ia Oiartzun eta Errenteriarekin mugan dagoen elementu geografikoa dugu; ondorioz, XIV. mende mendeko toponimoen esparru geografikoarekin bat letorke.

Dena den, dokumentuetan leku-izen ezezagun hau inguratzen duten toponimoei so egiten badiegu, baliteke gure ikerketa esparrua Gipuzkoan mantendu behar izatea. Alde batetik, 1301eko dokumentuak “*los cuyolars Duharçen Çorçaraç ab totes sas pertienças e ab totz los autres cuyolars que aue yu termi Duharçen o en le vezintad*” aipatzen ditu, bi toponimoak estuki lotuta azaltzen zaizkigularik²²³. Ildo beretik, 1364ko leku-izenetan agertzen zaigun Arantza, Oiartzun, Sorsaraiz eta Santiago-Hondarribia hurrenkerak Oiartzun eta Hondarribiko Santiago basilizararen arteko zonalde batera bideratuko gintuzke. Hipotesi honi jarraituz, 1389ko sarobeen zerrenda kontsultatzea interesgarria da. Bertan, Oiartzun eta Irun (garai hartan, Hondarribiko jurisdikzioan) arteko mugan 8 sarobe kokatzen ziren. Hau ikusita, eta kontsultatu ditugun datuetan oinarrituta, “Çorçaraç” izenak bertako zonalde bati aipamena egingo ziola pentsa daiteke²²⁴. Zoritzarrez, zerrenda horretan ez zaigu ageri. Izenak bizitza laburra izan zuela ematen du, hogei urteren buruan desagertu arte. Arrazoen artean gune horrek bere baitan bizitako zatiketa prozesu azkarra legoke. Modu honetan, lurralde hori unitate txikiago batzuetan zatitzearen ondorioz, aurretik espazio zabalago bat izendatzeko erabiltzen zen hitza baliorik gabe geratu zen. Unitate ttipi horiek sarobeak izango ziren, bakoitza bere izenarekin.

Baina nahiz eta desagerpen goiztiarraren hipotesia zentzugabea ez izan, prozesu horrek ez zuen zertan gertatu behar. Oiartzunen bada gaur egun bizirik dirauen leku-izen adierazgarri bat, bertako hego-mendebaldean eta Errenteriako mugatik hurbil: Zontzorrotz leku edo ingurua hain zuzen ere²²⁵. Gune menditsuan kokatua dago, eta bertan erromatar garaiko meategien aztarnak topa daitezke. Bi izenen ahoskera, ezberdintasunak ezberdintasun, oso antzekoa da eta denboraren poderioz toponimoek izaten dituzten aldaketak aintzat hartuta, bata bestearekin lotzeko arazo handirik ez legoke, baina traba bat dugu, eta ez nolanhikoa gainera. Bildu diren datuekin, Sorzaraitz eta Zontzorrotzen artean lau mende t’erdiko isilune dokumentala dago, biga-

223. “*aue yu termi Duharçen*”.

224. 1389 urteko agirirako, ikus ARAGÓN RUANO, A.: *La ganaderia...*, aip. lan., 130 orrialdean agertzen den mapa.

225. Allangoa edo Allangue sarobetik ez oso urrun. Berari buruz, ikus GOIKOETXEA, I.; eta LEKUONA ANTZIZAR, I.: *Oiartzungo Toponimia*. Oiartzun: Oiartzungo Udala, 2007, 321 orr. eta bereziki IKERMAP IBAETA: *Oiartzungo toponimiaren ikerketa orokorra. Behinbetiko txostena*, 2007. Eskerrak eman nahi dizkiogu Oiartzungo Udaleko euskara teknikari den Aitziber Amaizi eta artxibo-teknikari Koro Pascuali, lana helarazteagatik.

rrena ez baitugu 1708ra arte ikusiko²²⁶. Biek lotura balute (izatekotan), isiltasun hau ulertzen zaila da, nahiz eta behin-behinekoa izan; agirietan bilaketa sakonagoa egin beharko genuke²²⁷.

Ondorioak

Paragrafo hauek bi dokumenturen transkribaketa aditzera eman nahi zuten eta funtsean, hori egin dute. Agirien edukiek, baina, askotan korapilatutako hari-mataza luze baten muturretik tira egitea dakarte eta horren ondorioz, anitz galdera sortarazten dira; aurreikusten direnak baino gehiago eta argi eman ordez, iluntasuna areagotzen dutenak.

Azalean duten informazioaz gain bi idatziek bestelako prozesuak adierazten dizkigute. Donostiari lotutakoa, lehen ere aipatua izan den ideia baten isla delakoan gaude; alegia, gaskoiek hiribilduaren sorreran eta ondorengo mendeetan izan zuten pisuaz hitz egingo liguke. Oiartzunekin harremana duen dokumentuak, aldiz, prozesu berri baten aurrean jartzen gaitu. Funtsean, baina, biak ala biak ohitura administratibo baten adibide direla uste dugu: gaskoiak garai haietan eta Gipuzkoako lurraldearen zati batean izan zuen erabilera idatziarena, hain zuzen ere.

Behere Erdi Aroak eta bere XIII eta XIV. mendeek oso garai interesgarria osatzen dute latinetik bestelako hizkuntzen erabilera idatziaren ingurukoak ikertzeko. Luze eta zabal jardun den gaia izanik ere, prozesu horrek Gipuzkoako lurraldean izan zuen nondik norakoari buruz oso gutxi dakigu, nahiz eta datuek benetako laborategi baten aurrean gaudela aditzera eman. Egoera hau ez zuen lurraldearen izaera mugakideak sortu bakarrik, administrazio ezberdinek bertan zuten indar zuzenak ere

226. Ikus OUA, A-1-14-1, 60 au. folioa, Martin Perez Aramendikoak 1708ko martxoan egindako eskaera. Berriki topatutako datu honek toponimia lanetan jasotako lehenengo aipuak atzeratzen ditu. Behin betiko txostenean, leku-izenaren lehenengo aipamena 1813an jartzen da, nahiz eta aitzindari moduan 1771 eta 1772an hurrenez hurren ikus daitezkeen “Unzurin” eta “Cincurrin” jarri. Edonola ere, isiltasunak nabarmena izaten jarraitzen du eta 1470ean egin zen Oiartzun eta Hondarribiaren arteko mugarritzean ere, ez da ageri. Dena den, ohartu beharko genuke XVIII. mende hasierako aipamen hori udal-aktetan oinarritu dela eta, ondorioz, baliteke bestelako funtsetan (berezi natura judizialekoetan) nolabaiteko adierazpenak gordetzea.

227. Alegia, Oiartzunen egin diren toponimia lanek erabili dituzten iturri dokumentalak mugatuak dira eta gauza jakina da bestelako agirieta joz, datazio zaharragoak (eta izen berriak) topa daitezkeela. Horren lekuko da aurreko oin-oharreen aipatu dugun datua. Modu berean, 1719 azaroaren 4an inguru horietan (“Sanzorroz”) izandako sute baten berri dugu (OUA, A-1-19-1, 274 au.). Sarobei dagokienez, eta Alvaro Aragónek horiek kokatzeko egindako mapan dakusagunez, inguru horretan ez zen halakorik egon 1514ra arte. Ordurako, hiru sarobe sortuak zeuden.

berebiziko papera jokatu zuen. Inguruko erromantzeen eraginak nolabait islatu behar ziren, baina gaskoia, erromantze nafarra eta gaztelaniaren influentzia noraino edo nola suertatu zenaren inguruan, oraindik asko dugu ikertzeko.

Testu guztiak ongi ulertzeko beraien ingurumaria kontuan hartzea funtsezkoa da. Dokumentuaren gakoak anitzak dira eta horietan erabilitako hizkuntzak berezko lekua du. Idatzia non, norik eta zerk sustatu zuen argitu behar da, nori zuzendua dagoen ahaztu gabe. Oiartzungo agiria adibide azpimarragarria da, historiografikoki ildo garrantzitsua izan duen gaskoien gaiarekin lotzen baikaitu. Horrek, dokumentuaren sorrerari lotutako galdera berriak sorrarazten ditu: ustez bertan ezarritako komunitate gaskoi batek sustatua izan zen, ala inguruetako beste hainbat lekutan dokumentu idatziak egiterako garaian ematen zen joera baten eraginez idatzi zen.

Donostiako agirian bi faktore horien arteko uztartze baten ondorioak ikus ditzakegun bezala, Oiartzunentzako bigarren aukera litzateke balizkoena; izan ere, eta orain arte egile gehienek mantendu dituzten iritzien aurka, gure ustean Pasaia eta Oarsoaldeak ezagututako gaskoien etorrera ez zen Donostia bezalako hiribilduetan eman zen garaian jazo, hau da, XII. mendearen hasiera aldera. Hainbat mende beranduago gertatutako prozesua delakoan gaude.

Horretan guztian ezin ditugu mendeetan zehar Iparralde eta Hegoaldearen arteko harreman sozial, kultural, ekonomiko edo politikoak ahaztu. Baina hori hala izanik ere, Behe Erdi Aro hasieran jazotako mugimenduek Pasaian ez zuten orain arte eman zaien garrantzia izan. Gaskoien eraginaren jatorria eta gorenaren orduan emandako mugimenduetan jarri izan bada ere, hizkuntzak Pasaian XX. mende hasieran azken hantsa eman izanak ez du esan nahi, nahita nahi ez, XII. gizalditik datorren eta etenik izan ez duen prozesu bat izan zenik. Egia da XV. mendean mendearen Pasaialdean ikusten ditugun abizenen artean Iparraldeko jendea dagoela, baina beraien indarra ez zen orain arte uste izan dena bezain handia izan. Alde horretatik, susmoa dugu hizkuntzaren iraupenak harreman estuagoa izan zuela XVII. mende amaieratik aurrera gertatutako mugimendu desberdinekin, Erdi Aroan errotuta dauden prozesuekin baino.

Oiartzuni lotutako gaskoiezko testua usadio administratibo baten baitan jarri behar dugulakoan gaude, baina ez Bailaran ezarritako komunitate gaskoi batek sustatua, kanpotik zetozen hainbat faktorek baizik. Batetik, ondoko hiribilduetan ematen zen joera zelako, erran nahi baita Donostian eta, ziurrenik, Hondarribian. Bailarak bertako eskribauetara behin baino gehiagotan jo izan zuen, bereziki Erretereria sortu aurretiko garaian. Bigarrenik, Baionako gotzain-barrutiaren baitan XI. mende

amaieratik egotea funtsezko faktorea izan zen, bertan gaskoia baitzen idazterako garaian hizkuntza lehenetsia. Hirugarrenik Nafarroak jokatutako papera dugu, bi alor azpimarratu beharko liratekeelarik: bata, erromantzea erabiltzeko joera goiztiarra eta bestea, Erresuma Zaharrak XIII. mendetik aurrera ezagutu zuen errealitate administratibo eleanitza. Egia da Oiartzunek ez zuela, saiakerak saiakera, harreman politiko-administratibo zuzenik ezagutu Nafarroarekin 1200 urtetik, baina lotura sozioekonomikoek beren horretan iraun zuten. Ondorioz, gaztelaniaz gain, inguruan, baita Gipuzkoako lurraldean ere, bestelako erromantzeen erabileraren berri zuten. Ez hori bakarrik, hizkuntza horietan idatzitako agiriak jaso zituzten, beraiek ere erabiliz, Hondarribiak 1245ean egin bezala.

Oiartzun eta gaskoiaren arteko lotura hau bailararen izenaren aldaera edo molde batean ere islatzen da; XII. mende amaieratik eta XIV. mendeko lehen hamarkadetara arte dakusagun “Huarz” edo “Huarçen” forman, hain zuzen ere. Pixkanaka, XIII. mende amaieratik gutxienez, agiritan “Oiartzun” euskal izena gailentzen da, gaskoiaren eta latinaren erabilera gutxitzen doan heinean. Gainbehera honen zergatia bi arrazoitant koka dezakegu. Lehengoa, barne dinamikari lotutakoa. Badirudi XIII. mende hasieran, eta hein batean, oiartzuarrek Donostia eta inguruko gaskoietara jo zutela erregearen aurrean beraien ordezkari moduan aritzeko. Hamarkadak aurrera egin ahala, ordea, bitartekaritza hori Bailarako biztanleek beraiek hartu zuten, beraientzako berezkoa zen toponimoaren forma errege-auzaldietan aditzera emanez, formalago edo jantziago izan zitekeen eta arrotza zitzaien “Huarz” hori alboratuz. Gainbehera honen bigarren arrazoa kanpoko faktoreetan oinarrituko litzateke; hau da, gaskoia zerabilten Donostia bezalako hiribilduek beste horrenbeste egin zutenean eta Gaztelako erregearen administrazioa sendotzen zihoan heinean.

Hala ere, XIV. mende hasieran oraindik gaskoiak idatzizko usadio azpimarragarri bat osatzen zuen, baita Oiartzunen kasuan ere. 1316ko agiriaz gain, lerro hauetan aditzera eman dugun beste datu batean ikusten dugu hori. Izan ere aurreko paragrafoak gaskoiez dauden bi dokumenturen berri eman eta horien transkribaketa plazaratzetik haratago joan dira. Horrez gain, eta aurretik emandako hainbat hipotesi berretsiz, dagoeneko plazaratuta zegoen hirugarren baten lotura oiartzuarra finkatu dugulakoan gaude, zeina 1316ko eskribau berak idatzia izan zen. Modu honetan, Gipuzkoako inguru batzuetan, Behe Erdi Aro hasieran bizi izan zen idatzizko egoera eleanitza agerian utzi da, gure lurraldeko ekoizpen dokumentalean izan zuen isla plazaratuz.

Dokumentuak²²⁸**1****1310, abuztua. Donostia**

Donostiako udalbatzak sagardo eta ardoaren salneurriaren gainean egindako ordenantza.

- RAH. Vargas Ponce, 9-4195-89. XIX. mende hasieran egindako kopia. Berarekin batera gaztelaniazko itzulpen bat eta transkribaketa eta itzulpena egiterakoan sortutako hainbat ohar gehitzen dira.

1300 y tantos

Sidras. Gascón en S. S. Privilegio de los herederos de S. S. sobre los vinos é cidras (Lib. becerro, fol. 22)

Coneguda cause sie á tot, que com lo temps passat ordinaçión fos feyte per nos, lo cossell de la viele de Sant Sebastián, en a rrezón deus vins e de les pomades, que mesure de pomade²²⁹ valez syes souç de la monede menude de la guerre [sic]²³⁰ e lo (p~~eeh~~) picherr deu (vyn) vyn valez sseys souç de medisse [sic] monede. Lo quan ordenament fo²³¹ feyt en lo temps que marc d'esterlins valz oytante mr. e que segund que la valor deu mar. puyas o baxas que per la rezó puyas o baxas la valor deus dyz beuradges.

Are nos, lo cosell de la dite viele, aperat²³² per crida e cridat e ajustat cosell a(m)b aquetz que sy ajustam, dizem que es cotume enter nos enquera avantz de aquest ajustament en auter o en (autres) autes ajustamentz, avent sobre açò debatut nos cossell fermant en tot lo pla de eturer (...) pa²³³ tote la viele trobant que lo

228. Testuan hizki etzanetan ageri diren zatiak Vargasek egindako oharrak dira.

229. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “*Nota a la línea 4ª: Por pomades creo (que) firmemente que debe entenderse (cerveza) cerveza. Lo que no admite duda es que antiguamente se hacía de manzanas esta bebida, así como en el día de cebada; y me parece haberlo leído en Luis Vives*”.

230. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “*Nota a la 5ª: En lugar de guerre no dudo que debe leerse terre: moneda de la tierra lo he leído muchas veces; pero nunca moneda de la guerra*”.

231. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “*Nota a la 6ª: La palabra lo debe sin duda decir fo: el qual ordenamiento lo hecho no tendría sentido, y el qual ordenamiento fue hecho lo tiene admirable*”.

232. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “*Nota a la 10ª: Confieso ingenuamente que no sé el genuino y preciso (sentido) significado/ de aperat, le he dado el de reunido porque no admite duda que quiere decir esto, o alguna otra cosa equivalente*”.

233. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “*Nota a la 15ª: de eturer... pa no sé lo que significa ni lo que pueda querer decir*”.

prez deus breuradges, assy com se su(...) ²³⁴ los jurnaus deus braçes dece temps darz, per los quaus [sic] los heredamentz se solen (...) ²³⁵ son trop hautz pla que no solen assy que tress vegades no avem tant es lo cost que mess vegades no avem de nostres heredamentz, e per açò gurpissen y perden grande meutz en que ²³⁶ os [sic] nostra vite et nostra honor (...) a nos vedent que açò es trop grand desservizi de Diu e deu Rey, nostre señor, et noste grand (~~dapnage~~) dapnadge et destrument de totz nos en generau e de cascun de nos en spau. (...) segue la viele sau poi rymar. Per esquivart aquetz dapnadge pera (...) Nos, cossell de sus dyt, ameilleram lo devant dyt, nostre establiment a servyçi de Diu et deu Rey, nostre señor, á profit de toz e de cascun de nos et de tote le viele prou (?) (...) Sent (ñ) Miqueu de seteure qui será en (a) avant, picherr de vyn valle dus esterlins (...) de pomade, autres dus esterlins.

En testimonança de le quan cause nos, cossell, avem manat far [sic] aqueste carte en pendent de le quan es pausat nostre sayed mayor.

Fo feyte lo mes de agost, Ara de myll et treçentz e quarante e oeyt antz, estan jurats de le vielle en Arnau Johan de Leporte, en Peys d'Espayne, en Semes (de) e Ochoa, en Guillen de Mog(...), en Johan Vidau de Perquer, Martín d'Acorda eus autres jurats, los companyos (...) fon dar jurar su aqueste arreye ²³⁷.

(Como se ve, éste no es privilegio sino un acta capitular y ordenanza y bando establecido ²³⁸. *En consecuencia, se ve por él cuál era el lenguaje de S. S., quiénes fueron sus primeros vecinos. Y como este sea el único instrumento antiguo de S. S., pues todos los otros son privilegios dados en la curia de los Reyes o en los tribunales y de otros muy posteriores y los libros de acuerdos y las ordenanzas no pasan de*

234. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “Nota a la 17^a: en quanto a su... digo lo mismo que en la nota a la línea 15^a”.

235. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “Nota a la 18^a: Acaso después de solen debe leerse fer”.

236. Vargasen transkribaketa eta itzulpenari egindako oharra: “Nota a la 18^a, 19^a, 20^a y 21^a: Dificil es el sentido o significado de estos quatro renglones: opino que quieren decir que los jornales son tan altos que de sus heredamientos no sacan tres tantos de lo que cuestan ellos. También ignora el riguroso significado de gurpissen; pero poco más o menos (~~donde~~) quiere decir nos agobiamos, arruinamos, destruimos u otra cosa equivalente”.

237. Vargasek transkribaketaren ondoren egindako ohar orokorrak:

“Advertencia. Estoy algo (val) vacilante en la traducción del último renglón.

Otra. Parece que la idea de este 2^o establecimiento fue abaratar los caldos indicados porque de su subido precio resultaba el mayor valor de los brazos, o jornales.

Otra. El documento está escrito en idioma provenzal, el qual como v. m. no ignora, se habló y se habla más o menos dulce en el Languedoc, Provenza, Rosellón, Cataluna [sic], Valencia, Islas Baleares, Gascuña y Guiena. Los diptongos que se advierten en este documento de au, ei, eu jamás se (enquentran) encuentran en el catalán antiguo”.

238. Ohar hau, beraz, Donostiako Txahal-larru Liburuaren kopian agertzen denaren ildo-tik ulertu beharko genuke.

principios²³⁹ del 16, por todos títulos se conocera (?) que esta es la lengua del País, que la (...) es nueba y gascona, y que es un sueño quanto se diga en contrario. El gascón se conserva en Pasage, su aldea.

Habla sólo de jurados y nada de regidores, señal clara que entonces no los había, y por esto después los jurados llevaban la preferencia a los regidores y el jurado mayor firma en defecto del alcalde y llevaba la voz del consejo. Y ahora les han quitado contra toda xusticia, reasumiendo los regidores sus funciones y puestos (?).

Jurados: Tomarían este nombre del juramento que hacían para el buen uso e su puesto, como se llamaban sacramenteros los ministriles o alguaciles subalternos por otro juramento o sacramento que hacían. Este documento es de suma importancia).

2

1316, maiatza, 7. S. I.

Salmenta-gutuna, Oiartzungo udal-basoena, Oiartzungo udalbatzak Donostiako auzo den Pero Ibañez Durangokoaren eta Joan Ibañez Hernanikoaren alde egindakoa.

- RAH. Vargas Ponce, 9-4217, 14. XIX. mende hasieran egindako kopia arrunta.

- EUA, B-1-1-1. Vargas Ponce bilduman dagoenaren kopia arrunta, XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran burututakoa.

1316 (7 de mayo)

S. S. Instrumento en lemosín²⁴⁰

Coneguda causa sea á toz, com nos, lo coseill d'Uharçon, arconerssam e autregan²⁴¹ [sic] que avem benut a vos, Per Ybagnes de Durango, laster [sic], vecin de Sant Sebastián, e a vos, John Yvagnes de Hernani, laster [sic], tot lo rassó que es e será en los boscadges nostres d'Uharçon, los quals²⁴² nos avem e posedem. La²⁴³ qual rassó es e será bon para far astes de lances e astillaus: ce [sic] es a saber d'aqualquier²⁴⁴ (?) persona²⁴⁵ facta²⁴⁶ de Santa Maríe de mair²⁴⁷ [sic] en cinc ans (...)

239. Hitz honen goialdean, "1482" idatzia agertzen da.

240. RAE-ren arabera, Limoges hiriburua duen eskualdean hitz egiten den okzitaniaren dialektoari esaten zaio. Hitz hauen ondoren EUA-n gordetzen den kopiak honakoa dio: "(Tomo 44 de la Colección Vargas Ponce en la Real Academia de la Historia)".

241. EUA-n: "autressan".

242. EUA-n: "qts.".

243. EUA-n: "Lo".

244. EUA-n: "daqyte" (?).

245. EUA-n: "peña" (?).

246. EUA-n: "fusta".

247. EUA-n: "Maiz".

per cent sterlines de paguement contable arr a niro temps en Sant Seb.²⁴⁸ que nos vos devem dar por cada cargue d'astes de lances que facen la carga²⁴⁹ 40 astes de lances et per cinc (o cent) sterlins de la dite nien²⁵⁰ que vos nos deus dar por cada cargue de astillaus que feu la cargue sedze dodzenes d'astillaus; e go es á saber...

Sigue el instrumento: se obligan con sus bienes, habidos y por haber, y el instrumento está otorgado por Juan de Bassessari²⁵¹, escribano de S. S., que fiz la present carta a la infraescrita deud diz Joh Perez e de Sancho Nuñez [sic] a VII dies de Maiz, Era de mill CCC LIIII ans.

Original²⁵² escrito en un pergamino casi cuadrado y de poco más de tercio, aunque lo ancho es algo mayor, escrito en este sentido, en el archivo de Rentería, que custodia Gamón.

Es²⁵³ muy útil para ver el language que todavía se hablaba en S. S. y era el corriente y usual en 1316.

248. EUA-n: “*nin sps. au St. Seb*”.

249. EUA-n: “*cargue*”.

250. EUA-n: “*mon*”.

251. EUA-n: “*Basussarri*”.

252. EUA-n: “*(Existe...)*”.

253. EUA-n: “*Nota. Es muy...*”.